




Mito hurbilak

Euskal mitologia jendeen bizitzan

Anuntxi Arana

 BOOKTEGI

ANUNTXI ARANA

mito hurbilak

Euskal mitologia jendeen bizitza



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

Liburua:

Aspaldian sortu eta hazi izanagatik, gaur egunean ere hunkitzen gaitu mitoen ederrak, eta haien mintzaira ulertzen dugu, gu garabiltzaten munduaren eta bizitzaren kezka berdintsuak darabiltzatelako mitoek. Eta jendarteek bere burua miratzen baitute beren mitoetan, haietarik batzuk politika arlorra sartu izan dira eta funtzio berriak betearazi zaizkie, erligioaren eta politikaren artean ohi diren zubiak baliaturik.

Liburu honek mitoen eta pentsaeraren arteko harremanak aipatzen ditu hainbat gaitan zehar (ekaitza, heriotza, ura, auzoak, emazteak, apezak), hemengo kondairetan oinarriturik eta beste herrietakoekin alderaturik. Eta, beroan bero, 'Mari' delakoaz eta hizkuntzaren sexismoaz ez ohiko iritziak ematen ditu.

Lehen edizioa 2000. urtean atera zen, eta mamian aldaketarik gabe dator oraingo hau.

Egilea:

Anuntxi Arana, Luiaondon (Aiara) sortua 1947an, Angelun (Lapurdi) bizi da. Euskal mitologiaz egin du doktorego tesia 1996an, euskaraz: *Orozko haraneko kondaira mitikoak*, UEUK argitaratua. Bestalde, Iparraldeko sinesmenak eta kondairak ikertu ditu, hala nola *Bidarraiko harpeko saildua* liburuan (1985) eta Cerquand-en *Iparraldeko Legenda eta Ipuinak* bi argitalpenetan (1985-1986, Txertoa; eta 2017, Gatuzain). Gatuzain argitaletxe berak *Mito hurbilak* publikatu du 2000 urtean, *Mitoen bilakatzea* 2004ean. Elkarrek, berriz, *Euskal mitologiaz, jentilak eta kristauak* (2008), geroago frantsesera itzulia, eta *Hilak gure artean*, 2015ean.

Argizaiola saria jaso zuen Durangon 2014an.

SARRERA

I. MITOAK

Maiz aipatuak, batzuetan kausa baten alde eta, aldi berean, kontra ekarriak, jende askoren mintzagai eta arretaren pizgarri izan arren, mitoen definizio orokor eta asegarririk inork ez du eman orain arte. Eskasia hori hemen erremediatzea pretentsio handiegia balitzateke ere, on da lerro nagusi batzuk gogoratzea, han-hemen ibiltzen diren iritziak azaltzea, eta horien artean neurea ere berdin.

Gaian sartzeko hiztegi eta entziklopedietan dauzkagun definizioak: haien bidez oroitaraziko ditugu jadanik bagenezkienak baina usu ahanzten ditugunak, hasteko, hitz polisemikoa dela 'mito', beste asko legez:

- MITO. 1. Antzinako jainko eta heroien ekintzetan edo egiazko gertaeretan oinarritzen den alegiazko kontakizuna, jatorri ezezaguna eta herri baten tradiziozko pentsamendu kolektiboaren osagai dena, naturako indarren edo jende izaeraren zenbait alderdiri buruzko ikuspegia eta sinesteak isladatzen dituena. 2. Kontzeptu abstrakturen bat azaltzeko erabiltzen den alegoria edo irudikapen sinbolikoa. *Platonen haizuloaren mito*a.
3. Errealitatean inongo oinarririk ez duen uste edo ideia. *Erdi Aroko euskal demokrazia mito hutsa da*.
4. Pertsonaia, pertsona, gertaera, teknika baten eta abarren inguruan sorturiko uste idealizatua. *Kirolari baten mito*a. *Informatikaren mito*a. (Elhuyar, *Hiztegi Entziklopedikoa*).

Lehen definizioa da, bistan da, lan honetako gaientzat egokiena. Hargatik, 'mito' hitzaren esanahi desberdinek ez dute elkar baztertzen, elkar osatzen baizik, zentzu bat azpimarratzen denean besteak ez direlako ezabatuak. Hirugarren definizioa, "oinarririk ez duen ustea", askotan erabilia izan da eta badu historia luzea: kapitulu hauetako hizpidea ez den arren, ohartzekoa da. Antzinako Grezian, *mythos / logos* bikotea dugu, oso operatiboa, elkarren eretzean zehazten baitira bien zentzuak: mito, beti, beste diskurtso baten iruntzia da, "egia" esaten duen *logos*-en iruntzia (Vernant 1996: 354). *Mythos* oso kontzeptu anitza zen, ez bakarrik jainko eta heroien legenda, baizik eta alegiak, kontu zaharrak, atsotitzak ere bai. Adibidez, legenda heroiko batean, mitikoa izango da poeta zehatz batek sinesgaitz edo asaldagarritzat jotzen duena; historialari baten kontakizunean, besteek eman fabulazio kontrolatu gabeak dira mitoak, idazleak berak zuzen egiaztatu dituen errealitateen kontrarioak; eta filosofoen lana izan daiteke diskurtso mitikoa.

Vernant-en iruzkin hauetan nabaritzen da *mythos* izateko irizpideak aldakorrak direla. Besteen kondairak dira mitoak, norberak sinesten ez dituenak (Lloyd, 1993: 45, 77), inork ez baitu 'gezur mitikotzat' jotzen bere sineste propioa. Horregatik funts barikoak dira mitoei buruzko ideia peioratiboak, gezur huts besterik ez direla iriztea. Alabaina, denak ados direnean kontakizun batek dioena sekula gertatu ez dela, orduan ez da mitorik, ipuina baizik, mitoak sinetsia izan behar baitu mito izateko.

Eta halere badirudi ipuinek mitoekin zerikusia dutela, mitoetatik datozela ipuin miresgarriak: gehiago sinetsiak ez izan arren, garai batean errituei lotuak eta erligioaren parte ziratekeen. Guretzat ezagunenak eta hedatuenak bakarrik aipatzeko, hortxe ditugu "Mari Errauskin", "Hansel eta Gretel", "Asto-Larrua", "Bizar Urdina"... Haien iraupenak salatzen du oso esangarriak direla, jendeen kondizione eta psikologiaren adierazle.

Antropologoek ez dute oraino lortu mitoen eta ipuinen arteko desberdintasunak zehazten; Dumézil-ek bere ezintasuna aitortzen zuen arlo horretan (Greimas, 1985: 21) eta Lévi-Strauss-ek dio inork ez duela biak bereizteko arazorik (1958: 232), begi bistan baita mundu osoan edozein irakurlek mitotzat hartzen duela mito bat ("l'évidence qu'un mythe est perçu comme mythe par tout lecteur dans le monde entier").

Nire ustez, hiru baldintza bederen bete behar ditu kondaira batek mitikoa izateko, zentzu hestuan: naturaz-gaineko gertakariei buruzkoa da, kolektiboki sinetsia edo sinetsi izana (baina ez baitezpada denek sinetsia) eta sakratuari dagokion sentimenduez begiratua - sentimendu bikoitzez, komunzki: atsedean eta ikara, erakarpen eta arbuio, begirune eta iseka.

Erligioaren alderdi garrantzitsuak dira mitoak: sineste eta errituak justifikatzen dituzte, transmisioa bermatzen. Askotan, gure artean, bakarrik kristianismoari ematen zaio erligio kategoria; gehiago dena, erligioa eta paganismoa antonimo gisa erabiltzen dira, bigarrena ateoak bailitza. Izatekotz, paganismoa izan da kristianismoa baino erligiosoagoa. Baina horretan sartu gabe, hemen oraintsu arte bizirik iraun duen sineste, kondaira eta errituen sistema, kristianismoarekin sinkretismoan batzuetan eta, gisa guztiz, haren ondoan luzaz bizi dena, erligio bat dela ez da dudarik; haren osakinak dira Barandiaranez geroztik "euskal mitoak" deitzen direnak. Eta badakigu XX. mende erdiraino behintzat, zahar batzuek haurrei transmititzen zizkietela, doktrina bat erakusten den bezala.

II. HURBILAK

Erligio horretan gehiago sinisterik eta praktika ez denean, nola haren mitoak izan dakizkiguke hurbilak? Funtsean, jendeak jende garenetik adimena ez zaigulako sobera aldatu, pentsaera erabiltzeko mekanika ere ez. Antzinakoek zituzten kezka nagusiak eta gureak aski antzekoak izanik, eta gogoetatzen zituzten gaiak edo arazoak aurreko jarrerak arabera, orduko sinboloak adierazgarriak dira orain ere eta mito zaharren mintzagaiek oihartzuna izaten segitzen dute, behiala bete izan dituzten funtzioak bete beharrekoak baititugu mende honetan. Nahiz eta industria-aurreko jendarte batek sortuak eta haziak izan, mitoak gure hurbilak dira, desberdinak badira ere eguneroko bizitzako elementu material batzuk edo haienganako jarrerak, hala nola uraren hornidurak pausatzen dituen zailtasunak edo ogiari ematen zaion garrantzia.

Pentsatzeko tresnak dira bereziki mitoak, eta errealitateko edozein alor dute hizpidegai: jendarteak (auzoen harremanak, sexuen banaketa, familia barneko harremanak, zapalkuntza...), ekonomia (lurraren emankortasuna, ogia, ura, manufaktura...), existentzia (eritasuna, amodioa, herioa), transzendentzia (beste mundua, hango bizitza eta bakea, deabruaren beldurra, berpizteko itxaropena...). Denei buruz adibideak asmatuko dituzte, formulazioak proposatuz, konparazioak egiten, aurkakoak alderatuz zein batuz. Kapitulu hauetan zehar askotan agertuko zaigu mitoek duten dimentsio orotarikoa: kezka izpiritualak eta materialak, indibidualak eta sozialak, mundu honetakoak eta beste mundukoak, denak azalduko dira, denetaz pentsatuko dira kondairen barnean, batzuetan modu ludikoaz, hitz edo ideia jokoaren bidez. Kontu guzti horiek a-historikoak direlako, mitologia zaharraren iharduera oraingo antropologia da, eta bere azterketan ikutzen dituen gaiak eta ibilmoldeak guretzat adigarriak dira, jende moldekoak direlako.

Erraz eta labur bilduz, esan genezake mito bat dela eragiketa logikoen sistema bat, eragiketarak metodo honek definiturik direla: "Zerean bezala da..." edo "Ez dakizu nola...?" Arazo zehatz baten aurrean, egiazko irtenbiderik ez den irtenbide batek kezka intelektuala jabaltzen du, baita hestura existentziala lasaitzen ere, baldin eta bitxikeria bat, kontraesan bat, edo asaldadura bat, errealitateko beste arloetan hobeto itxuratua den egitura baten agerkeraz azaltzen bada, arlo horiek ez dutelarik sentimendua edo pentsamendua hain bortizki inarosten (Lévi-Strauss, 1985: 227).

Mitoek izpiritua jabaltzeko duten manera hori Lévi-Straussek baino laburbilduago eta ulerterrazago azaltzeko, atsoitzei begiratzen ahal diegu. Esakunek adibide bat -ez irtenbide bat- aurkezten diote edozein egoera edo jokaera esangarriari, gauza batendako zein haren kontrarioarendako iradokitzen dute ez dela hain harriztekoa, funtsean. Haurrak gurasoen akats berdinak baldin baditu esango da: "Ahuntzaren umea beti antzume"; alderantziz baldin bada, berriz: "Ardi zurienetik jalgitzen dira axuri beltzenak". Halaber: "Goiz jaikia ez da egun-sentia" bai, baina "Argia gabe hoa lanerat, iluna gabe etxerat". Eta denak konforme. Horrelakoen ekarpena ez da egia fedezkoa eta betierekoa, baizik eta egoera kezkarri batentzako beste aurretiko bat ematea, ez dela lehenengoz gertatu adieraztea eta, horiek hola, ez dela zertan asaldatu: banalizatzeko joera dute usu erran-zaharrek, mitoek ez bezala.

Horiekin guztiekin, kalitate literarioa da kondaira mitikoen ezaugarri ezin ahantzia. Belaunaldiz belaunaldi aukeratuak izan eta, hondakinak bidean utzirik, hoberena, adierazgarriena eta zentzudunena atxiki dute batik bat, esatari bakoitzak berritasun zerbait gaineratzen badu ere. Mitoek ez ohi diote lekurik eman melengeriari, haien poesia azkarra izaten da beti. Erromantizismo merkerik ez amodioan, xamurkeriarik ez naturaren deskripzioan, kanpo gelditzen dira apainkeriak; aski da idazle batzuek egokitu bertsio “loreztatu”ekin konparatzea berehala atzemateko diferentzia. Edukinaren aldetik, sinboloek mezu barnak eta atxikikorak eskaintzen dituzte, gertaera dramatikoak zein irringarriak, hil edo biziko gauzak harrapatuz. Egiturak, berriz, paralelismo, oposizio eta inbertsioko jokoak baliatzen ditu usu, buru eragiketa horietan laketzen. Biok bereiztezinak izanda, egiturak sinboloen esanahiak azpimarratzen ditu, erredundantzia edo kontrasteen bidez, edukinak estrukturako elementuen lehengai esanguratsua ematen duelarik. Horrela, beren laburrean, harri bitxiak izaten dira kondaira mitikoak, eta gustagarriak.

III. SARBIDEAK

Mitologia gaietara hurbiltzeko sarrera anitz bada. Klasikoena, begi-bistakoena, pertsonaiei begira eta haien sailkapenari jarraitzea, hiztegiek erabiltzen duten bidea. Beste anitz eratan egin liteke: mitoek betetzen dituzten funtzioen arabera, edo gogoetatzen dituzten gaien eta ikutzen dituzten elementuen arabera. Bakoitzak mintzagai bat baino gehiago eta funtzio bat baino gehiago betetzen baititu, modu guztietan izango dira gurutzatzeak eta erredundantziak.

Hemengo aukera arbitrarioa da, adierazgarri diren alderdi batzuk hautatu ditut ardatz gisa eta kategoria desberdineko sarbideak erabili. Ekaitzegileei, lamin-jentilei eta apezai buruzko kapituluak pertsonaia mitikoen arabekoak dira; lehen biak beste mundukoak, apezak, berriz, mundu honetakoak, baina ez hargatik gutiago mitikoak, naturaz-gaineko ahalak zituzten ber. Eta irizpideek ez baitira elkartezinak, pertsonaia batzuen estakuruz funtzio zehatzak aztertu dira, hala nola harreman sozialak lamina eta jentilekin batera; eta lamina berdinak azalduko dira uraren inguruko sinbologia aztertzeko. Herioaren gainean mitoek eskaintzen dizkiguten oharpen zuzenek edo zeharkakoek ematen dute kapitulu bateko gaia. Soilik etnografiko-deskriptiboa den kapitulu bat bada, "Bidarraiko Harpeko Saindia". Beste batzuk emazteen egoerari eta irudiarri zuzenduak dira, mitologiaren eta ideologiaren arteko eraginak azaldu nahiz, eta polemikoak gerta litezke, gure inguruan maiz entzuten diren iritziekin ados ez direnean. Euskal mitologian erabili ohi diren izendatzeak eta sailkapenez ohar zenbait egiten dira "Mari, mairuak" izenburu duen kapituluan. Eta azkenengoan, beharbada galdua dugun kausa baten aldeko argudio etsituak, ez horregatik okerrak, baina bai jasangaitzak jende askorentzat: hizkera sexista eta hizkera neutroa, ahozko tradizioan gehien bat.

Gai gurutzatuak, beraz. Eta kapitulu bakoitza bere doia da ontsalaz, mintzaldia izan baita, eta kondaira edo aipamen batzuk errepikatuak izango dira, hainbat ikuspegik ekarriak. Alferrik izan ez dadin, aldi bakoitzean bertsio desberdina emana da. Abantaila ateratzen ahal da hortik, mitoen egonkortasunak eta aldaerak, bertsio antzekoak baina ez berberak, osagarriak edo alderantzizko zentzua dutenak: nork zer eta noiz kontatu, alde batera edo bestera jotzen du istorioak, eta beti ere, nork bere arranguren edo esperientzien gisara eratuko du. Erredundantziek eta diferentziek mitologiaren aniztasuna erakusten dute, haren birtualitate mugagabeak.

OHARRAK

Zitazioak. Literalak izanik ere, euskarazko grafia berdinduaz eginak dira, irakurketa errazteko. Gehienak ez dira literalak, laburtuak edo moldatuak baizik. Beste hizkuntzatik datozen zitazioak neuk euskaratuak dira.

Musika. Kapitulu gehienak *Eusko Ikaskuntzak* 1998 eta 1999an Baionako *Gure Irratian* antolatu zuen mintzaldi ziklo bateko aleak dira. Entzun izateko eginak ziren eta musikarekin batera gertuak, gai bakoitzeko hautatu zatia aditu ahal izan genuen bere unean, Maddi Etxeberri irratilariaren laguntzari esker. Finean, baliteke hitzak bezain adierazgarriak izatea doinuak, beti ere esanahiz beterik eta ideia emaile; ezin izan dut atal hori bazter utzi eta, bertsio idatzi hauetan ere, bilduma bana ageriko da hortaz, kapituluaren bukaeran.

I. kapitulua

EKAITZEGILEAK: DIBINITATE MENDITARRAK¹

Laborantza eta artzaintzatik bizi diren jendarteentzat hil ala biziko kontua da eguraldia, hark baldintzatzen baititu uztaren kantitatea eta kalitatea eta, ondorioz, narotasuna edo gosea, osasuna edo eritasuna. Ortzia mendian ardiak hiltzen ditu, etxaldeen garitzak suntsitzen edo suteak sortzen, basoak eta eraikinak haize zakarrez hondatzen; euri eztiak, ostera, lurraren emankortasuna eragiten du. Harriaren txikizioak norainokoak izan zitezkeen ikus dezakegu kronika zaharretan: 1392an Nafarroako Karlos III-ak zergak barkatu zizkion Lapurdiko Bastida herriari, izurriteak eta abazuzak egin kalteengatik bere biztanleez husten ari baitzen.

Ingurugiro horretan biziki garrantzitsuak dira meteorologia egiten duten dibinitateak, euria eta aro ederra gobernatzen baitituzte, uholdeak zein lehorreak. Euskal mitologian hainbat dira funtzio hori betetzen duten pertsonaiak, hemen aztertuko direnak: ANBOTOKO ANDEREA, SAIK eta BELEAK, HODEIA (ORTZIA), HODEI-ZALDUNA, APEZ KONDENATUA, HERENSUGEA.

Izenaz eta itxuraz desberdinak izanagatik, denak bat dira eta egestura bakar batean ulertuko dira. Horixe erakustea da lerro hauen helburua, zehazkiago esanda, nola gauzatzen den haien batasuna eta zertan igartzen ahal dugun.

I. ANBOTOKO ANDEREA

Ortzigileetatik gaur egunean ospetsuena goiandere bat da. Goi mendietan kokatzen da, urrean, eta haietatik hartzen ohi du izena: Bizkaiko eta Gipuzkoako leku askotan Anbotoko Señorea deitzen diote; Beasain aldean Murumendiko Dama. Batzuetan Mari ere erraiten diote, eta horrela izendatu du Barandiaranek bere lanetan. Nik ez dut berdin egingo: askoz maizago 'andere' izena erabiltzen baita herri tradizioan eta ildo horretan segitzeko, 'Andere' deitura baliatuko dut.

¹ Kapitulu hau hitzaldi batean oinarritua da, Eusko Ikaskuntzak, 1997ko urriaren 24 eta 25ean antolatu *Basoaren eta mendiko gizartearen antropologia*z ihardunaldietan aurkeztua. 1998an *Zainak* aldizkariko 17. alean argitaratu izan da.

Orozkon kontatzen dute Anderea Gorbeia Supelegorreko haitzuloan egoten zela zazpi urtez eta gero Anbotoko haitzulora aldatzen zela. Orduan ikusten zuten zerua zeharkatzen, gauez, azaoa langoa eta garretan, batzuetan tximisten artean. Emakume batek ikusi zuen arratsean, ira biltzen ari zirela: dena ilundu zen eta beleak bezala agertu ziren zeruan Anderearen aurretik. Esaten dutenez, hura pasatzen denean eguraldi hezea egiten du (Arana, 1996: 256) eta, batzuen iritziz, Anboton denean – urrun - uzta ona biltzen dute Gorbeia aldean (Arana, 1996: 285), edo alderantziz, txarra, besteen batzuen arabera (Barandiaran: 1984: 134).

Emakume biziki ederra zen, ile horia eta soineko luzeduna. Sai edo bele itxuraz ere agertzen da. Orozkoko berriemaile batek dioenez, Anderea ez zen egiazkoa, baizik eta sai bat: baten batzuek zuziak lotu zizkioten eta gero piztu, zeruan jendeek ikus zezaten. Beste batzuek uste dute aireplano bat edo izar bat izango zela.

Oñatin, uraren premia zutela, Arantzazuko Ama jarri zuten Anbotokoaren lekuan. Gogoratu behar da Ama Birgina Rodrigo artzainari agertu zitzaioela elorri baten gainean, eta aterpe bat eskatu ziola. Preseski, garai haietan Anderea Aloñako bere harpean entzerratu zen eta ez zuen euririk egiten, sekulako lehortea jasaten zuten oñatiarrek. Aterpetxoia egin zioten, bai, Ama Birginari eta hark, uretik babesteko teilatua ukan bezain laster, aspalditik egin gura zuen euria egin zuen (Barandiaran, 1961: 31).

II. SAIK, BELEAK ETA MURUKO DAMA

Behin, Supelegor ondoko txabolako artzainek mutiko bat bidali zuten haitzulora, atean kandela bedeinkatua piztera: kanpoan zeuden beleak (edo saiak) ezin ziren barrura sartu eta artzainei mokoka hasi zitzaizkien, txabola gaineko zohiak kentzen. Artzainek, izuturik, atzera bidali zuten mutikoa, kandela kentzen. Baina beleak berdin erasoka. Orduan konturatu ziren kandela negar bat jausi zela zorura, eta berriro ere bidali mutikoa, haizto batez ondo ken zezala kandela negar hura. Eta orduan bakea izan zuten. Bertsio batzuetan haizea eraso zitzaien kandela ezarleei.

Horrelako kondairei buruz Barandiaranek dio (1960: 82) beleak Anderearen sorgin-zerbitzariak direla. Hots, Orozkon ongi azpimarratzen dute beleek sartu ezin zirelako eraso zutela; eta Zeberioko bertsioan (Etxebarria, 1991: 390) zehazten da kandela hori hodeiagatik ezarri zutela. Bere etxean preso atxiki nahi zutela artzainek, beraz, ekaitza egitera urten ez zezan. Asmo bera zuten Gipuzkoan Muruko Dama konjuratzen zutenek (Barandiaran, 1960: 22): Itsasondoko apeza zazpi urtetarik igoten zen haren egoitza bedeinkatzaera, maiatzaren 3an, Gurutze egunean: barruan harrapatzen bazuen zazpi urte ekaitzik gabe, kanpoan bazen zazpi urtez abazuza inguru haietan... Hartsuagak azaldu du mekanismoa (1987: 73): konjurua zerrailu magikoa da eta ekaitzegileari urtetea bezala sartzea ere galarazten dio; horregatik kanpoan gelditzen bada, pausarik gabe ibiliko da bereak egiten.

Muruko Dama bezala, Supelegorreko bele eta saiak ekaitzegilea bera dirateke. Anderea bat izatea eta saiak anitz, ez da arazoa: hegazti saldoa, haize ufada bezala, zenbatezina da, eta bat. Ulergarria da haitzetan habia duten txoriek itxuratzea airean eta harpeetan dabilen pertsonaia. Metafora berdinean oinarrituak dira amerindioen ortzi-hegaztiak (Thunderbirds): han ere hodeien artean dabil belea, tximista distiratsuen gainean hegaz (Catlin: 1992, 168).

III. ABADEA ETA ZALDUNA

Oraindik ez du aspaldi Euskal Herriko elizetan “hodeiaren (ortziaren) bedeinkazioa” egiten zuela apezak udako igandeetako meza ostean, maiatzaren 3tik irailaren 14 arte, hau da Gurutzetik Gurutzerara, soroetan edo artaldeetan ekaitzak kalte egiten duen garaian. Apezak, estola jantzita, elizako atera urteten zuen, beti sakristauak edo bereterrak lagundurik, eta ur bedeinkatuaz eta hisopoaz hodeia bedeinkatzen zuen.

Errittoa aurkitzen dugu bertsiio anitz duen mito batean, Orozkotik Ezterenzubiraino kontatzen dena. Sara aldean, Atsular da ekaitza bedeinkatzen duen apeza, eta haren anaia izaten da ekaitzegilea. Biok Zugarramurdiko harpean deabruarekin ikasiak ziren eta, hartaz libratzearren, aztala (edo itzala) galdua zuen Atsularrek.

Atsularrek anaia zeukan, hura bezala Zugarramurdiko harpean ikasia, baina haren aurkakoa (deabruzkoa). Egun batez, gizon dotore bat agertu zitzaion Atsularri, Sarako ogi-soroetara so egin eta:

- Hauek bai ogi ederrak, baina nik baditiat zaldi ederrak horien suntsitzeko!
- Bai nihaurrek ere frenoak ederrak hire zaldien geldiarazteko!

Egun hartan Atsularrek giltzariari eskatu zion Larrunen hodei bat ikusten bazuen berehala abisatzeko.

Ikusi zuen bai. Bulentegiko zelaira joan zen Atsular, handik konjurtzen baitzituen ekaitzak, baina ezin zuen menperatu, ortzia gero eta azkarrago eta hurbilago. Azkenean, zangoa astindu eta zapata ihaurti zion. Oinetakoa galdu zen eta erauntsiak gibelerara egin zuen, Sarako garitzetara harririk bota gabe (Barandiaran, 1973a: 444 eta 1984: 30; moldaturik)

Elosuan Andereak ditu uztak txikitzen, deabruzko zaldunak bezalaxe (Barandiaran, 1972: 288). Uda egun batean paseoan zebilen apezak emakume eder bat topatu zuen Trukarri deitu lekuan orrazten ari zela; eskua eman zion musukatzerara, baina emakumeak ez zuen onartu eta, “laster xehatuko zituela gari guztiak” esanda, sutan urrunduz zen; Anbotoko Señorea zen, eta handik gutxira ekaitz itzela jo zuen.

Beasainen, Muruko Damaren semeak dira apeza eta zalduna:

Murugueneko semeak omen zion, inpernuko deabruarena bazan ere, neska ederra behar zuela.

Behin Muruan artzai zebilela, neska eder bat ikusi omen zuen, eserita ileak orrazten. Berarekin hizketa hasi eta elkarrekin ezkontzeko lana hartu.

Ezkondu omen ziren eta baita zazpi ume izan ere. Andra hori ez omen zen elizara joaten. Gizonak behin gurdian hartu omen zuen sokaz lotuta. Baina eliza-aurrera iritsi zirenean, andra hori su-ta-gar jarri eta sokak erreta airatu omen zan eta Muru aldera joan.

Seme bat apez egin omen zan.

Behin Senpere inguruan anaia bat agertu omen zitzaion eta esan:

- Gari ederrak! Baina zaldi galantak bazitiat nik gari horiek jaulkiko lituzkeenak.

- Bai neuk ere bridak, zaldi horiek menderatzeko -erantzun apezak.

Gero apezak bere neskari esan omen zion:

- Usabe gainean laino bat ikusten dezunean, deitu egidazu.

Gero, laino bat Usabe gainean agertu omen zan apeza konjurua egiten hasi.

Baino harri erauntsia hasi omen zuen. Orduan apezak zapatea baratzera bota omen zuen, "sartu dadila hor" esanez.

Eta erauntsi guztia baratzean erori omen zan, eta baratza dana triskatu; baino herriko galsoroak osorik geratu omen ziren (Barandiaran, 1973a: 438).

Anaiak dira zalduna eta haren aurkako apeza, eta biok deabruaren ikasleak, Saran; Anderearen semeak, Beasainen. Senitarte batean biltzen dira, beraz, ekaitzegilea eta haren etsai konjuratzailea. Esan nahi baita, *Anderea bikoitza dela, bere baitan bi printzipio (bi seme) kontrakoak biltzen baititu*; beste modu batez esanda, *ekaitza eta konjuratzailea bat dira*, anaiak direlako. Geroago ikusiko dugu nola *konjuratzailea ere bikoitza den eta nola aldi berean konjuratua (ekaitza) izan daitekeen. Coincidentia oppositorum* (aurkakoen batasuna) da haien egitura.

IV. ERROGATIBAK, MENDIKO ELIZAK

Gure mendi tontorretako ermiten ugaritasunak konjuratu beharrari erantzuten dio. Menditik etortzen baita ekaitza, han kokatzen dira ekaitzegileak eta hantxe konjuratzaileak, etsaia hurbiletik kontrolatzeko. Anitz ziren ermitauak XIX. mendean oraindio: uda mendian pasatzen zuten, inguruko herritarrek pagaturik soroak harritik babesteko, eta ekaitza zetorreanean kanpaia jo eta erritu katolikoak horretarako propio dituen otoitzak esateko. Baseliza askotan ikusten da frailearen gela, mendizaleen aterpe bilakaturik.

Nafarroan Aralar, Gipuzkoan Arantzazu, Bizkaian Urkiola eta Urduña, Baxenabarren Salbatore, eliza ezagunenak aipatzeko: guztietan Anderea edo herensugea igartzen da, edo biak. Gehienetan uda hasieran egiten ziren erromeriek helburu zehatza zuten, ortzia eta abazuza galaraztea (Veyrin, 1955: 243; Marliave, 1995).

Baxenabarreko herri batzuetan errogatibak egiten dira oraindio, Salbatore (Asentsio) aurreko hiru egunetan. Beste baseliza askotan Besta-Berriz (Corpus) edo Mendekoste astelehenean dute beila. Haietarik ezagunena Mendibe Salbatorekoa dateke, Iratin: hartan apezak airea benedikatzen du, galernatik eta beste gaitzetatik inguruak begiratzeko. Egun hartan saindu berezi bat gurtzen da, "Saindia", eta eliza aurreko etxola txiki batera ateratzen dute haren irudia. (Eta orain?)

V. EKAITZEGILEAK ETA APEZ KONJURATZAILEAK

Sarako Atsular bezalako apezak dira konjuratzaile arketipikoak, eta haiengandik zerbait daukate mendian egoten diren fraileek ere. Ekaitzegilea hobeto menperatzeko jartzen dira haren ondoan, baina hurbiltasun geografikoak beste ahaidegorik ere salatzen du, biok bat edo bederen bizkiak direlako "aurkakoen batasun"eko egituraren barnean.

Funtsean, ekaitza galarazten duenak sortu ere egin dezake, eta herritarrek ez zuten ahanzten: "Conjurar era pues la carga que más rigurosamente pesaba sobre el cura y se le criticaba si no lo hacía" dio Satrustegik (1980: 108). Frantzia ideia bera aurkitu du Sebillot-ek: konjurua egin arren harri-erauntsia bazen, apeza mehatxatzen zuten, ustez nahitara egina zuela, ez baitzuen bakarrik ekaitza desegiteko ahala baina ekartzekoa ere. Ikusi ere zituztela apezak hodeien artean hegaz eta, haiei tiro eginda, zauriturik erortzen: "En plusieurs pays, quand le ciel est noir on dit qu'il va tomber des curés; en Hainaut qu'il va tomber une averse de curés." Batzuek zehatzen zuten apez sorginak eta konjuratzaileak bat zirela eta brebiarioko formulei esker hodeietara igo eta abazuza botatzen zutela zigortu nahi zituzten jendeen soroetara. Armagnac eskualdean ba omen zen apez bat ospetsua, hogeita hamar urtez bere parrokia abazuzatik begiratu zuena: herritarrek ikusia zuten hodeiak herriaren gainean nola bereizten ziren eta auzo herriko mahastien

gainean harria botatzen. Holakoetan zapata botatzen zuten apezek airera (Sébillot, 1968a: 100-110).

Mende hasieran, Altzaiko Joanetegi apezak (Barandiaran, 1974a: 225), erauntsi gaiztoak konjuratzen zituen eta, jakin gabe, beste herri batera igortzen omen zituen; ekaitz-deabruari pagamendu zerbait eman behar baitzion, behin labana bota zion, eta airean joan zen. Egun batez, eskeko bat etxera jin zen eta, eman zioten ogia jateko, apezaren labana atera zuen; apezak galdetu zion ea uzta ona biltzen zuten herrian, eta eskekoak ezetz, aspaldi hartan harriak denak xehatzen zituela. Joanetegik ezagutu zuen herri hartara igortzen zituela erauntsiak eta hantxe askatu zuela deabruak hartua zuen labana. Eta handik aitzina ez zituen gehiago bidali.

Peña Santiagok nahitara eraginiko harri-jasaren adibidea ematen digu:

En Jacoisti (...) oímos la historia en la que se cuenta que visitando el padre Esteban de Andoain la población de Lumbier, unas cuantas personas le arrojaron piedras. A esta actitud repuso el famoso capuchino diciendo: "Piedras me tiráis, piedras tendréis". Y aquel mismo día se desencadenó una terrible tormenta de pedrisco sobre esta población navarra y sus tierras (Peña Santiago, 1989: 61).

Konjuratzailea ez ohi da inozentea. Konjuruko formulak bildu ditu Satrustegik (1980: 106), Iruozkiko erretoreak esanda bata: "Arrasa la Francia y a Italia también / A Aoiz y Iruzoki déjalos con bien"; edota Otxagabian erabilita bestea: "Fundica la Francia, Valcarlos también / Libérame Aezkoa y Muskilda también". Baxenabarreko Ahatsan bazen 1990 arte serora bat, Mailuxa Indart; ereinotza erretzen eta kanpaia jotzen konjuratzen zuen, eta mihi gaiztoek zioten Mendibera bidaltzen zuela ortzia, hangoak ez zituelako maite - berak, aldiz, esaten zuen bere txokoa baizik ez zezakeela begira. Itxuraz, kaltea ezin da deuseztatu, bakarrik desbideratu.

Orozkon, Axpuruko abadeak batzen ditu konjuratzailearen eta konjuratuaren eiteak. Familiariak dituen apez-sorgina da eta brebiario eskuetan ere ikusten dugu, bedeinkatzeko bezala: hain zuzen, liburua Supelegorren ahantzirik utzi zuen batean, saiek ezin ziren barrura sartu. Baina "Axpuruko abade kondenatua" ere bada, ehiztaria: erbi-txakurrei jarraitzearren meza utzi zuen eta kondenatua izan zen airean ibiltzera beti. Amezketan, *Mateo txistu* deitzen diote: "el paso de éste va seguido de una tempestad que dura por lo menos quince días" (Barandiaran, 1984: 174); Olaetan diote (Azkue, 1959: 368): "(Mari Urrakaren) lengusu Juaniko Txistu abadea da eta ehiztari handia".

VI. GOIANDERE ORTZIGILEAREN JATORRIA

Kondaira asko badira Andere ortzigilea nondik datorren azaltzeko. Salvatoreko Saindiarena ikusiko dugu lehenik.

Amikuze Bithiriñako Inhurri etxean bi mutil-neska sehi zeuden. Arrats batez, artoxuriketan ari zirelarik, ohartu ziren artoen hurbiltzeko behar zuten haitzurrotxa alorrean utzi zutela. Gau beltza zelakotz tresnaren xerka joateko lotsa ziren. Mutilak ispisu egin zuten:

- Bost sos eman niezaioke haitzurrotxaren bila joaten denari.

Eta betiko erran bat bada: "Gauarendako ez dela behar pariorik egin". Baina neskak:

- Bost sosengatik ni joanen nauk!

Eta abiatu zen gauari buruz. Mutilak, damuturik, biraoa jaurti zuten:

- Deabruak eraman baleza bere haitzurrotxarekin, bost sosekoa galdua dut!

Ordu berean zerbaitek -izpiritu gaixtoak- hartu zuen neska eta airean eraman; Inhurri gaineratik iragatean oihu egiten du:

- Hor duzue zuen haitzurrotxa. Ni, ene diru goseagatik, ezin ikusizko esku batek eramaten nau.

Jendeak, denak abiatu ziren neskatxari segi airean zihoala, eta Larzabaletik harat bertakoek segitu zuten Garaziko bortura buruz. Han, Salvatoreko kaperaren parean zela, oihu egin zuten neskak:

- Jondone Salvatore, salba nazazu!

Eta hantxe poliki-poliki pausatu zen; larzabaldarrek ikusi zuten. Eta hura pausatu tokian egin zuten kaperari tipi bat eta iduri bat ezarri zuten, zurezko iduri bat, neska bere haitzurrotxa eskuetan duela.

Urte oroz Salvatoreko beila egunean, Besta-Berri ondoko igandean, Bithiriñako beilariek ezkoa eta meza-saria ekartzen zituzten Saindu deitzen duten neskari eskaintzeko; hori egin ez zuten batean harri-erauntsiak xehatu omen zuten Bithiriñako uzta guztia.

Bithiriñako neska bezala, Anbotoko edo Muruko Anderea ere airean joan ziren. Hona hemen Bizkaiko kondaira bat laburturik (ikus Barandiaran 1973a: 367-407):

Orozkon diote Anbotoko Señorea lehen neskatila izan zela; beti orraztuten egoten omen zen eta amak behin, haserretuta, biraoa bota ei zion:

- Anega bat indababa gorrik aletan daukan beste urtetan ibiliko al haiz airetan, su eta gar.

Eta ordutik aurrera gelditu barik ibili behar duela diote zaharrek: Gorbeia mendiko haizpean zazpi urte eta Anbotokoan beste hainbeste egiten du, eta harpez aldatzen denean ikusten dute zeruan garretan, ihurtzuri ikaragarrien artean.

Bertsio batzuetan amaren madarikazioa da: “Mila tximistek eramango al haute!”, edo “Deabruak eramango al hau!” Geroztik ikusi dute neska Aralartik Anbotora edo Aizkorrira joaten, tximista bezala, zarata handiz eta garra dariola.

Beste kondaira tipo bat ere entzuten da, gorago aipatu Muruko Damarenaren antzekoa. Hona Orozkoko bertsioa.

Anbotoko Anderea emazte ezkondua zen eta ez zen sekula elizara joaten. Behin senarrak eroan zuen: gurdi batean lotuta sartu eta elizarantz jo zuen; baina atera heldu eta barrura baino lehen, sutan jarri zen emazte hura, estekak erre eta airean abiatu zen Anboto aldera. Geroztik han egoten zen zazpi urte eta gero Gorbealara joaten zen: zeruan pasatzen zen gauaz, garretan, soineko luzea gibeletik dingilizka zeramala eta ileak ere suaren kolorea eta mugimendua zituela.

Istorio hau aski zaharra dela badakigu, jadanik XIV. mendean Pedro de Barcellos kondeak bere *Livro dos Linhagens*-en idatzi baitzuen, Bizkaiko jaunen naturaz-gaineko etorkia azaltzeko (Barandiaran, 1984: 132). Hona hemen bilduma:

Diego Lopez de Haro jaunak ehizan zebilela emakume bat topo egin zuen haitz baten gainean eta ezkontzeko eskatu zion; emakumeak onartu zuen baldintza honekin: ez zuela Aitarena egingo haren aurrean. Emaztea biziki ederra zen salbu ahuntz zangoa zeukala. Semea, Iñigo Guerra (Ezkerra) izenekoa, eta alaba izan zituzten. Egun batez don Diego zinatu zen bazkaltzen ari zenean bere familiariekin; emazteak berehala leihotik jauzi egin zuen alabarekin, eta mendi aldera jo zuten biek. Ez zituzten gehiago ikusi.

VII. MELUSINA SUGEA

Garai berean, XIV. mendean, idatzi zuen Jean d'Arras-ek "Le Roman de Melusine" (Le Goff, 1977: 311):

Elinas, Albaniako (Eskoziako) erregeak, emakume eder bat, Presina, aurkitu zuen oihanean eta ezkontzeko eskatu zion. Emakumeak baietza eman zion baldintza honekin: ez zuela emaztea ikusiko erditze orduan. Ezkondu eta hiru alaba izan zituzten. Baina senarrak bere promesa hautsi eta emazteari begiratu zion; ondorioz Avalon uhartera alde egin zuten ama-alabek. Neskek mendi baten pean hetsi zuten aita, haren saldukeria punitzeko, eta Presinak, haserreturik alabak zigortu zituen: zaharrena, Melusina, suga bilakatuko zen larunbat guztiz, baina gizon batekin ezkontzea lortzen bazuen, bere zigorretik libratuko zen hilkor bilakatuz; aitzitik, senarrak ikusten bazuen suga itxura zuenean, berriz bere kondenara itzuliko zen.

Raimondin, Forez-eko kondearen semeak, ehizan zebilelarik, Melusina aurkitu zuen eta harekin maitemindu. Neskak ezkontzeko baldintza ezarri zion ez zuela inoiz larunbatean ikusten saiatuko; mutilak hitz eman eta ezkondu ziren. Harrezkero gora eta gora joan zen bikotearen fortuna eta hamar seme izan zituzten. Baina larunbat batez Raimondinek Melusina sorotsi zuen bainuan, baita suga itxuraz ikusi ere; handik laster, haserrealdi batean, suga faltsua ("fausse serpente") deitu zuen. Berehala suga hegalduna bilakatu zen Melusina eta leihotik joan zen, ortots eta ihurtzuriak bezala egiten. Senarrak ez zuen gehiago ikusi, nahiz eta gauz etortzen zen bere bi seme txikienak artatzera; orduan haren oihuak entzuten ziren.

Zaharragoa da "Henno Hortz-Handia"ren istorioa, Gautier Map-ek idatzia Ingalaterrako kortean 1181 eta 1193 urteen artean.

Henno-ren emaztea ez zen elizazalea, mezaren hasierari, bukaerari eta komunioari ihes egiten zien. Amaginarrebak herensuga itxuraz ikusi zuen bainuan eta, apez baten laguntzaz, ur bedeinkatua bota zion. Emaztea, sabaia zulaturik, oihu haundi batez hegaldatu eta aienatu zen.

Elizan geratzera bortxatu zuen senarrak "La Dame du Château de l'Épervier" ere (1210 aldean idatzia), eta emazte hura, sagarako hitzak entzunda, hegaldatu zen, elizako teilatua hautsita.

Lopez de Haroren, Murumendiko edo Anbotoko Anderearen kondairak tradizio berekoak dira eta haien kondaira zaharrek oraingoak ulertzen laguntzen dute. Melusinarekin legendan amaren eta alabaren bizitza berdinak dira, biak gaztetan kondenatuak eta kondena-egoerara itzuliak senarrak tabua hausten duenean. Nahiz istorioan Presina soilik kondenatzaile izan eta Melusina soilik kondenatua, pentsatzen ahal da ama eta alaba bat litezkeela, ama ere gaztetan zigortua izan zela eta gertakariak bukaera gabeko zikloan errepikatzen zirela.

Melusinaren argira begiratuta, gure bi kondaira desberdinetan azaltzen diren neska madarikatua eta emazte bortizkatua ez dira baitezpada desberdinak, baizik bakar baten bizitzako bi une. Ama madarikatzailea Presinaren antzekoa da eta senar bortitza Raimondin edo Hennoren antzekoa. Iñigo Guerraren ama edo Muruko Dama ere aitzinetik zigortuak izan zitezkeen, menturaz amak madarikatu zituen, eta senarrak beren kondenara itzularazi baino ez du egin; haien amak ere aurretik zigortuak izan zitezkeen, Presina bezala. Euskal Herrian ez ditugu bi kondenak kontakizun bakar batean bilduta, baina horrelako zerbait sumatzen da Zeanuriko bertsio batean:

Gaztetxo zala (Señorea), kobau bateko andra bategana eroaten eban bere amak. Aitak "hoa elizara" esan arren, amak elizarako egunetan beti kobaura eroaten eban. Bere nebea abade egin zan. Ez zala elizara joaten jakin ebanean, burdi baten sartu eta lotu eta elizpera eroan eban neba abadeak. Sakristeian estolatara zan artean, bere arreba gaiztoa su eta gar burdian bertan aidean joan zan. Ordura ezker hor dabil Mari Urraka (Azkue, 1959: 367).

Ama eta kobako Andrea elkarren hurbil dira, elkarren artean moldatu zuten neska; ama eta alaba ere alde berekoak; aitak eta nebak beste kondairetako senarraren funtzioa betetzen dute. Hots, ama eta alaba bat badira, eta kobako andrea eta ama ere bat badira, hiruak bat liriateke. Esan daiteke, beraz, Andereak Anderea eragiten duela, bere burua ekoizten duela. Barandiaranek "La cautiva de Mari" (1972: 426) deitu duen egituraren logika oso ongi ulertzen da horrela: Mari da Marik bahitu duena. Beti mundu honetako jendeen eta beste munduen arteko komunikazio etengabea, apez ekaitzegilearen kasuan bezala.

VIII. HERENSUGEAK

Melusinaren legendak beste modu batez ere argitzen du gure Anderearena: tximist-hotsean joan zen andre hura herensugea edo suge hegalaria zen. Eta Euskal Herrian ere baditugu herensugeak.

Herensugea erligio askotan aurkitzen da (Le Goff, 1977). Ekialde Urrunean uranikoa da gehien bat, eguzkiari lotua. Ekialde Hurbilean, uraren indar emankor eta suntsikorraren irudia zen eta euri gozoak zein uholde ikaragarriak eragiten zituen. Greziako eta Erromako mitologietan, heroi ospetsuen etsaia zen herensugea, baina aldi berean jainko ernaltzailearen itxura ere: Apolo-sugea omen zen Augustoren aita; sugeak ziren Juno Lanuvium-aren piztia sakratuak, eta haien harpeetara joaten ziren neskak udaberrian opilak eskaintzen, uzta ona erdiesteko gero. Europako Erdi Aroko tradizioan urari lotua da herensugea, eta bikoitza da: lurpekoa eta airekoa, ona eta txarra. Eta Elizaren manikeismoa gaudituz, errogatibetako prozesioetan ateratzen zuten: Pariskoak aho zabala zuen eta hara botatzen zizkioten jendeek fruituak eta opilak, erromatarrek Junori bezalaxe, emaitza propiziatorioa gisa. Euskal Herrian ere atera izan dute herensugea Tolosan, 1668ko Corpus eguneko prozesioan (Etchehandy, 1989: 11).

Euskal Herriko Herensuge ospetsuenak Altzaikoa, Larrungoa eta Aralarko lirateke. Lehena Cerquand-ek aipatu du (1986: 94-97). Zuberoako Altzai Azalegiko karbian bizi zen, Ahüzkiko iturritik ez urrun, eta inguruko kabalak irensten zituen, kalte handiak eginez. Altzai Athagiko zaldun beldurgabeak akabatu zuen behi larru bat bolboraz betea jatera emanez: munstroak irentsi zuen, sua hartu eta “lotsagarriko zaphartu bat” eginda, “airean hegaleki phartitzen, sü zirriztaz bazterrak oro bethatzen ditilarik; büztanaz egoitzen dü bago oihan gazte bat oso-osea lurrera, eta gidatzen da Baiunako itsasoalat hurez asetzera, nondik landa zapartatü izan baitzen”. Athagiko zalduna, ordea, handik gutxira hil zen, “herensugearen huxtüak (xixtuak) eta herotzak (harrabotsak) odola hur bilha arazirik”.

Lapurdiko herensugea Larrun mendian egoten zen, urte bakoitzean buru bana hazten zitzaion:

Eta zazpi buru formatzearekin altxatu omen zen egun batez goizalderat, sutan, zazpi buruetan argia zuela, eta itsaso barnean sartu omen zen. Batzuek erraten dute apez batek madarikazionea egin omen ziola eta handik kasatu omen zuela itsasgorrietara (Barandiaran, 1973b: 416).

Goñiko zaldunaren istorioarekin batera da ezaguna Aralarko herensugea (Barandiaran, 1960: 31 eta 1961: 76). Jondone Mikelen elizaren gaineko leizean zuen egoitza eta egunero jaten zuen Huarteko jende bat. Goñiko Teodosiok aurre egin nahi izan zion baina, munstroa heldu zitzaionean, Jondone Mikeli hel egin zion, eta aingeruak zuen bere ezpataz sugea kalitu.

Kalituz geroztik ere izan da Aralarko herensugearen berri. Satrustegik jakin duenez (1980: 116), gizon batek 1960an ikusi zuen gauetz, suzko bola bat bezala ateratzen Balerdi mendiko Sugarzulotik. Bedaioko behizain batek 1992an kontatu dio Garmendia Larrañagari (1994: 83) nola

ikusi zuen Balerdiko Sugarra bere gordelekutik irteten eta, haren buru gainean pasa ondoren, Lizartzako leizeta aldera ezkutatzen: sugarrak suzko barra bat utzi omen zuen atera zen lekutik aienatu zen lekura arte.

IX. ANDEREA ETA HERENSUGEA

Aralarko herensugeak eta Andereak egoitza eta ibilbide berdinak dituzte. Satrustegik dioenez (1980: 116), Burundan Luzifer deitzen diote Mariri, uzta baldintzatzen duten udako euri eta ekaitzekin lotua den genioari; negua Urbasan pasa eta, udaberrian Aralarrera aldatzen da, eta udako gau sargorietan ikusten dute sutan, zerua zeharkatzen. Berdin herensugea:

El dragón vasco mora en cuevas subterráneas. En ciertas tradiciones marginales figura el traslado meteórico desde su morada de invierno (ctónica) a la estancia veraniega sobre las cimas más altas (Aralar) (Satrustegi, 1980: 121).

Ataunen diotenez, Agamundan eta Balerdi mendiko haizpeetan bizi da herensugea, eta zerua zeharkatzen du suzko igitai itxuraz; haren pasatzea ekaitzaren seinalea da. Amezketan Txindokiko Dama ikusi zuten bere zulotik urten eta Aralarko San Migel aldera ezkutatzen (Barandiaran, 1973a: 378 eta 409). Azkoitian (Barandiaran, 1984: 189), Maju izena ematen diote herensugeari eta Mariren senartzat daukate: harekin batzen denean ekaitz ikaragarriak sortzen dira.

Anboto inguruan ez da herensugearen berri, baina Urkiolako San Antonek Jondone Mikel sauroktonoaren tankera du, makila altxaturik, ezpata bailitzan, oinpean duen herensugea kalitzeko prest. Hots, San Anton baketsuak inon ez ohi du horrelako itxura, eta inork ez omen du ulertu zergatik Urkiolan hain erasotzaile azaltzen den (Legarza 1986: 60). Baina igar daiteke santuak, laborantza zaintzeko, ekaitzari aurre egin behar diola. Urkiolako santutegia ekaitzari lotua da esplizituki, bertan dagoen “tximistarri”ak errituetan duen garrantziak erakusten duenez. Eta nor izan liteke inguru haietako tximistegilea, Anbotoko Anderea ez bada? Anderea dateke Anton heroi-santuak menperatu behar duen herensugea.

Mendibe Salbatoreko elizan ere, Saindiaren aurre-aurrean Jondone Mikelen irudia egoten zen, lapurtua izan arte: neska elizakotuak herensuge ortzigilearengandik zerbait atxiki izan balu ere, goiaingerua beti erne...

Orozkoar batek esandakoaren arabera, elkarren hurbil dira Anderea eta herensugea: Urduñako Antiguako Ama Birginaren inguruan zuen Andereak bere egoitza, eta handik Anbotorantza joaten zenean ikusten zuten zeruan (Arana 1996: 277). Eta Antiguan herensugea bizi zela entzun dio Barandiaranek urduñar bati, baita Delmas-en 1864ko *Guía*-n irakurri:

Cercano a la ermita (de la Antigua), (...) un monstruo causaba espantosos estragos en los habitantes de la comarca. Era una serpiente enorme (...) que al incauto o atrevido caminante que atravesaba la senda, muchas veces saltaba desde la áspera maleza, devorándolos sin piedad. (...) Pero Dios o quizá su piadosa Madre (...) quiso un día poner fin a tantos horrores. (*Haur bat egurretara joan zen igitaia edo haizkora eskuetan. Sugea agertu zitzaion*) despidiendo dardos por la boca y vomitando fuego por las narices. El tierno niño sobrecogido de espanto, dirigió la vista a la ermita de la Antigua y recogiendo todo su infantil valor y pronunciando fervoroso las palabras “Virgen de la Antigua, salvadme”, asestó maquinalmente tan tremendo golpe sobre el espantoso reptil que le cortó la cabeza.

(*Jendeak etorri eta haurra ikusi zuten laino baten ginean, esku batean arma eta bestean sugearen burua, gorputzetik odol ibaia sortzen zela. Ospe handian eramán zuten Antiguako elizara, bizkar hezurra atera zioten eta Birginaren kamerinoan ezarri zuten; mendeetan egon da han, orain guti arte*) (Barandiaran, 1973b: 432-434).

Artikulu bereko beste bertsio batean, aingerua izan zen Urduñako sugearen kalitzailea, Aralarren bezala.

Sai itxuradun anderea eta (heren)sugea gauza beraren alderdiak dira. Nola batzen ahal diren airekoa eta lurpekoa irudi ilustre batzuek adierazten digute, hala nola Mexikoko armarría bilakatu den azteken enblema, hatzaparretan sugea daukan arranoak. Aro garaikidean sinboloa ez dela batere fosilizatua erakusten digu Shelley-k, ekaitzaren erdian ikusten dituen arranoa eta sugea borrokan uztartuak (“... a monstrous sight! / An Eagle and a Serpent wreathed in fight”) *The Revolt of Islam* bere poemán; halaber *Alastor*-en, beti itsas-ekaitza irudikatzeke:

The waves arose. Higher and higher still

Their fierce necks writhed beneath the tempest's scourge

Like serpents struggling in a vulture's grasp.

Anderea eta herensugeak ez dira bakarrik antzekoak beren funtzio, itxura eta ohiturengatik, batasun bat osatzen dute.

X. ANDROGINIA

Anderearen eta herensugearen sexu desberdinak ez du haien batasuna oztopatzen. Anderea femininoa da, bistan da, eta Euskal Herriko herensugea ez da markatua gehienetan, edo bestela maskulinoa izaten da; horrela da XV. mendeko legenda melusiniar batean. Hartan esaten denez, Bizkaiko jaunek Lopez de Haroren emaztearen moduko arbaso miresgarria zuten, baina maskulinoa:

García de Salazar cuenta en dicha obra (*Crónica de siete casas de Vizcaya y Castilla*, 1459) que una hija del rey de Escocia llegó a Mundaca (...) que durmió con ella en sueños un diablo que llaman en Bizcaya Culebro, Señor de la casa y que (...) la infanta fue preñada y parió un hijo, que fue ome mucho hermoso y de buen cuerpo y llamáronle Zuria (Barandiaran, 1984: 131).

Baltzolako herensugea ere maskulinoa da. Melusina, aldiz, herensuge femininoa, eta Anbotoko Anderea herensugearen aldaera. Nola trenkatu? Barandiaranek arazoari irtenbide bat iradoki dio, baina ez du bururaino eroan: herensugea Anderearen senarra litzateke. Hots, paredroen bikotea edo hierogamia androgenia irudikapenak dira. Ekaitzegilearen bikoiztasuna maila aniztatan agertu da: lurpekoa eta airekoa, ongilea eta kaltegilea, ama eta alaba, konjuratua eta konjuratzailea... Berezkoa da feminino eta maskulino izatea, aurkarien batasuna sexuan ere gauzatzea: herensugearen sexu maskulinoak ez du Anderearekiko berdintasuna galarazten.

Melusina, bere aldetik, androgenoa da (Markale, 1983: 15): Rabelais-ek, bere *Quart Livre*-ko 38. kapituluan dio "que Melusine, leur première fondatrice (de Lusignan), avoit corps foeminin jusques aux boursavitz (testicules), et que le reste en bas estoit andouille serpentine, ou bien serpent andouillique."

Mitologia dibinitate androginoz betea da. Ekaitzegileen eremuan, adibidez, Jupiter eta Juno edo Janus eta Diana bikoteak bikoizte hutsak dira Frazer-en ustez (1981: 474), bikote bakoitzaren terminoak identikoak baitira, bai funtzioaz, bai jatorriz eta bai etimologiaz: lau izenetan bada 'di' erro arioa. Dibinitatearen androginiak zentzua badu, Eliade-ren iritziz:

Tous les attributs coexistant dans la divinité, on doit s'y attendre à y voir coïncider pareillement, sous une forme plus ou moins manifeste, les deux sexes. L'androgynie divine n'est pas autre chose qu'une formule archaïque de la bi-unité divine. (...) L'intention vraie de la formule est d'exprimer -en termes biologiques- la coexistence des contraires, des principes cosmologiques (mâle et femelle, bon, méchant), au sein de la divinité. (...)

La bisexualité divine est un phénomène extrêmement répandu dans les religions et, - trait qui vaut la peine d'être souligné - sont androgynes jusqu'aux divinités masculines ou féminines par excellence. (Eliade, 1975 : 352).

XI. ERREFLEXIBITATEA ETA AURKAKOEN BATASUNA

Konjuratua eta konjuratzailea bat diren bezala, herensugeak eta haren kalitzaileak rol trukagarriak dituzte, berdinak izateraino. Cadmus, Tebaiko herensugearen garailea, herensuge bilakatu zen bere bizitzaren azkenean (Ovidio, *Met.*: 89 eta 127, Frazer, 1983a: 71). Eta ez da salbuespen bat: Apolok Python sugea hil zuela gauza jakina da, baina alderantzizkoa ere bada:

Selon une tradition, Apollon lui-même était enterré à Delphes ; Pythagore, dit-on, grave sur sa tombe une inscription qui relatait comment le dieu avait été tué par le python et enterré sous le trépied (Frazer, 1983a : 24).

“Mariren gatibu” tipoko kondairetan Andereak bere burua ekoizten duela ikusi dugu; eta herensugearen bitartez sumatzen dugu ekaitzegileak bere burua deuseztatzen duela, konjuratuaren eta konjuratzailearen berdintasuna erreflexibitatea dela. Herensugea sua izanik, suak akabatzen du (Altzain) eta sutan joaten da bere azken egoitzara, itsasora (Lapurdin). Frazer-ek aipaturiko Cadmus-en kasua Errusiako herensugeari alderatzen dio Propp-ek, konklusio hau ateratzeko:

Est-ce que ce n'est pas son double que craint, lui aussi, le dragon du conte ? Pour répondre à cette question nous examinerons les cas où le dragon est mis à mort par le dragon (Propp, 1983 : 364).

On peut trouver le cas d'un conte où le dragon ne peut périr que de ses propres coups. (...) “(Le dragon) était si terrible que lui seul pouvait se donner la mort, aucune autre force que lui-même ne pouvait venir à bout de lui”. (...) Le dragon, donc, se suicide : “Il enfonça ses griffes dans sa poitrine avec une telle force qu'il se déchira en deux, tomba sur la terre avec un hurlement et périt”. (...) Le dragon est un ennemi tel qu'il ne peut y avoir en autre, assumant le rôle héroïque de vainqueur du dragon, comme cela existe encore en Égypte (Propp, 1983 : 367-368).

Suizidioa aski gai errekurrentea da mitologian eta herensugearena ez da salbuespen bat. Baina erreflexibitatearen adierazpena dela interesatzen zaigu hemen, oposatuen batasunaren alde bat. Ondorioa hau da: gure mitologiako ekaitzegileak eta konjuratzaileak egitura bakar batean bil daitezkeela, haien itxura eta izena desberdinak izanagatik. Herensugea, Andere madarikatua, haren ama madarikatzailea, haren senarra Sugar, bi seme kontrajarriak (Atsular edo Atarrabio eta Mikelats tipokoak) edo ekaitz-zalduna eta abadea, ezin ditugu elkarrengandik bereiztu, batasun gisa ulertzekoak dira.

XII. EKAITZEGILEEN ERRITUAK

Hodeiaren bedeinkazioa bizirik mantendu da oraintsu arte, baina ez dugu hartan aurkitzen Anderearen edo herensugearen aipamenik. Aldiz Donibaneko suekin duten lotura aski argia da. Orozkon suzko azauondoa lango ikusten zuten Anderea zerua zeharkatzen; eta batzuen ustez zuziak lotuta zeramatzan sai bat izan zitekeen. Orozkon berean, eta ez han bakarrik, Donibane bezperako gauean, soroetara joaten ziren jendeak gurutzeak jartzera, eskuan lastozko pollak (galburu gabeko azaoak) pizturik zeramatzatela, zuziak legez: firrindaka eta txirrinkak eginez erabiltzen zituzten ilinti horiek, txinpartak ateratzeko moduan. Egin dutenok oroit dira zein eder eta hunkigarria zen su horiek ikustea udako gauaren ilunpean dir-dir ibiltzen.

Erritoak mitoa antzezten zuen nonbait - edo alderantziz: Andereak zeruan duen itxurakoak dira lurreko su ibiltariak (pollak eta azaoak berdinak baitira): beheko suak, beraz, goikoari egokitzen zaizkio – edo alderantziz. Donibaneko suen helburu aitortua uzta ona lortzea zen: “Sugeak erre, artoa eta garia kaxan gorde” kantatzen zuten kopletan, eta oraingo berriemaileek baieztatzen dute erritua egin eta: “etzera pozik, a ver kosetxa ona egiten bada!”; edo: “aquellos indicaba que vas a hacer una buena cosecha, y pedrisco y el otro y tal y cual”.

Ekaitzik aipatzen ez denean ere, badirudi sua izan dela su itxura duen dibinitate bati eragiteko bidea. Hala zen Lapurdiko herensugearen kasuan. Urruñan kontatu didate bertako zahar batek zeruan herensugea ikusten zuelarik, haren beldurrez, su bat pizten zuela. Bavierako Würzburg hirian zuziak eta su-gurpilak ziren protagonistak Donibaneko jokoetan:

Au XVIe siècle, on lançait des disques de bois enflammés depuis la montagne qui domine la ville. (...) Dans l'obscurité ces disques volants prenaient l'aspect de dragons en feu (Frazer, 1984 : 96).

Zein ote zen Urruñeko edo Bavierako suen xedea, herensugea homeopatiuz uxatzea ala mimetismoz gogatzeta? Donibane bezperan aldarrikatzen ziren leloetan sugeak erretzeko asmoa ageri da baina, sua arma erasotzailea dela aiantzi gabe, ezin da baztertu garrak piztea zeruko sua gurtzeko erritua ere badatekeela. Dena dela, bi metodoak elkarrekin ibil daitezke – hizketan menturaz.

XIII. ANDEREA, ZERUKO DIBINITATEA

Aimery Picaud-ek, XII. mendean idatzi zuen *Guide du pèlerin* liburuan, euskal lexiko bat utzi zigun, hartan jakinaraziz euskaldunek jainkoari “Urcia” deitzen ziotela (“Deum vocant Urcia”). Izen horrek tinta asko isurarazi du, askotan haren egiatasuna ukatzeko. Batzuek diote jainkoaren izena galdegin nahiz, zerua seinalatu zuela Picaud-ek hatzamarraz, eta euskaldunek, jestuari erantzunez, “ortzia” (zerua) erantzungo zioteten. Kontua da, Michelenak ohartarazten duen bezala (1964: 51), beste euskal hitzak ongi ulertu bazituen Picaud-ek, zergatik herratuko zukeen horretan? Orreagaren gainean Ortzanzurieta mendia dugu, XIII. mendeko dokumentu batean “Orçiren çorita” izena daramana (Michelena, 1964: 38). Nafarroako Anboto ote zen mendi hura?

Barandiaranek berak (1984: 168) onartzen du Urtz, Ortz edo Ost hori zeruaren eta ekaitzaren pertsonifikazio gisa gurtu zuketela euskaldunek, “osteguna” ere opa baitzioten, erromatarrek Jupiterri “Jovis diem” opa zioten bezalaxe. Halere, antropologoak ondorioztatzen du: “Es posible que Picaud interpretara mal en este caso lo que le contaron los vascos y que *urcia* no tuviera ya el significado que aquél le atribuyó”

Ulergaitza da gure hizkuntzalari eta antropologo zenbaiten herabetasuna edo, nahiago bada, begibistan dagoena ukatzeko ausardia. Alde batetik, “ortzi” hitzak Azkueren hiztegian dituen lehen eta bigarren esanahiak “trueno” eta “nube atronadora” dira. Bestetik, ortzia egitea da Euskal Herriko pertsonaia mitiko garrantzitsuen eginkizuna. Eta halere harritzen dira XII. mendeko dibinitate nagusiari Urcia izena eman izanaz.

Bitartean, Anderea batez ere ortzigile eta eurigilea dela kontuan hartu gabe, “Lurraren jainkosa” aldarrikatua da eta, hamaika ekaitza egiten aurkeztu ondoren, konklusioa hau da:

Esta Mari provoca tempestades y es representada como una mujer de belleza extraordinaria, que cruza por los aires rodeada de fuego. Sus moradas dentro de las cavernas están llenas de oro y de piedras preciosas. (...) Las tradiciones que corren en torno a ella nos hacen pensar en una divinidad ctónica, del tipo de Proserpina (Caro Baroja 1966: 293).

Atendiendo a algunos de sus atributos (dominio de las fuerzas terrestres y de los genios subterráneos, su identificación con diversos fenómenos telúricos o con los que se suponen que proceden de las entrañas de la tierra), lo consideramos como símbolo -quizás personificación- de la Tierra (Barandiaran, 1984: 139).

Hartsuagak (1984: 49), Anderearen airekotasunari garrantzi sobera eman gabe, iritzi bera adierazten du. Handik aurrera etengabeki entzun behar dugu “Mari gure Amalurra” eta antzeko melengeriak. Ama baldin bada, “ama-ortzia” deitu behar genioke.

Andereak alde ktonikoa ere baduela ezin da ukatu, bere zuloaren atetan agertzen da; baina goi mendietan dauzka zuloak, zeruari ahalik eta hurbilen eta, laminek ez bezala, airean betetzen

ditu bere funtzio ospetsuenak: Eskoriatzan esaten dute zeruan (paradisuan) eta lurrean onartu ez zutelako, airean edo goi mendietako zuloetan dabilela.

Anboto (eta Muru eta Txindoki...), beraz, euskal Olinpoa da eta, mitologia klasikoan Anderearen kideak bilatzekotan, Zeus-Jupiter dateke haren hurbilena, Proserpina baino areago. Ikus ditzagun haren ezaugarri zenbait, Eliade-ren arabera:

Les titres de Zeus sont transparents et témoignent tous plus ou moins directement de ses rapports avec la tempête, la pluie, la fertilité. C'est ainsi qu'on l'appelle Ombrios, et Hyettios (pluvieux), Urios (celui qui envoie les vents favorables), Astrapios (qui foudroie), Bronton (celui qui tonne), etc. On l'appelle Georgos (fermier) et Chtonios (cf. Hésiode, *Les travaux et les jours*) parce qu'il commande la pluie et assure la fertilité des champs.

(...)

Le Jupiter italique, comme Zeus, était adoré sur les hauteurs. La montagne cumule un symbolisme multiple : elle est "haute", est plus proche du ciel, c'est le ciel où s'assemblent les nuages et où se déclenche le tonnerre (Eliade, 1975 : 76-77).

Zerutasunak ez dio inondik ere Zeusi galarazten bere alde ktonikoa. Jainkoen aita Kretako Dikte mendiko harpean sortu zen eta gaztaroa bertako Idako haitzuloan pasatu zuen. Anatoliako Zilizian ere badu lurpeko zulo bat, Tyfon sugearen egoitzatik ez urrun (Frazer 1983a: 290-92). Preseski, suge itxurako Zeus bat garraiatzen zuten helenoek beren migrazioetan (Eliade, 1975: 77).

Gure Anderea ez da Zeus baino ktonikoagoa eta, harek legez, euriaren bidez gobernatzen du lurraren emankortasuna. Baina mitologia klasikoaren eraginagatik edo, itxura bizardun maskulinoa bilatzen dugu ortzia manatzen duen dibinitatea irudikatzeko: bitxi egiten zaigu komunzki giza-sinbologia² duen arloa (goia, zerua) andere batek okupatzea, emakumeari behea eta lurra lotu ohi zaizkiolarik. Arazoa da ez dakigula XII. mendeko *Urcia* nola irudikatua zen. Eta anderea izan balitz? Baina gure arbasoek "Aita gurea zeruan zaudena" orde "Ama gurea zeruan zabiltzana" otoitz egin zezaketela pentsatzea, iraultza mental handiegia da...

Amaitzeko, berriz azpimarratuko dira Euskal Herriko mitologiaren ekaitzegileen bi alderdi. Alegian, antzekoak eta elkarrekin lotuak ez ezik, bilduak ere direla egitura bakar batean, aurkakoen batasunean (*coincidentia oppositorum*); eta bat izate hori metaforaz adierazia dela (hegazi-sugeez, hierogamiaz, anaiagoaz, erreflexibitateaz...). Egitura horren bidez ulertzen ahal dira meteorologia kontrolatzeko ortziaren dibinitateen inguruan egin diren errituak eta haien egoitzen ondoan ezarri diren mendiko elizak; ahantzi gabe konjurtzaileak -apezak- eta konjurtuak batzuetan batuak direla. Airean zuten apezek bedeinkatzen, aireko izakiei zuzendua baitzen erritua, eta mendira jotzen zuten, Anderea bere haitzuloan ixteko asmoan, airekoa lurpean atxikitzeko xedean.

² 'Giza' eta 'gizon' sinonimotzat dauzkate, genero maskulinokoak. Arrazoina azken kapituluaz azaldua da.

II. kapitulua

HERIOAREN IKUSPEGIAK³

Ezaguera eta senarekin batera, geure heriotzaren kontzientzia hartzen dugu jendeek, eta haren segurtamena da beste animalietatik bereizten gaituen elementu bat. Hartatik dator, neurri handi batez, herioaren ideia hobeto eramatera laguntzen duten sinboloak eratzeko beharra.

Funtzio eztingarri hori betetzeko mitologiak sinboloen mintzaira erabiltzen du, besteak beste. Errealitatearen edozein arlotako gaiak erabiltzen ditu, are gehiago gure hestura handienen iturburua: heriotzaren aurrean gogoetak, galderak eta erantzunak egiten ditu, alde guztiei eta alde guztietatik begiratzuz.

Norberaren kezka existentziala da; baina soziala ere bai, uste gabeko heriotza auzoko sorginek ekarria dela susmatzen denean; eta kezka izpirituala, beste munduko bizitzaz eta hilaren geroaz pentsatzera eramaten duenean.

I. ERRITUAK ETA MITOAK

Tradizioak zabal eta zehatz aholkatzen du zer eta nola jokatu behar den heriotzunean, zein diren bete beharreko errituak, hilak zelan eta zertarako agertzen diren, zer egin hurbiltzen direnean eta nola lagundu beste munduan bakea erdiets dezaten eta, horrela, biziei ere bake eman diezaieten. Asmo didaktiko nabaria dute horietaz mintzo diren mitoek eta haien zerrenda luzea askotan aurkeztua izan da Euskal Herrian.

Hemen ez ditut holakoak azalduko, baizik eta mitoek nola begiratzen dioten herioari, haietako protagonista baten hiltzearen kari zer sentimendu eta gogoeta eskaintzen dizkiguten. *Bihotzean min dut* Lizardiren poema hartuko dut kontrapuntu gisa, Valverde ezarri dion doinuarekin batera, ez nezake-eta bata bestetik bereiz, hainbestearaino mintzatzen eta harrapatzen baikaitu musikak. Lizardik pertsonalki senditua bezala erakusten digu herioaren zauria, norberaren mina, hurbileko tristezia, poetak bizi izan duen zerbait gisa, erromantiko moduan. Halere, poetaren “hots-hots, bizion oinok” lelo errekkurrentean, musikak ere azpimarraturik, nago ez ote zaigun azaltzen mundu honetan geratu direnen kulpabilizazioa, nahigabe arkaikoa bezain iraunkorra, beldurraren eta erritu apotropaikoen oinarrian dena.

³ Mintzaldia *Gure Irratian*, 1998ko urriaren 14an.

Esperientzia indibiduala baino areago alderdi kolektiboak azaltzen dituzte mitoek: sinboloen saretik eralgirik eta belaunaldietan barna lauspeaturik, ekoizkin ondua eta iragazia eskaintzen dute; ez hargatik eguneroko bizitzatik moztua edo hunkidura gabea. Eta beti ere ikuspegi desberdinetik begiratuko diote mitoek herioari, haren ertz anitzak hartuz, alde eta kontra nabarmenduz: herioa zerk edo nork eragiten duen, nola den bizitzaren atal bat, noiz aurpegi gorrotagarria duen eta noiz den desiratua.

II. HERIOA NORK EDO ZERK EKARRI

“Belea herioa bezain beltz dela erraiten baitute. Ez sekula” esaten da (Azkue, 1966: 415), herioa beltzagoa da, beti latza eta ikaragarria, bizia “ontasun preziatuena” dela errepikatzen zaigu gero eta usuago orain.

Gauza naturala da herioa, ontsalaz. Baina min handia ematen duten nahigabeei zentzua edo zergatia bilatu nahi zaie, osterantzean alferrikako eta ulertezin gertatzen baitira, eta jasateko zailagoak. Gaitzari zentzu emateko modu bat norbaitek egina dela pentsatzea da, etsai batek igorria, bereziki ustekabeen datorrenean edo etxe berean errekkurren denean. Etsai hori hurbil kokatzen da, auzoan berean maiz, eta hura da sorgina. Herioa beste norbaitek sorginkeriaz eragin dezakeen sinestea mundu osoan bada, edo izan da, eta haren bidez norberaren arazoari neurri handiagoa ematen zaio; dimentsio soziala alde batetik, auzoen arteko gorrotoan eta liskarretan duelako iturria; eta, bestetik, naturaz-gaineko dimentsioa, magiaz eragina delako, ez delako zerbait arrunta, berezkoa edo naturala; bidenabar, herioaren aurrean sentitzen den kulpabilizazioa beste batengan proiektatzen da. Horrelako joera orain ere atzematen dugu gure artean, beste modu batez gauzatua: elur jauzi batek eskiatzaileak eramaten dituenen, begiraleak edo eguraldiaren igarleak jartzen dira auzitan. Beti ere hobenduna bilatu nahiz, HIES eritasuna CIA-ren arma biologikoetatik zetorkeela entzun izan da luzez; orobat, 1999ko udan, New York-en gertatu zen Niloko entzefalitis izurritea Saddam Husseinek eragina ez ote zen galdetzen zuen bertako aldizkari batek. Sorginek hauts kutsagarriak zabaltzen zituzten ustea sinesgarria zen antzina; orain birusak zabal litezkeela badakigu, eta errazago zaigu horietan sinestea.

Sorginen izateak esplikatzeko zuten zergatik, errituak ondo egin eta debekuak errespetatu arren, jotzen zuten gaitzak; baina erantzule edo erruduna kontrolpean ezartzen ahal zen ber, gaitza ere kontrolatzen ahal zen. Eta, zorionez, begikotik babesteko erremedioak baziren: konjurua bazen sorgin gaiztoen kontra, baziren sorgingoa kentzen zuten osatzaileak, oreka hautsia berriz konpontzen zutena, eta jendeak lasaitzen ziren. Defentsa horiek efikazak izaten ziren beren sistemaren logikaren barnean; eta, txarrean, huts egiten bazuten eta gaitzak beti irauten, izuak gaina hartzen zuenean, noizbehinka ustezko sorginaren lintxamendua gerta zitekeen (Munchembled, 1987: 154), baina ez pertsekuzio sistematikoa, De Lancre batek edo Inkisizioak egin zuten modukoa.

Herioa ekar zezaketen sorginak gorrotatuak izan dira, herioa bera bezala. Azken denbora honetan askotan esan da jatorrizko tradizioan sorginak ez zirela gaiztoak, kristianismoak eta Elizak deabrutu dituztela. Ikusmolde hori oso bukolikoa da. Sorgin gaiztoen beldurra egiazkoa izan da, nahiz baziren ongiletzat hartzen zirenak, besteek egin mina sendatzen zutenak.

III. HERIOA EUFEMIZATUA

Sorginek eraginda zein naturak edo Jainkoak eraginda, jendeentzat herioak duen irudi latza eufemizaturik agertzen da usu, eta orduan goxaturik edo leundurik azaltzen da, sinbolo bizigarrien ondoan, kontsolagarri nonbait. Hona, adibidetzat, Bizkaiko kondaira bat, *Laminaren amorantea*:

Mutil artzain batek mendian ezagutu euan neska eder-ederra, eta elkarregaz ezkondu behar eudiela. Esaten eutsien mutilari, hain ederra izateko, ez zala giristinoa neska hura, eta amak apezarengana jo euan aholku bila. Hark esan eutsen oinei begira egion -garai hartan gona luzeak eta-, lamina bazan, guk legez azkazalak izan barik, oilo erpeak izango euazala. Begiratu eutsen mutilak, baita ikusi bere oilo oinak. Etxera joan zan, ohean sartu eta ez zan gehiago jagi, tristuraz hil zan.

Haren etxean hilbegiran bildu ziran auzoak, eta hara non sartu zan neska ederra, giltza zulotik, itxura: intxaur azal batetik estalgi pitxi bat atera eta hartaz estali euan bere amorantearen gorpua. Emakume batzuek eskuratu gura eudien oihal baliotsu hura, eta orratzez josi eudien ohera. Baina gorpua ehorzketara erodateko hilkutxan sartu eudienean, neskak bere estalgia eraitsi euan, berriz intxaur kuskuan sartu eta joan zan, etorri zan legez (Arana, 1996: 244, moldatua).

Gazte baten heriotza gertakari latza da, baina maiteminez gertatzen denean, eros eta thanatos bikoteak prestigio poetikoa ematen dio, bere ikaragarritasunetik zerbait kentzen dio, sinboloak eufemizazioa bideratzen du. Izan ere, uztartuak ibiltzen dira amodioa eta herioa literaturako kondaira ederrenetan, eta nola ez aipa *Tristan eta Isolde*, are eta gehiago tradizio mitikoan sustraitua baita, amoranteen heriotza delarik eleberriaren mamia.

Beste sinbolo esangarri bat ere bada artzain eta laminaren edestian: gorpuaren estaltzea. Oihal batean bildua dena amnios-en bildua bezala dago, matrizaren barnean nolabait, berriz sortzeko menturan. Estalkia intxaurraren barnean ekarria denean, irudimenarentzat hartan ere sartua dago gorpua, matriuska baten legez, eta bikoiztua da irudi intimista, errekurrentea, kuskua arrautza iradokitzen baitu, bere barnean zerbait bizirik atxikitzen duelako: horrek ere berriz jaiotzeko itxaropena areagotzen du.

Ideia bera adierazten du lurpeak, jentilen kondaira batzuetan aurkitzen duguna. Gizon handiak ziren jentilak, mairuen antzekoak, eta nola suntsituak izan ziren edesten dute maiz Euskal Herriko kondairek. Askotan, lehen lainoa edo euria ikusi eta beren zuloaren barne-barnean sartu zirela esaten da, eta geroztik ez direla gehiago ageri izan (Barandiaran, 1984: 103). Beste batzuek

diote neskak bahitzen ibiltzen zirela eta herri osoa ikaran zeukatela. Orozkon, mendira joan zen neska bat hartu zuten jentil horiek eta mendi tontorreko beren gazteluan atxiki zutela, burdinazko ateak ipinita; neskaren nebak burdinazko palankak harturik joan ziren, ateak hautsi zituzten eta arreba salbatu. Berriemaile batek zehazten du jentilak beren gazteluko hormen itzalpean etzanaldian -lokuluxkan- zeudenean eraso zitzaizkiela mutilak eta, baserritarrak baitziren, laiak bezala erabili zituztela palankak eta gazteluko harresia jentilen gainean bota (Arana, 1996: 254, ikus "Auzo harremanak" kapitulua).

Jentilak lur azpian dautzatela esaten denean, betirako ez direla akabatuak uler daiteke. Neskaren nebek laborarien jestua egin zuten, lurra iraultzen den bezalaxe bota baitzuten gazteluko horma, laiez. Hots, laborantxaren kodean, haziak dira lur azpian ezartzen, gero erne daitezten. Hila lurperatzeak haren biziberritzea segurtatzen duela oso sinboloa hedatua da gure artean, ebangelioak erabilia (Joanes XII, 24): "Lurrean erortzen den ogi bihia hiltzen ez bada han galtzen da, eta hiltzen bada fruitua ekartzen du".

Ez bakarrik hazia, hezurak ehortzeak ere antzeko mezua bideratzen du, batez ere ipuin tipo batean (Aarne & Thompson, T 720: "My Mother Slew me, my Father ate me"), gurean "Beñardo" izenarekin Barandiaranek bildu duena.

Behin batean aitama batzuk bizi ziren beren bi hurrekin, Kataliñ eta Beñardo. Egun batean amak esan zion eskolatik lehenbizi itzultzen zuenarentzat katilu bat esne izango zela. Beñardo etorri zen, baina ez zen esnerik: amak haizto handi batez hil zuen, txiki-txiki egin eta pertz batean egosi. Kataliñ sartu zenean galdegin zuen non zen Beñardo, eta pertzan ikusi zituen haren atzamarrak bor-bor, irakiten. Amak esan zion bazkaria aitari eraman behar ziola basora.

Negarrez abiatu zen Kataliñ. Amatxi xahar bat jalgi zitzaion bidera eta neskatxari erran, aitak jan eta, nebaren hezurak artoski bil zitzan, eta aitak galdegingo ziola "zertarako nahi ditun ba hezur horiek?" Eta: "jostatzeko" erantzuteko. Eta gero, etxeratuta, haitzurra hartu eta zulo bat egin zezan baratzean, eta hartan hezurak sar zitzan; amak galdegingo ziola:

- Zer ari haiz Kataliñ?
- Barazuriak aldatzen.
- Bai bai, alda itzan, behar ditugu-eta.

Amatxi harek erran bezala egin zuen Kataliñek arratsean, eta biharamun goizean baratzean bazen madariondo bat eta haren gainean Beñardo bixi-bixirik, kantuz ari:

"Amak hil ninduen / Aitak jan ninduen / eta ene arrebatxoak piztu ninduen".

Eta amari madari ustel bat eman zion eta Kataliñeri altxoka bat madari eder (Barandiaran, 1962a: 80).

Hezurrek, ehortzi gabe ere, izaki osoa biziartzeko ahala dute. Antzinako ehiztariak, hiltzen zituzten animalien espeziea berriztatuko zela segurtatzeko, haien hezurak beren larruan biltzen zituzten, horrela berriz sortuko zirelakoan (Ginzburg, 1992: 160-65). Kristau tradizio herrikoiak ere ezagutzen du berpizteko bide hori, santuen mirakuluen bidez adierazia, *Legenda Aurea*-n (1967, II: 29): txerrizain batek San Germano eta haren lagun gosetuak asetzeko, etxeko aratxe bakarra hil zuen; santuak aberearen hezurak bildu zituen larru gainean, otoitz egin zuen eta aratxea bizirik jeiki zen. Alabaina, erritu horien sinbologia, hilobiratzeari baino, arestiko laminaren jestuari hurbilago dira, xede berdinekoak izanik.

IV. BIZITZEA ETA HILTZEA PAREKATUAK

“Nigarrez sortu nintzen, nigarrez hiltzeko” dio kantuak, sortzea eta hiltzea parekatuz, eta ez ikuspide baikorraz, bietako tristezia nabarmentzen baitu soilik. Herioa eta bizia alderatzea bata bestearen parte dela onartzea da. Bikote hori askotan azalduko da, eta bizitzaren hasieran berean agertu ohi zaigu ezinbesteko bukaera, “hiltzeko sortuak gara” eta antzeko esakeretan adierazia. Arizonako Hopiek haur jaio berriari opatzen dizkiote, batera, bizi zoriontsua eta heriotza ezia.

Heriotzak bizitza balio lezakeela aditzera ematen duten bi kondaira aipatuko ditut: *Senpereko laminak* eta *Laminen emagina*. Hau da lehena:

Duela bizpahiru ehun urte, laminek ba omen zuten egoitza Senperen, Utsaleko zubiaren azpian. Behin batez lamina haietarik bat hiltzerat omen zoan, eta laminak ez zitezkeen hil, deus gisaz, gutarteko jende batek haren aitzinean den otoitzik ttikiena erran gabe. Lamina bat joan zen Gaazetxean baitzuten ezagun bat eta, haren ganat.

- Etorri behar duzu, otoi, gure etxeraino, gure lagunetarik bat arras gaizki da eta ez du bere azken hatsa botako ahal, zuk ikusi eta otoitz tiki bat harentzat erran dukezun arte. Sari ederra izanen duzu, berrogeita hamar libera eta ikusgarri zerbait.

Joan zen, Utsaleko zubiaren ondora heldu eta, haien etxean sartzeko behar baitzen urean iragan, laminak makila berezi batekin “kaxk” jotzen du ura eta ura egiten da berehala bi zati. Biak iragan ondoan eta, kaxk egin eta berriz batu ura. Sartzen dira eta emazteak hilturrenaren aitzinean otoitz bat erranik, jatera gomitatzen dute ogi bat ona, elurra bezain xuria... Ogi poxi bat hartu zuen mokanesean etxean erakusteko.

Eta abiatzen denean, “kaxk” egin eta ura ez dela zatitzen:

- Ez duzu uste gabean gure puxka zerbait zurekin?

- Ez, ez

- Ba, ez dezaket ura bi aldi egin...

- Ogi pitta bat dut mokanesean, etxean erakusteko

- Gure etxetik ezin da deus eraman, nehork ez du gure gauzarik ikusi behar sekulan.

Itzuli zuen eta ura zatitu zen (Barbier, 1931: 22).

Laminen emagina kondaira biziki hedatua da Euskal Herrian, Zuberoatik Bizkaira, eta aurrekoaren antzekoa da, salbu beste une batean behar zutela laminek jende bat:

Jundane Juhane bezpera batez Eskiula Gorripeteko etxekandereari jin ziozün, ekiaren jeikitako tenorean, neskatilla eder bat etxera.

- Egün hun, Margaita, behar düzü oihanpeala jin, emazte bat beita han haur-minetan, behar düzü lagüntü.

- Eta zü nor zira? Ez zütüt ezagützen.

- Jakinen düzü nor nizan. Jarraiki zakitzat, otoi, zure fortuna eginik dükezü haur haren eraikitzen lagüntzen bagütüzü.

Gogutzen dizü eta biak oihapeala heltzen dütüzü. Han xaharo bat emaiten diozü Margaitari eta erraiten:

- Jo zazü lurra.

Sinesten dizü eta berdenboran portale eder bat zabaltzen ziezü aitzinean. Han sar ondoan jauregi eder batetan edireiten dütüzü, eta barnago eta ederrago, bazterrak oro ekia bezain argi.

Sartzen dütüzü kanbera handi batetan, hura beitzen orotako ederrena. Han züzün llamina erdi-erdian eta haur-minetan. Üngürü-üngürü kanbera garnitürük züzün jente txipiñi eli batez.

Margaitak egiten dizü bere lana, eta gero karesatzen dizie gain-gainetik. Eman ziezün partikularzki ogi batetarik, zoin xuri beitzen elürraren pare. Margaita abiatzen düzü etxerat, bena borta ez zizien seküla zabaltzen ahal.

- Zük heben zerbait hartü düzü! -erraiten diozü lagünak.

- Ez, nik deus ere, ogi muxi hau baizik, etxekoer erakusteko zoinen eder den.

- Bena heben ützi behar düzü.

Üzten dizü eta berdenboran borta zabaltzen düzü.

- Hau zure pakamentia: ürrezko pera bat. Ez erran seküla inori, eta goiz oroz ürre ate (*meta*) bat edirenen düzü horren kantian.

Hala egiten dizü, eta etxeko zorrak oro pakatürük, oraino huntarzün handia baratü beitziaion.

Senarra jelostü ziozün, eta Margaitak, etxeko bakearen amoreagatik, segretia hari erran; eta lehen gaian pera galdü eta ez haboro agertü. Badütüzü orano egün ere güne hartan xilo eli bat, llaminen xiloak deitzen (Cerquand, 1986: 39, laburtua).

Kondaira batean hiltzea dugun leku berean, bestean sortzea dugu. Laminategietan parekatuak dira biziaren hastapena eta bururapena, biendako jendeen laguntza behar dute. Funtsean bizitza errealean ere horrela izaten da: sortu berria eta hila urez ikuzi ohi dira, eta maiz pertsona berak, emakume batek, hartzen ditu bere gain bi eginkizunak (Verdier, 1979: 140).

Bizia eta herioa lotzeko beste modu bat da heriotza bizitzaren atal gisa ikustea, hura bezain ona edo hura bezain gaiztoa. Ipuin miresgarrien amaieran maiz esan ohi da protagonistak aberats, zoriontsu eta luze bizi zirela. Euskal Herrian, bereziki Iparraldeko Barbierren eta Webster-en bildumetan (Kaltzakorta, 1989: 23), horrela bururatzen dira ipuinak: “Ongi bizi baziren ongi hil ziren”. Esan nahi baita, ongi bizi ondoan ongi hiltzea dela zorionaren parametroa, hiltze onik gabe bizitza ez litekeela kausitua, huts egina baizik. Ideia ez da berria, Lidiako (Anatolia) Kresos erregeak, Persiako Kiros-ek preso hartu eta hiltzera kondenatu zuenean, Solon zuhurraren hitzak gogoratu zituen: “Ezin daiteke esan norbait zoriontsua izan dela, nola hil den ikusi arte”; eta hori entzutean, bizia barkatu zion pertsarrak, baita bere jauregian egoitza eman ere.

Ongi hiltzea da euskal ipuinetan adierazten den nahikaria, ez betiko bizitzea edo hilezkor izatea. Herioa, beraz, onartua da ona denean.

V. ONDO BIZI, TXARTO HIL

Onartua ez ezik, desiratu ere izan daiteke herioa, bereziki norbaitek hil-hurren luzea jasaten duenean. Euskal mitologiak usu azaltzen digu kinka larri hori. Hiltamu gaiztoak berez sortzen duen ikara handiagotzen ahal da sufrikarioa kondenaren seinale dela uste denean, hala izan baita inoiz.

Senperekoko laminek beren lagunaren hiltzea eragin zuten otoitz baten bidez. Ez bakarrik mitoetan, errituetan ere hil-hurrena laburtzeko praktikak egin izan dira. Adibidez, beila bat ofreditu Orreagako Ama Birginari, “eria pausatzeko”, Behorlegin entzun dudanez. Zerainen, gaixo batek heriotza gogorra zuenean, auzoko etxeetan dirua biltzen zuten gomendiozko meza bat ateratzeko, lehenbailehen pausa zedin (Goñi, 1991: 64). Frantzian, apezen desadostasunaren arren, bazen librantzako meza berezi bat “topezu” deitua, Côtes-du-Nord departamentuan egiten zena Van Gennep-ek (1946: 666) han inkestatu zuenean. Folkloristak dioenez, eliza berezi batzuetara beila egiten zen hiltzen ari zena laster hil ahal izateko: Auverniako Saint Languinon elizan auzoek ordaintzen zuten holako meza. Basse-Bretagneko Saint Languiz iturriaren berri ematen digu Sébillot-ek (1968 II: 240): hango urak hiltzear direnen sufrikarioak akabatzen ditu, biziarekin batera. Saindu horien izenak 'languir' (itzali) aditzetik eratorriak dira eta ongi adierazten dute zer mesede mota ekartzen zuten. Beste prozedura bat zen hiltzear dagoenari harrizko haizkora bat musuaraztea (Van Gennep: ibid.).

Eutanasiara hurbil dira horiek guztiak funtsean, eutanasia magikoa bada ere, hartan sinesten dutenentzat hasteko. Hil-hurren luzea, diotenez, deabruak eragiten ahal dute arima infernura eramateko borrokan, eta kasu horietan, bistan da, hilarazteko otoitza zilegitua da.

Sorginkeriak ere ekar zezakeen heriotza gaiztoa. Edo sakreak: Orozkon, norbaiti botatzen ahal zaion larriena ei da “Atzen onik ez al du izango” esatea, edo “Atzeneko orduan ere ez dautsut barkatuko”; horien ondorioz, madarikatuaren hil-hurrena luzatzen da madarikatzailea eriaren ondora etorri eta barkatu arte (Barandiaran: 1973b: 57-59).

Badira gure mitologian heriotza gaiztoa -hil ezina- eragiten duten izpiritu tiki eta bihurriak, familiariak edo prakagorriak deitzen direnak. Orratzontzian atxikitzen dira eta, askatzen direnean, lana eskatzen dute, baina eman bezain laster bururatzen dute eta berriz hasten dira lan eske. Sorginen indarrak deitzen dituzte, gauza miresgarriak egiten baitituzte. Horrelakoak dauzkanak bizi erraza eramaten du, eta aberatsa da lan egin gabe.

Badituzte, ordea, maina txarrak, eta bat bereziki: familiariak dauzkana ezin da hil haietaz desjabetu arte; hil beharrean eta hil ezinean paratzen da, sufritzen, oihu batean. Orduan, erremedio bakarra familiariak norbaiti ematea da, onartuko dituen norbaiti (ikus “Emazteak I” kapitulua). Orozkoko adineko jendeek ezagutu duten artzain bat, Itzingotiko txabolakoa, izugarri arina zen lasterka, eta denek esaten zuten prakagorriak bazituela, nahiz harek ukatu; hiltzen ahal izateko ahuntzari eman ei zizkion, eta aberea airean joan zen, ez zuten gehiago ikusi. Bazen neska bat ere, Jakoa, familiariengatik airatua:

Gizon familiardun bat hil beharrean eta hil ezinean paratu zen. Alaba Bilbon baitzegoen neskame, aita deitu zuen eta familiariak eskaini zizkion. Neskak onartu eta berehala airean joan ei zen, eta geroztik ere beti airean ibili zen, inon ezin geldituz: sorgina zela esaten zuten ezagutu dutenek.

Zerbait antzekoa kontatzen dute Anbotoko Andereaz. Andere hori pertsonaia oso garrantzitsua da gure mitologian, eguraldia eragiten duelako. Mendiko harpeetan egoten da, eta mendi batetik bestera joaten ikusten dute, gauaz, dena su eta gar. Anbotoko Andere hori nola sortu zen esaten dute kondaira anitzek, eta haietarik batean familiariak dira kausa.

Neskazahar batek familiariak zeuzkan eta, hiltzeko ordua heldu zitzaionean, ezin zen hil. Neskatoari eskaini zizkion eta, familiariak hartu bezain laster, neskato hori airatu zen, eta horrela ibili zen geroztik, airean kondematuta mendi batetik bestera, su eta gar, tximistak egiten. Hura zen Anbotoko Anderea.

Edesti honetan, familiardunen hiltzearen truke, neskato hartzailea kondematzen da, beste munduko bat bilakatzen da, hilezkor ontsalaz, haren kondena betikoa baitzen. Baten hilezkortasuna bestearen hiltzearen ordaina dateke.

VI. HERIO DESIRATUA

Hilezkortasunaren nahikaria baino gehiago, heriotza gaiztoaren beldurra adierazia da euskal mitologian. Alabaina, Guillaumie-k dioenez (Lafittek zitua, 1941: 21), laminak jendeen bizitza konpartitu nahi dute, batez ere tormentatzen dituen hilezkortasunaz gabetzeko (“pour perdre l'immortalité qui les supplicie”). Interpretazio hori gorago aipatu istorioan oinarritua izan liteke, hiltzeko jende baten otoitza behar dutela laminek. Baina segur aski arazo bera dago *Laminaren amorantea* tipoko istorioaren azpian: Paracelsok esplikatu zuen hilezkor direla lamiak Azken Judizioko eguna arte, eta handik aurrera suntsituko direla, non ez duten jendeen hilkortasuna erdiesten gizon batekin ezkonduz (Le Roy Ladurie, 1971: 617).

Balio du ikustea noraino eraman izan den hil ezinaren fantasma Euskal Herritik kanpoan. Ontasuna gutziziatua den bezain beldurgarria dela hilezkortasuna dio Frazer-ek (1984 IV: 62-63), horri buruzko mito batzuen berri ematean. Holstein-en (Alemania) alai eta ongi jaten bizi zen andere batek betiko bizi nahi izan zuen; haren guraria ederki bete zen hasieran, baina zahartu arau ihartzen hasi zen, eta gero ibili ere ezin zuen egin: haur bati bezala ematen zioten jaten eta, tiki-tikia bilakatu zenean, kristalezko botila batean sartu eta Lübeck-ko Santa Mariaren elizan zintzilik jarri zuten. Han dago, sagutxo bat bezain ñimiño, urtean behin bakarrik higitzen omen da, eta ezin hil beti.

Istoria Cumas-ko sibilarena da: Ovidiok bere *Metamorfosi*-etan kontatzen duenez, jadanik haren garaian zazpiehun urtekoa zen sibila eta mila bete arte bizi beharko. Legendak esaten du nola Apoloren profetisak hilezkortasuna eskatu zion jainkoari, bere zoritxarreko.

Apolok sibila maite baitzuen, bere nahikari bat beteko ziola agindu zion. Eskutada bat hautsean den hauts-papur bezain beste urte bizitzea eskatu zion sibilak, baina horrekin batera betiko gaztetasuna ere eskatzea ahortzi zuen eta gero, jainkoak birginitatearen truke eskaini bazion ere, neskak ez zuen onartu. Zahartu arau ihartzen eta tipitzen joan zen, azkenean txirrita bat bezala gelditu arte: Cumasko Apoloren tenpluan zeukaten kaiola batean, txoriño bat bailitzan zintzilikatua. Hurrek, txarkeriaz, galdegiten zioten: “Sibila, zer nahi dun?” Eta harek erantzun: “Hil nahi dut” (Grimal 1951: 421, moldatua).

Sibilaren patu eta hitzen zirrara ez da oraino ahitu, T. S. Eliot-ek aukeratu baititu *The Waste Land* hasierako exergoan: “Nam Sibyllam quidem Cumis ego ipse oculis meis vidi in ampulla pendere, et cum illi puero dicerent: Σύβυλλα, τί θέλεις; respondebat illa: Ἀποθανεῖν θέλω”.

Proventzan, Katalunian eta Balearetan, Eguberriz ematen zuten “*El cant de la sibil.la*”-ren musikak murgiltzen gaitu giro lazgarri horretan, nahiz kantuaren hitzek ez duten hilezina azaltzen, Azken Judizioa baizik; baina badakigu, gorago aipatu den Paracelsok hala dio, munduaren bukaeraren ideiak nahigabetzen dituela ordu arte hilezkor izango diren izakiak, laminak eta melusinak. Literaturan, Jonathan Swift irlandarrak jorratu du hilezkortasunaren gaia *Gulliverren bidaiak* liburuan. Hamargarren kapituluan, Luggnagg islara heldu da protagonista:

Isla hartan badira *Struldbrugg* edo “hilezkorrak” deitzen dituzten jendeak: noizean behin sortzen zen haur bat, bekainaren gainean orban bat zuena, bere hilezkortasunaren marka.

Gulliverrek pentsatzen du zorion handia dela *struldbrugg* sortzea, eta hasten da pentsatzen berak zenbat gauza eder egin lezakeen hilezkor balitz: jakintsua izango zen, aberatsa, jendeen ongilea, historialaria... Baina laster erori zen bere ametsetik, gaztetasunaren baldintza ahantzia baitzuen harek ere.

Struldbrugg-ek zahar okituen aie fisiko eta psikiko guztiak biltzen zituzten, gehi sekula ez bukatzeko perspektibak dakartzana: ezinduak, itsusiak, gaitzikorrek eta, batez ere, asozialak eta egoistak izatea.

Akats guzti horiengatik eskubide zibikoak kentzen dizkiete laurogei urtetik aurrera, beldurrez-eta beren bizi-esperientzia luzea erabiliko dutela beren burua aberasteko eta besteen kalterako.

Oroimena galdu dute eta ez dira historia egiteko gai. Hizkuntza aldatzen baitoa denboraz eta *struldbrugg*-ak bilakaera hori jarraitzeko gai ez izanez, arrotzak dira beren herrian, ezin dira besteekin solastatu, ez eta irakurri edo idatzi ere.

Jende arrunten ehorzketak ikusten dituztenean, zingurika hasten dira, haientzat sekula helduko ez den bukaera desiratzen (oso laburtua).

Horiek guztiak ikusita, biziki hoztu zitzaion Gulliverri betiere bizitzeko nahikaria, eta pentsatu zuen horrelako bizitza baino nahiago zukeela edozein heriotza gaiztoa.

Hara, Jonathan Swiften gogoetak herioaren eufemizatze aldera doaz, eta esplizituki -mitoek ez bezala- irakaspena ateratzen du: hiltzea, funtsean, irtenbide hoberena datekeela. Horrek Euskal Herriko ipuinetara ekartzen gaitu berriz, haietan aurkitzen dugun “ideala”: ongi bizi eta ongi hil.

Hiltzeari buruzko diskurtso orekatu eta zentzuduna urrun da hilezkortasunaren amets zoroetatik; baina etsipenaren marka darama nonbait, are eta gehiago orain, bizia ez dela hiltzeko programatua sumatzen hasiak direnean biologoak. Aldi berean, doi bat hits geratzen da ideal hori, batez ere Isolderen -beste irlandar bat- heriotzari alderatzen badiogu, amodioak edertua eta Wagneren musikak goraiatua, haren liluran ezerezaren leizeko erakarpina igartzen badugu ere.

MUSIKA

° Lizardi- Antton Valverderen “Bihotzean min dut” kantua, hasieran.

<https://www.youtube.com/watch?v=PAJ-NNLj0UI>

° Wagner, *Tristan & Isolde*-ko preludea, *Laminaren amorantea* kondaira girotzeko.

https://www.youtube.com/watch?v=7_7HUTE-Slg

° Brave eta Besonart-en “Nigarrez sortu nintzen, nigarrez hiltzeko” abestiak bizitzaren hasiera eta bukaera parekatzen ditu. Hona beste bertsio bat:

<https://www.youtube.com/watch?v=9Ebqp-f75wQ>

° Sibila gogoratzeko, “*El Cant de la Sibila*”: bertsio proventzala, Capella Reial de Catalunya-k emana (Jordi Savall zuzendari, Monserrat Figueras soprano, Alia Vox P. 1999).

<https://www.youtube.com/watch?v=wzffW6dwHH4>

° Bururatzeko, Wagner *Tristan & Isolde*-ko bukaera: “Isolderen heriotza”.

<https://www.youtube.com/watch?v=D8UGioB3Xdg>

III. kapitulua

AUZO HARREMANAK LAMINEN ETA JENTILEN MITOETAN⁴

Gure mitologiako kondaira gehienetan jendeek izaki mitikoekin dituzten borrokak kontatzen dira, eta laminen edo jentilen istorioetan ugariak dira bi taldeen arteko kalapitak, noizbehinka harmonia topatzen bada ere. Harreman horiei begiratuko diegu, auzoen artean izaten diren arazoan isla direlakoan. Esan nahi baita, mitoen bidez jendeek gogoetatzen eta formulatzen dituztela beren hurkoekin dituzten adiskidetasuna eta bekaizkeria, elkarlaguntza eta tirabirak, abusuak, zapalkuntzak eta haien aurkako oldartzeak.

Jendeak etxeetan bizi dira; laminak, jentilak, mairuak edo basajauna baso aldean, harpeetan usu, izaki ktoniko gisa. Bi multzoek, auzoek bezala, elkar gurutzatzen dute, besteak beste laminak etxeetara hurbiltzen direnean eta jendeak basora. Kondairek ulertarazten dute harremanak onak izan zirela behiala, eta noizbait gauzak mindu zirela.

I. LAMINAK NOLAKOAK

Laminak emazteak dira gehien bat, batez ere Euskal Herriko mendebaldeko tradizioan. Nafarroan eta Zuberoan gizonak ere izaten dira, Gillen izenekoak eta tiki-tikiak, zubi eta jauregien eraikitzaileak. Hemen aipatuko ditugunak emazteak dira, maiz "Orbela airez aire" Bizkaiko baladak deskribatzen digun Ama Birginaren antzekoak: ipar haize goxoak orbela airatzen duen larre ederretik doa erreka eta haren bazterrean topatu du poetak Ama Birgina, buruko ilea orrazten ari dela; urrea zen ile hura, eta ilondo bakoitzetik perla zerion; ile horri ipini behar zaion xingolak bost dukat balio du Madrilen; andere horren ehulea Maria Magdalena da eta haren jostakilea erregeren alaba - ugazabandrea zein gora den adierazten du sehien mailak.

Irudi tipikoa da Ama Birginarena erreka baten ondoan, Edem-go ibaiaren ondoan ote? Baina gure baladako anderea laminen eta basandereen kopia da, horiek egoten dira-eta ur bazterrean, bilo luzearen orrazten, urrezko orraziaz (Ama Birginak biloa du urrezkoa, laminek orrazia), edo arropa ederrak zuritzen. Askotan - Espainian eta Frantzian hasteko - Ama Birgina ere irudikatua da latsan ari, Jesus-Haurraren zapiak eta xatarren ikuzten, komunzki. Herri tradizioak laminen itxura eman dio Ama Birginari, bien eiteak uztartuz eta bi pertsonaien arteko sinkretismoa eginez. Holakoetaz beterik dago kristau tradizio herrikoia, eta esan behar da, aurkakoa maiz

⁴ Mintzaldia GURE IRRATIAn, 1998ko azaroaren 25an

entzuten bada ere, gehienetan ez duela kristianismoak erligio paganoa aldarazi, alderantziz baino: erligio paganoak ditu pertsonaia kristauak itxuratu eta haien izaeran eragin, kasu honetan bezala, Ama Birgina "laminduz".

Neska ederrak izaten dira laminak, bederen basoan daudenean beren artean eta inork begiratzen ez dienean; norbaitek sorosten dituela ohartzen badira, ikaragarri itsusi bilakatzen omen dira. Ederrak eta itsusiak, onak eta txarrak, bikoitzak beti. Jendeen etxeetara tximiniatik sartzen zirenean ere, "sorginak bezain itsusiak" zirela diote, eta batere ez maitagarri.

II. LAMINAK ESKE

Jatekoaren bila hurbiltzen ziren bereziki laminak etxeetara: Orozkon esaten dute, lehen, labekada egiten zutenean, ogi bero eta pamiatxa eske etortzen zirela, batez ere basotik hurbil ziren etxeetara, usainak erakarriak edo; zatitxo bat ematen baldin bazieten, pozik joaten zirela, bestela ez omen zuten bakerik ematen (Arana, 1996: 219). Baina laminek gehien gustuko dutena txitxi-burruntzia da, edo urina, *Lamina zauritua* istorioak azaltzen diguna.

Altzürükün bada Erregia etxea. Hango nagusia ments zelarrik, lamina emazte bat jiten zen tximiniatik eta etxekandereari arto (mestura) urinean bustia galdatzen zion: eta berehala presta litzon, bestela joko zuela. Hola gau oroz. Emaztea aspertu zen eta senarrari erran.

-A, hola da? Bihar nik igurikatuko dinat lamina hori.

Emaztearen arropak jantzi eta jarri zen supazterrean iruten. Jin zen lamina eta erran zion:

-Barda pirpirin-pirpirin eta gaur pordoska-pordoska? -gizonak jakin ez iruten, eta larri egiten zuen.

-Barda lihoa nuen eta gaur iztupa.

Mesfida zen lamina eta galdegin zion:

-Nola deitzen hiz.

-Nihauren buru.

Lamina, gona altxaturik, uzkiaren berotzera jarri zen eta urina galdatu zion gizonari.

Gizonak urin anitz ezarri zuen zartainean eta bero-bero zenean bota zion laminari gona petik. Orroaz joan zen lamina tximinia gora eta haren orroetara lamina saldo bat jin zitzaion:

-Nork egin daun?

-Nihauren buruk.

-Hihauren buruk egin badaun, ihaurek goza ezan! - han utzi zuten eta hil zen lamina (Cerquand, 1986: 60, laburtua).

Saran ere erraten zuten Larrungo mendiaren oinetan bizi zirela laminak, leze batean, eta jendeak pertsekutatzen zituztela, inguruko etxeok bereziki. Tximiniatik sartzen ziren jatekoa eskatzen eta zernahi ozarkeria egin zioten emazte bati (Cerquand, 1986: 55). Honelango bertsioetan, laminak ohointzat hartuak dira: jaten dute eta ordaina eman gabe joaten dira.

III. ELKARREN GOMITAK

Baina bikoiztasuna beti hor da eta bertsio batzuetako laminak gisakoak dira, soro lanak egiten dituzte, etxekandereak supazterrean eman janariaren truke, eta emailearen etxea gero eta aberatsago bilakatzen da. Hala da Barbierren “Laminak Bazterretxean” kondairan, eta oraindio nabariago Landesetako bertsio batean, Arnaudin-ek bildua (1996: 40, ikus “Emazteak I” kapitulua): senarraren isilean gertatzen ziren emazte eta laminaren arteko harremanak eta elkarlaguntza, eta gizonak jakin zuenean, lamina zauritu zuen; lamina ez zen gehiago etorri eta etxea peko errekarara joan zen.

Kondaira hauetan, emazteek laminak gomitatzen eta ohoratzen dituzte, eta haiek, ugaltasunaren dibinitate gisa, etxeko ontasuna bermatzen dute: oro dira irabazle. Gizonak dena hondatu du eta urre-aroa bukatu da. Bibliako Edem-go istorioan emazteak zuen dibinitatearekiko adiskidantza deuseztatu; hemen, behingoz, alderantziz da.

Orozkoko beste istorio batek dio etxeko andre bat basora joan zela, laminek antolatzen dituzten erromerietan parte hartzera eta dantzatzera; akelarre moduko jaia zen eta tximiniatik jalgi zela, sorginek egin ohi duten bezala (ikus kondaira osoa “Emazteak I” kapituluan). Ohargarria da *Akelarre* istorio horien eta Landesetako *Lamina zauritua*-ren bertsioen simetria: bigarrenetan, tximiniatik sartzen dira laminak emakumeen apairuetara; lehenetan, tximiniatik jalgitzen dira emakumeak laminen dantzaldietara. Harreman sozialetako ordaritzak eta erreziprozitatea agertzen dira laminek eta jendeek elkarri egiten dizkioten bisita horietan.

Aldaerak aldaera, tximiniatiko laminen istorioetan ez da beti berdina. Batzuetan auzoen arteko elkarlaguntza azpimarratua da eta lanaren bidez ordaintzen dute laminek emazteen supazterrean jan dutena; besteetan lapur moduan aritzen dira, bortizkeriaz eta mehatxuz. Bien erdian den jokaera ere bada, eta bertsio zenbaitetan eskeko aspergarriak dira laminak, beren burua gomitatzen dute eta pagatu gabe jan. Eskatzearen eta ebastearen arteko mugan.

IV. LAMINEN ORRAZIA EBATSI

Jendeek ere, ahal zutenean, lapurtu egiten zieten laminei, zerbait ahantzita uzten zutenean; horrela hasten da *Orrazia lapurtu* deituko dugun kondaira. Bertsioak ugariak dira, Britainian, Okzitanian eta Euskal Herrian (Arana, 1996: 706). Hona hemen Orozkoko bat:

Arandi etxea bada Urigoitin. Hango bat ahuntzen bila joan zen eta laminak topatu. Haiek jendeak sumatu eta ariniketan ihesi joan eta beren zuloan sartu ziran, bertan utzita orrazia - edo xukatzen zabaldua zuten izara bat. Arandik orrazia hartu eta etxera eroan. Eta hurrengo gauean laminak etorri jakozan esanka: “Arandi Arandi / entrega nire orrazi / ezpabere nik hondatuko dut zure askazi”.

Arandikoak beldurtu ziran eta aurkitu lekuan utzi eudien orrazia. Eta handik aurrera bakea ukan eudiela diote kontalari gehienek. Batek izan ezik.

Horrek zioen laminek biraoa bota eutsiela lapurraren etxeari: “Arandin ez zala zororik edo erorik faltako”.

Eta hala izan dela esaten dute. Dena den, etxea hutsik eta utzirik zegoen berriemaileak istorioa kontatu zuenean (Arana, 1996: 233-243, moldatua).

Ekialdeko bertsioetan, laminek harriz betetzen diote soroa orrazia hartu dienari (ikus “Ura” kapitulua).

Orrazia lapurtu kondairaren Orozkoko bertsio hau ere *Lamina zauritua*-ren simetrikoa da: lehenean laminek jendei janaria hartu eta kario pagatzen dute (laminaren zauria); bigarrean jendeek laminei orrazia hartu eta zigorra bildu dute (eroak eta zoroak etxean): nolabaiteko erreziprozitatea bada eta “biok berdin” amaitzen da partida.

Ohartzeko da bestalde, lapurtzearen zenbat maila azaltzen diren bi kondairetan: lehenean, eskatzea eta kentzea ditugu, eta ez da argi bien arteko marra non den; halaber bigarrean, aurkitze eta kentzearen artekoa. Eta posibilitateak ez dira agortu, hurrengo kondairak, *Laminen emagina*-ak, beste kasu bat eskainiko digu.

V. LAMINEN EMAGINA

Laminen (edo jentilen) emagina istorioaren ale anitz bildu dira Euskal Herrian: Kortezubin, Zugarramurdin, Isturitzen, Alzain (Barandiaran, 1961: 66; 1962b: 84; 1973a: 448-451), Behorlegin, Altzürükün, Eskiulan (Cerquand), Sakanan eta Abaurrean (Azkue, 1966: 425 eta 393)... Biarnoan Accous-eko bertsoak atxeman ditu Sébillot-ek (1968a: 438). Motiboa Ingalaterran, Eskozian, Irlandan, Britainian, Laponian, Islandian, Danimarkan, Japonian eta Indian ere aurkitu du Thompson-ek (F 333 eta F 372). Orozkon jentilak dira laminen lekuan:

Presatxu etxeko jaunaren amatxiren amatxi Maiurtun (Mariortu) bizi zen. Gau batez jentil bat etorri zitzaion: emaztea haurminetan zuela, Maiurtuko etxekanderea biziki emagina ona zela entzuna zuela eta, otoi, laguntza ematera etortzeko. Emaginak ezetz, beldur zen. Eta jentilak:

-Aditu andratxu, hemen kuxutzen (*hartzen*) zaitut eta hemen utziko zaitut, baina mesedez zatoz, gauza ez da ondo heldu.

Eta joan ziren. Jentil Zulorainoko bidea ezagutu zuen andere harek, baina handik aurrera ez, bakarrik ur ondoan ibiltzen zirela (*Jentilzuloko Erreka zen, hain segur*); ate batera heldu ziren eta, zerbait ikututa, zabaldu egin zen. Barnean leze bat bezala zen, eta argia.

Emaginak jentila lagundu zuen haurra egiten, eta apairu egitera gomitatu zuten: arraultze-xistorra eta ogi bat zuri-zuri-zuria, aski ona. Jentilen deskuido batean emaginak ogi zati bat sartu zuen sakelan, etxean erakusteko zein ona zen. Joaterakoan, saritzat eman zioten diru zerbait eta sobrekama oso eder bat. Baina atera heldu eta ezin zuten ireki.

-Andratxu, zuk zeozer kuxu duzu hemetik.

Ezetz eta ezetz, besteak.

-Bai andratxu, ez dautsut ezer egingo, baina zeozer kuxu duzu.

Azkenean ogi zatia erakutsi zuen: harengatik ezin zuten urten. Hartu zioten atzera eta ogi handi bat eman. Eta etxera etorri zen. "Jentilen sobrekama" hori Presatxuko etxejaunak ezagutu du, traperoei eman zieten arte (Arana, 1996: 245, laburtua).

Hemen dugun "lapurretaren" hirugarren moldea besteak baino arinagoa da, funtsean lapurreta ere ez da, doi-doia jendetasun falta: ez da ongi gomitatuak isilean eraman dezaten bertan jan ez dutena. Badirudi mitoek laket dutela jabegoari eta trukeei buruzko adibideak bilatzea, birtualitate guztiak ikertzea, zer den ebastea eta zer ez den. Jendarteari interesatzen zaioke gaia, hainbestetan erabiltzen baitu.

"Auzoko eltzea etxekoa baino goxoagoa" delakoan edo, laminek jendeen ogia eta urina irrikatzen dituzte, nahiz eta gero laminena edo jentilena izan ogi zuriena; eta preseski ogi horixe gura dute jendeek etxerako. Auzoek elkarri gutiziatzen dizkiote ondasunak, eta ondasunak trukatzeko (eskatuz, kenduz, emanez) ibiltzen dira etengabe.

Emaginarekin, behingoz, jendeen eta laminen arteko harremanak ez dira gaizkindu: hasierako mesfidantzaren ondoan, auzo onak bezala aritu dira eta dena ongi amaitu da. Elkarren laguntza gailendu da guztientzat onuragarri.

VI. MAIRUAK, LAMIN OHOINAK ETA ARROLAN

Laminak, jentilak eta mairuak, berdin, istorio multzo bateko protagonistak izaten dira. `Mairu' edo `jentil' hitzek, biek "ez-kristau" esan nahi dute; baina `kristau'k pertsona edo jende ere esan nahi zuen tradizioan; beraz, kristau edo jende ez dena, testuinguru honetan, "izaki mitiko" da.

Mairuak eta jentilak, haien izenen zentzua bezala, oso antzekoak dira, arras berdinak izan barik: gehien bat gizonak dira (baina aurreko kondairan emaztea badute), handiak, batzuetan ederrak, besteetan begi-bakar. Lamina-emazteen lagunak izaten dira biok, haien parekoak eskualde batzuetan, eta paredroak ere noiz behinka. Jentilak mendebaldean agertzen dira - Bizkaian, Gipuzkoan-, mairuak ekialdean batez ere.

Kondaira anitzetan jentilak, mairuak eta laminak trukagarriak dira, batzuk besteen lekuan azaltzen dira. Arrolan heroia mairuen garailea da komunzki, baina laminena ere bai, honetan bezala.

Samson Arrolanen kusia zen, bai eta haren unaia (behi-zaina) ere Donaixtiko mendietan; behi haietarik bat Arrolanen inudea zen. Egun batez, behiak alhaturik, zuhaitz baten pean etzan zen Samson, eta loak hartu zuen. Barrandan ziren laminak eta tropaka heldu behien ebastera. Atzarri zen Samson eta, behirik ez ikusirik, kolera bizian jaiki zen eta oihanean sartu. Hartzak atxeman zituen han eta, behiak zirelakoan, denak olara eraman zituen, pago bat makila gisa erabiliz. Biharamunean Arrolan heldu zen olara bere inudearen ikustera eta, haren marruma eztiaren orde, hartzen orru ikaragarriak entzuten zituen. Azti batengana joan zen behiak non ziren galdegitera, eta harek erran zion laminek zituztela eraman. Laminen ondotik joan zen Arrolan, baita atzeman ere haren behiez ase bat egiten ari zirela. Denak eho zituen, emazte zein haur. Eta geroztik ez da gehiago laminarik Pirinioetan (Cerquand, 1986: 141, laburtua).

Hazkuntzaz bizi den mendiunean kokatua da kondaira hau eta maila handiko lapurretaz mintzo da: behi-alde osoaren ebasteak. Arrolanen gehiegizko mendekuak unaiak (*cow-boy*) eta *Western-go* giro bortitza oroitazten dituzte, autoktonoen suntsiketa – Amerikan artzain izandako batek kontatua, beharbada.

VII. LAMINA, BASAJAUN ETA JENTIL BAHITZAILEAK

Pertsonen bahiketekin, ohointza baino gertakari larriagoetan sartuko gara. Mairuek (edo laminek) eta jentilek neskak eramaten omen dituzte, batzuetan estakuru hutsalaz.

Orozko Usiko neskatila bat Leizeaga aldera joan zen ahuntzen bila, eta haitzuloan sartu ei zen. Jentilek (laminek, diote batzuek) ahurkada bat urre eman zioten, baina berriz hara ez etortzeko esan zioten. Urrea etxera eraman zuen neskak, eta etxekeok berriz joan zedila hara, beharbada urre gehiago emango ziotela. Neskak ezetz, etxekeok baietz, azkenean joan zen, eta ez zen gehiago atzera etorri. Haren bila joan ziren nebak. Jentilek esan zieten arrebak bazekiela ez zuela gehiago hara joan behar, eta ez zutela gehiago ikusiko; eta ordutik aurrera ez zela urrea faltako Usin, baino ero bat ere ez (Arana, 1996: 250, laburtua).

“Zakua beteegi nahiz, leherrarazi” ote da irakaspidea? Bestalde, ohargarria da kondaira honen eta *Lamina zauritua*-ren egiturak berdinak direla: neskak sobera eskatu eta galdu; laminak egunero eskatu eta zauritu. Lamin-jentilen eta jendeen arteko harremanetan berriz erreprozitatara heltzeko joera igartzen da.

Behorlegin basajauna da bahitzailea.

Etxepareko alaba bahitu zizin basajaunak eta bere zilora eraman: ziloaren hegian ikusten zitzen biok, eguzkitan, basajauna lo zelarik burua neskaren altzoan pausatutik. Egun batez neskak bere tablierra haizturraz moztu, hartan emekiño pausatu basajaunaren burua eta ihes egin zizin. Baina basajaunak, konturatu zenean, burhoa egin ziozun: “Balinba leher eginen dun etxean sartzearekin!” Eta neska, zango bat etxe barnean zuelarik eta bestea kanpoan, hil zuzun (Cerquand, 1986: 19, laburpena).

Arhantsusiko bertsioan, neska bahituak ihes egiten lortu zuen, eta basajauna haren xerka ibili zen mundu osoan, baina ez zuen kausitu eta tristuraz hil zen. Hona Altzürükükoa:

Margita, Zihiga Berterretxeko alaba, artzain zen mendian. Egun batez lamina batek eraman zuen Altzürüküko Lamina Zilolat. Eskeko batek ikusi zuen lamina, neskatila bat oihuka bizkarrean zeramala, eta etxekoei erran zien. Lotsa ziren laminek eho zitzan heien zilora joaiten baziren. Lau urte egon zen Margita Lamina Zilolan eta laminengandik haur bat ukan. Jatekoa ematen ziezün ezin hobe, bereziki ogi bat elurra bezain xüri.

Kartier hartan baziren “mairiak” deitzen ziren basa-gizon eli batzu, eder, handi, azkar eta aberatsak. Aste oroz mairiak eta laminak biltzen zütüzün libertitzera Mendikolandala. Halako batean Margitak etxera ihes egin zuen, haurra han utzirik. Etxean kontent, baina beldur, laminak etorriko ote ziren Margitaren xerka, eta barrukiko manjaterran gorde zuten. Etorri ziren bai, laminak, baina ez neska atxeman. Gero, Pariserat igorri zuten, eta berriz etorri ziren laminak, baina Margita jadanik Atharratzen zen (Cerquand, 1986: 19, laburpena).

Zuberoako neskatilak Parisera joan ohi ziren neskame eta Margitak korrante horri jarraitu baino ez zukeen egin. Bahiketa istorio hauetan auzoen harremanetako alderdi berezi bati buruzko gogoeta ikusten ahal dugu: bortxaketak eta haien ondoriozko jaiotzeak eta ihesak, egiazki gertatuak eta ezagunak, naski.

Baina esan behar da, gutitan gertatu arren, sorgin-laminek mutilak nola galtzen dituzten kontatzen duten istoriorik ere badela (Arana, 1996: 252).

VIII. JENTILEN BUKAERA

Orain arte aipatu kondairetan, jendeen eta izaki mitikoen harremanetan garaipean eta derrotak aldizkatuak ikusi ditugu, batzuetan izaki mitikoek galdu dute, besteetan jendeek, eta nolabaiteko oreka izan da. Ez erabatekoa, Arrolanen istorioak erakusten baitu azkenean zein den joera nagusia, laminak suntsitzea, Pirinioetakoak bederen. Jentilen, mairuen edo laminen bukaera kontatzen duten istorioak asko dira Euskal Herrian. Larrainen, apezaren *Salve Regina*-k ohildu omen zuen basajauna; Eibarren bolborak eta su-armek zituzten laminak uxatu, Laudion ermitek eta errogatibek eta Arratian tranbiak. Lehen lainoa agertu zenean galdu zirela jentilak esaten da ere.

Horiek guztiak urrun dira, lehen lainoa batik bat, eta geroztik ere izan da izaki mitiko horien iraupenaren berri; alabaina, galduak izan zirela esaten denean ez da gertakari historiko bat kontatzen, baizik eta tema mitiko errekorre bat errepikatzen. Bukaera horiek, gainera, *parusia* iragartzen dute. Britainian esaten zuten Saint-Malo kostako laminek mende bakunetan alde egiten zutela handik eta bikunetan berriz agertzen; horrela, XX. mende hasieran andere udatiar ederrak heldu zirenean automobil zaratatsuetan, kapelu eta zetazko zapia jantzirik, bertako xahar batzuek uste izan zuten hadak zabilzateela eskualdean, ea lehen bezain gustuko zuten (Sébillot, 1968b: 111). Altxaiko zaldunak bolboraz beteko behi larru bat jaten emanek akabatu zuen Azalegiko herensugea: munstroa, dena sutan, itsasoraino joan zen airetik, eta han galdu zela diote bertsio gehienek (Cerquand, 1986: 94-97); baina Casenavek (1994) bertsio 'paralelo' bat aipatzen du: herensugea uretan bizkortu zela eta egun batean bere harpera itzul litekeela, lur azpitik aldi honetan.

Hain esplizitua ez bada ere, horrelako zerbait igartzen ahal dugu Orozkoko jentilen kasuan. Erreka ondoko Jentil Zulon bizi ziren, baina mendi gainean ere kokatzen dituzte, Untzuetapikun. Han erdi-aroko gazteluaren hondamenak baitira, baita kanoi bola handiak, harrizkoak; kontatzen da bola horiek pilota jokoan erabiltzen zituztela jentilek, elkarri botatuz Untzuetatik beste mendi batera, Santa Marinara (Barandiaran 1960: 113). Osterantzean, neskak ere bahitzen zituzten eta horrek zituen galdu:

Jentilek ikaran zeukaten Orozko osoa, neskak bahitzen baitzituzten. Behin, Olabarriko alaba Axpuru aldera joan zen ahuntzen bila eta jentilek hartu zuten, baita Jentil Zulora eroan ere, edo Untzuetako gaztelura. Eta han itxi zuten burdinazko atea ipinita. Neskaren nebak hurbildu ziren atetara eta arrebarekin hitz egin zuten: hark esan zien halako orduan lo egongo zirela jentilak eta orduan etortzeko. Mutilak palankak eroan zituzten, atea apurtu eta arreba atera zuten. Batzuk diote bahitzaileak gazteluko harresiaren gerizapean etzanaldia egiten ari zirenean, nebek, palankak laiak legez erabiliz, gainera bota zietela horma eta azpian utzi zituztela hilik. Horrela Orozko askatu zuten, geroztik ez baita gehiago jentilik ikusi inguru horietan.

Salbatzaileei, beren ekintza ausartaren oroimenez eta ezkongabeko amaren haurrak zirelako (“abizen barikoak” beraz), Hierro-Palancos deitura eman zieten, orain Gorigitxi etxekeok daroatena. Beste batzuek diote, Olabarriko alaba haurdun zela jentilengandik, eta haren haurra “aita barikoa” zelako, berari eman ziotela Hierro-Palancos abizena (Arana, 1996: 254, moldatua).

Jentilen kondaira hauek ere, aurrekoek legez, emazteen kontrako sexu bortizkeria azaltzen dute, eta aita ezezagunen haurren arazoa ere aipatzen; patronimoaren falta nola konpondu ere kezkatzen dira, kontu hori bi aldiz eta bide desberdinetik ekarria baita. Jentilek, beren gazteluan, nagusikeriak eta gehiegikeriak jasanarazi zizkieten laborariei, heroi baserritar batzuk oldartu eta garaitu zitzaaien arte. Ekintzak, auzo harreman baino areago, tiranoen kontrako borrokaren itxura hartzen du, iraultza batena, nonbait. Beste mundukoek egin ohi dituzten bahiketa misteriosuek mundu honetako agintedunek menpekoekin erabiltzen duten zapalkuntza nabaria oroitarazten dute: mitoa eta politika elkartzen dira.

IX. MITOA ETA IDEOLOGIA

Kontua da luzaz bizirik egon dela laminek eta jentilen sinestea, mitoen arabera aspaldian suntsituak izan arren. Orozkon jentil guztiak akabatu zituztela aldarrikatu arren, haitzuloaren barne-barnean sartu edo ihes egin zutela diote, esan nahi baita berriz etor litezkeela. “Herioa” kapituluan ikusi da Olabarriko anaiek gazteluaren hormen azpian ehortzi zituztenean, ale ereinak bezala geratu zirela eta, sinbolikoki, ernaberritzen ahal zirela. Non ez dituen beren haurrak iraunarazten, hark sortu askazi berrian.

Jauntzarrak hilak direla, bai, baina beharbada ez betiko, iradokitzen dute kondairek. Ulertzekoa dena, jentilen irudia ez baita alde bat ezkorra: izaki jokariak ziren, gerla tresnak ere (kanoi-bolak) pilota gisa erabiltzen zituztenak; eta eroso bizi zirenak, lan egin gabe, etzanaldia egiten itzalpean. Zanpatzaile horiek eder, nagi eta aberatsak dira, urrezko garaiaren adierazgarri, ametsetako paradisuko biztanleak. Ez da harritzeko haien nostalgia sentitzen bada, ez baditugu erabat eta sekulako suntsitu nahi.

Eta horrela baldin bada, oso arazo larria pausatzen zaigu: mitoek – sinboloek - zer eragin duten zapalkuntzaren onarpenean, noraino egiten ahal duten alienazioaren alde. Printzesa eder bat auto istripuz hil zenean, 1997an, mundua konmozionatu zela ikusi genuen, eta horretaz gogoetak egin ziren. Printze kastakoak eta aberats okituak menperatzaileetakoak izaten dira eta, dakigunez, besteen lanaren bizkar bizi dira. Hargatik, zenbat negar ez zuten pobreek egin *lady* hil harengatik! Morin soziologoak (*Libération*, 1997-IX-2) azaldu zigun mekanismoa: olinpotar modernoek goi mailako bizitzak ilusitzen gaitu, haiengan proiektatzen ditugulako geuk betetzen ahal ez ditugun nahikariak: gure aspirazioak hazten ditugu guk, eta haiek beren bizitzaz elikatzen gaituzte. Denok sartuak gara alienazio horren sarean, hein batean bederen. Eta irudimena arlo hauta baita ideologiaren erro sakonen aztertzeko, galdera egiten du Augé-k (1979: 123-125), sinboloen hizkuntza ez ote den nahitaez politikoa, eta ez ote den antropologiaren helburua botere-harremanen erakustea eta harreman horien gauzatzeko baliatzen diren mekanismoen nabarmentzea. Bikoitza baita agintea, aldi berean sinbolikoa eta ideologikoa, pertsonari berari doazkion sinboloek (kosmologiak eta kosmogoniak, kasu) hauxe besterik ez diote irakasten: bakoitzak bere lekua zein den ezagut eta onar dezan. Zentzu horretan, jadanik sinboloan berean dago ideologia.

Askatasuneko bidean baditugu kanpoko oztopoak, baina gainditzeko gaitzenak barnekoak dirateke, eta baliteke libertatea lortzea baino zailagoa izatea haren xerkatzea bera. Laminak bezain bikoitzak izaten ahal gara, menpekotasunaren lokarriak onartzen ditugu anitzetan, jaretasunaren ederra goraiatzeko dugularik.

MUSIKA

° Sarreran, Haendel-en *Serse* operako “Va godendo, vezzoso e bello quel ruscello, la libertà” aria, Barbara Hendricks-ek kantatua, Jean-Claude Malgoire-k zuzendu bertsiotan, “La Grande Ecurie et la Chambre du Roi” taldearekin. Bertsiotik horren ezean,

<https://www.youtube.com/watch?v=7VA6S-OJ7fU>

° Ur bazterreko laminei begira, Hiru Truku-en: “Orbela airez aire”.

<https://www.youtube.com/watch?v=KCM974iT7pl>

° Mixel Bedaxagarren “Gerezitziak lilitan” kantuan ere laminak aipatzen dira.

<http://mp3red.cc/3317808/jean-mixel-bedaxagar-gerezitziak-lilitan.html>

° Laminen emagina eta elkarren laguntza direla eta, Beatles-en, “Help!”

<https://www.youtube.com/watch?v=ZNahS3OHPwA>

° *Novecento* (1900) filmeko Ennio Morricone-ren doinua, iraultzaren aipamenarekin batera.

<https://www.youtube.com/watch?v=hsBo3rN6Z1M>

° Eta, askatasunaren eta lokarri goxoen arteko dileman bururatzeko, “Quei dolci lacci snodar non puoi, che mi legaro la libertà” hitzak, berriro *Serse* operako aria batean: “ Se l’idol moi rapir mi vuoi “.

<https://www.youtube.com/watch?v=0xYiPw4cWSg>

IV. kapitulua

URAREN AIPAMENA HAINBAT MITOTAN⁵

Ura oso gai garrantzitsua baita bizidunentzat, bizirik ez baita urik gabe, berezkoa da haren inguruan sinboloak, irudiak eta gogoetak anitz izatea, bai antzina eta bai orain ere. Horren froga dira, tradizio zaharrear, uraren erabilera erritualak, bai solstizioetan (Eguberrin zein Jondone Joane bezperan), eta hain ugari diren iturri sendagarrietan. Baina ez ditugu horiek ikertuko hemen, baizik eta, heriotzari buruz egin bezala, mitoetan kontaktzen zaigun ura, istorio batzuetan agertzen dena bederen. Ur horri begiratzeko, eta doi bat sailkatzeko, parametro hauek izango ditugu kontuan:

- * Goiko edo zeruko ura / beheko edo erreko ura
- * Ur naturala / ur tekniko (ura baliatzeko bideak)
- * Ur sinbolikoa / ur pragmatikoa

Banaketa hauek gaur egunean ere indarrean daude. Ur sinbolikoa etengabe azaltzen zaigu publizitatean, gorputzaren barrua, hesteak eta gibela garbitzeko ei duen bertutea dela-eta. Goiko eta beheko uren bereizketa nornahik ikusten du, baita aseguru konpainiek ere, adibidez 1983ko uholdeetan behekoak egiten zituen kalteak ez ordaintzeko, goikoenak baizik ez zituelakoan estaltzen polizak.

I. BEHEKO UR SINBOLIKOA: LAMINAK

Lurpekoak eta uretakoak dira laminak, erreka ondoan egoten direla ikusi dugu aurreko kapituluan, haitzuloa ere gertu dutela; eta asko dira haien izena daramaten ibai bazter edo iturri aldeak. Donostiritik Heletako bidean, ezkerrean, Aatzeluze eta Herausu hegien azpian den Uhdain sortzen da Arberua, eta han, goitik behera doan lur-banda berde bati “Laminabidea” deitzen diote (Barandiaran, 1962: 85). Garazin, Laminosin izeneko erreka bada, Buzunarrizetik Bunuzera doana eta gero Biduzen sartzen dena. Lapurdin ere, Senperen, ur azpian dute egoitza laminek. Iturrietan agertzen dira Zuberoakoak (Cerquand 1986: 49 eta 53), hala nola Eskiulan, *Juliana iturriko lllamina* eta *Andrettoko iturriko lllaminak* deitu kondairetan; eta berdin Gotaineko honetan:

⁵ GURE IRRATIko mintzaldia, 1998ko abenduaren 23an.

Lamiosenearen nagusia, Salharang, joaiten da goiz batez bere lürraren ikustera. Soro hartan bazen ütür-begi bat. Hara üllantzearekin (*hurbiltzearekin*) ikusten dü andere eder bat ari zela bere biloaren leintatzen (*lehuntzen*); bena andere eder harek ere ikusten dü gizona ber denboran, eta galtzen zako bistatik, ürtü balitz bezala. Heltzen da (*Salharang*) anderea zen leküalat eta edireiten (*idoroten, aurkitzen*) dü ütürri kantian ürre orraze eder bat. Hartzen dü eta ekarten etxera.

Biharamenean joaiten da soroala eta espantatürik da ikustez hogoita hamar mila organta harriz beterik düela soroa. Ützültzen da etxera eta lehiatzen da orrazearen bere leküan ezartzera. Hirugarren goiztirinean berriz joaiten da ohiko soroala eta edireiten dü harri bat ere gabe, lehen zen bezala. Bena orrazea ez zen han (Cerquand, 1996: 45-46, moldatua).

Bizkaian ere ur bazterrean ikusten dira laminak gehien bat, orrazten edo arropa ederrak garbitzen eta eguzkitan xukatzen: urrezko orrazia eta lihozko oihal finak izaten dira haien ontasun preziatuenak. Toki, eginkizun eta objektu horien edukin sinbolikoa elkarrekin nola uztartzen diren ikusiko dugu hurrengo lerroetan.

Orrazten diren laminak egunez ikusten dira. Baina badira gauezkoak, ikusi gabe entzuten direnak. Izurako Casaubon anderea oroit da nola amamak erraten zion berak entzuten zituela laminak gauaz etxeari hurbil, latsan ari zirelarik lthurbeltzeko latsarrietan; sinesten ez zutenek pentsatzen zuten jende pobreak zirela, aldatzeko soinekorik izan ez eta, besteen aitzinean beren eskasia ez erakusteko, gauaz ikuzten zituztela arropak, biharamunean janzten ahal izateko. Baina lthurbeltz hura ez zen arrunta: haurrek erraten zuten atso zahar bat ikusia zutela han, altzoan zeukan apo baten ferekatzen ari, eta sorgina zela.

Urepelen ere entzuten zituztela gaueko latsariak diosku Barandiaranek (1973a: 426), eta lholdiko norbaitek 1937an erran zion: “San Bladiko errekaño batean xarta, xarta, xarta, latsariak gauaz ari nihaurek entzun nitzin” (1984: 119).

Euskal Herriko gaueko latsariek kalterik egiten dutela ez dut entzun. Baina uraren gaueko alderdi ilunak galbide zerbait iragarri ohi du, eta Okzitanian esplizituki irudikatu dute, *drac* deitzen duten izakiaren bidez. Gaskoniako *drac* hori gauez aritzen da latsan: Lecturatik etxera berandu zebilen gizon batek entzun zuen arropa jotzen, eta hark, haserreturik, dena lohiztaturik ezarri zuen (Sébillot, 1968 II: 424). Gaiztoago da Rhône ibaiko *drac*-a, ibiltariak erakartzen eta jan egiten baititu, jende haragiaz elikatzen da-eta (ibid.: 343). Britainiako gaueko latsariak, hain arriskutsuak izan barik, ez dira batere gisakoak. Haien ondoan pasatzen direnei eskatzen diete arropa xukatzen laguntzeko: ezetz ihardesten dutenak itotzen dituzte, eta gogo txarrez laguntza ematea onartzen dutenei, haiekin arropa bihurtzen hasi eta, besoak bihurrikatzen dizkiete.

II. PARTE TXARREKO ZALDIAK

Ibaiek duten beste “parte txarreko” batzuk zaldi itxurakoak dira. Zeberioako emazte baten aitita medikuaren sarien biltzera abiatu zen, goizeko lauak edo bostetan, eta zaldi-hotsak entzun zituen parrokia ondoan den errotako antepara aldean; beldurtuta aitarena egin zuen eta ikusi zuen zaldi bat lauoinka, gainean gizon bat zeramala, anteparako urean sartzen zalduna eta guzti (Etxebarria, 1995: 173). Orozkon ere eman didate antzeko behorren berri, baina hangoak, uretara sartu barik, itzelezko txinpartaka eta txispa-hotsean hasten dira, zaldunak gaineratik botatzen (Arana, 1996: 173).

Auverniako *drac*-a zaldi zuri ederra da: jendeei haren gainera igoteko gomita egiten die, baita bere bizkarra luzatu ere asko igo daitezten... eta gainean dituenen lasterka abiatzen da eta denok botatzen ditu uretara, hantxe ito daitezten edo bederen nahigabeko bainua har dezaten (Sébillot, 1968 II: 356). Horrelako zaldia Malet deitzen dute Poitou herrialdean eta Bayart Ardenetan (Frantzian zein Belgikan); bere jauzi ikaragarriengatik da ezaguna, batez ere (Dontenville, 1998: 180).

Gipuzkoan eta Nafarroan ez dut horrelako zaldiren berri aurkitu. Zuberotarrek *Les quatre fils Aymon* pastoral zaharrari esker ezagutzen dute Bayart, hura baita “Aymon-en lau semeak” bere gainean eramaten dituen zaldi bizkar luzakorra. Erdi Aroko poema epiko frantziar batetik hartua da gaia, hartan folklorea eta pertsonaia historikoak uztartuak baitira. Esan dezakegu, modu batez edo bestez, zaldi sorginaren tradizioa Zuberoan eta Bizkaian aurkitzen dela, eta Belgikaraino zabaltzen dela.

III. URA ETA DENBORA

Egunezko laminen inguruan azaltzen den urak, gauekoak haina arrisku ekarri gabe, badu durduzagarri zerbait. Heraklitok haren etengabeko isurtzea nabarmendu du, eta gibelera joan ezina. Irudimenarentzat gure bizitza da batez ere ihesi joaten, eta haren ibiltzea mila aldiz alderatua izan zaio ibaiari, denbora iheskorak erremediorik gabe darama-eta heriotzara.

Kurritzen den uraren ondoan egoten dira laminak orrazten ari, biloa eta ura sinbolikoki lotuak baitira: bataren kizkurak eta bestearen uhintxoak antzekoak dira, eta adats luzea ur-jauzien metafora izaten da (“zaldi buztan” izena ematen zaie usu). Ofeliaren irudiak, itorik eta ilea urean zabaldurik duela, adierazten du uraren hilgarritasuna, beti galbide guztien sinboloa, bere substantzian bertan daukalakoan herioa (Bachelard, 1942: 114, eta 122).

Biloa, ilea eta haria pareka daitezke; buruko biloa orrazten den bezala orrazten dira artilea eta lihoa, orrazi edo txarrantxa deitzen den tresnaz; biloa apaintzea eta oihal (edo ehun) ekoiztea eginkizun baliokideak dira sinbolikoki. Hots “ehuteko eta iruteko tresnak edo beraien ekoizkinak bilakaeraren sinbolo unibertsalak dira”, Moiren eta Parken atributuak (Durand, 1969: 369). Haria bera denboraren metafora izan daiteke, jende-denborarena bereziki; hainbestearino non batzuek uste baitute bekatu handia dela Olio Saindua hartu duen eri baten aurrean irutea, hilko bailitzateke, hil ere, lana eten edo haria hautsiko balitz (Belmont, 1984b). Esakera zenbaitek adierazten dute ideia bera: “haren bizia hari bati datxekio”, “bizitzaren harian”.

Urak eta biloak, biok elkarrekin eta erredundanteak direnean, azkarki irudikatzen dute denboraren iragatea. Lamina orraztarien esanahia indartzen dute lamina latsariek, garbitzen dituzten arropen metonimiaren loturaz bideratzen dutelarik ehuntza, iruntza eta hariaren sinbologia, uraren sinbologiari gaineratu.

IV. URA, ILEA ETA SUGEAK

Beste modu batez ere batzen dira ura eta biloa: Euskal Herriko lau aldeetan, eta Europan oro har, esaten izan da urean erortzen diren ileak suge bilakatzen ahal direla. Gorgonaren buruak adierazten du ilearen eta sugearen lotura. Balizko suge horietatik ura garbitzeko, edan aitzin “Jesus” esan behar zela zioten antzina (Azkue, 1959: 263). Ur naturala arriskutsua den ustea oso errotua zen: Ahüzkiko artzainek zioten, bortuan zirelarik eta iturriko ura ekartzen zenean, pegarra pausatu baino lehen “Benedicamus” erran behar zela, bestela ura ez zela xahü (garbi) (*E. Egunkaria*, 1995-IV-18). Urdiñarbeko Pethiri Berrogainek istorio polita kontatu zigun ohidura horren gainean:

Bortian mutikoek dute urka joateko lana egiten. Behin mutiko gazte batek ez zekien erran behar zuela “Benedicamus”, ekartzen zuen ura eta ez zuen deus erraiten. Eta artzainek:

-Ura ez dük xahü, behar dük arra-joan, are!

Eta pegarra hustu. Arra-joaiten da mutikoa, berriz jin, eta berriz ur hura ez zela xahü eta ixurtzen zioten.

Gero beste artzain lagun bat hor zen, mutikoa ikusten negarrez eta:

-To, zer agitzen zaik?

-Eta ura eramaiten dit eta, ez dela aski xahü, ixurten ditaziet.

-Bai, to! Bon... Erran duka “Benedicamus”?

-Ez, ez nakizün.

-Bon, bete ezak pegarra eta ezar ezak lau ardi-babaka barnen, eta gero, sartzen, erran ezak: “Benedicamus”“.

Eta hala egiten du, sartzen erraiten du:

-Benedicamus!

A! eta.

- “Gratias” - besteek erran.

Gero hasi ziren han edaten:

-Hau ur hona!

Eta denak kontent.

Nago Zuberoan ere ez ote duten sugeek kutsatzen ura. Eta berriz biloetara itzuliz: Tirolen eta Eskozian ziotenez, sorginek bere burua orraztean ateratzen dituzten ileek ekaitza ekartzen dute (Frazer 1981: 639, ikus “Emazteak II” kapitulua). Lapurdin bazen sinestea euriko urak sugeak eramaten zituela berekin itsasora (Barandiaran, 1973b: 417). Tximistak zeruko sugeak dira Amerindioen irudietan, sigi-sagaz marrazkituak, eta sigi-saga berdinak dira ibaietako uraren ikur grafikoak. Horrela zirkulu sinbolikoa hesten da: ura > biloa > sugea > euria (ura).

Preseski, euria egiten duen Anbotoko Anderea ere orrazten agertzen da batzuetan (Barandiaran, 1972: 288). Harekin batera abiatuko gara errekatik zeru aldera, beheko uretik goiko urera, eta ikuspide oso pragmatikotik begiratuko diogu aldi honetan.

V. GOIKO UR NATURALA ETA EKAITZA: ANDEREA

Zeruko ura baikorra da, lurra emankor izan dadin beharrezkoa den aldetik; baina alde txarra ere badu, triskantza handiak egin baititzake, ekaitzak ekarri eta harri moduan botata, uztak zehatzen dituenean. Jendeen bizitzan euriak eta aro ederrak duten eragina dela eta, lehen kapituluan ikusi da mitologian ere zer garrantzia duten meteorologia gobernatzen duten dibinitate ekaitzegileek. Pertsonaia horietarik bi bakarrik aipatuko dira hemen: ekaitzeko zaldun deabruzkoa eta Anbotoko Anderea.

Anderearen jatorriaz kontatzen diren istorioetako batek dio neskatila ederra zela eta beti orrazten egoten zela; amak, haserre, biraoa bota zion: “Tximistak eramango al hau!” Eta bai eraman egin zuen airean. Geroztik gelditu gabe dabilela esaten zuten, mendi batetik bestera su eta gar, ihurtzuriaren artean. Andere hori dagoen lekuan euria egiten duela entzun dute Zeanurin (Etxebarria, 1995: 268); harri jasak ere eragiten ditu, edo berdin idortek, Oñatin (Barandiaran, 1961: 31), eta bere harpeko sarreran konjurtzera joaten ziren apezak urtero, errogazio garaian, kazkabar egin ez zezan.

Irati Salbatoreko Saindiaren sorrerak eta eginkizunak Anbotoko Anderearenak oroitarazten dituzte. Gogora dezagun Amikuze Bithiriñako neska hura airean hartua izan zela diruagatik pario egin zuelako gauaz eta gero etxeko morroiak haren kontra ihaurti zuelako madarikazioa: “Deabruak eraman baleza bederen!” Izpiritu gaiztoak eraman zuen orduan. Baina Anbotoko Anderea bezala betiko kondenatua gelditu gabe, salbatua izan zen, Salbatore otoiztu baitzuen, eta hark entzun. Halere, ekaitzegile izateko zuen bokazioa ezagun zaio Saindiari, ematen zaion gurtzan. Edo hobeto esanda, ematen ez zaionean: bithirindarrek bi aldiz huts egin omen zuten Salbatoreko beila eta, bietan, harri-jasak suntsitu zituen herriko uztak. Aspaldi honetan galdua da amikuztarren beilaren ohitura, baina Mendiben ez dute ahantzi Saindiaren boterea, eta bertako batek hala gaztigatu zien bithirindarrei: “Orai ez zizte gehiago Salbatorera joaten eta harriak xehatiak zizte ziek Bithiriñan!”.

VI. EKAITZ ZALDUNA

Beste itxura antropomorfoa hartzen dute gurean ekaitzegileek, zaldun dotore batena. Pertsonaia mefistofelikoa da, deabruzko izaki dela igartzen da kondairetan, deabrua bera ez denean. Ekaitza deabruak egin den ideia Antzinako Mesopotamian aurkitzen da jadanik, eta oso zabaldua izan da Europan, kristianismoak bereganatua: *Legenda Aurea*-n, XIII. mendeko liburuan (1967: 353, 363), irakur daiteke Jesukristo zerura joan zenean aireko deabruak ihes egin zutela ikaratuta. Hain zuzen, aireko ekaitzegile horiek haizatzea da Asentsio aurrean egiten diren errogatiben helburu bat. Dibinitate ortzigileak deabruak asimilatuak izan dira, biok eginkizun bera dutelarik, eta horietakoa dugu gure mitologian deabruzko zalduna. Anderearen haurra da legenda batzuetan, alabaina.

Gipuzkoako Beasainen diote Muruko Dama ekaitzegileak bi seme ukan zituela, bata deabruzkoa eta bestea apeza, eta elkar borrokatu zutela gero biek (Barandiaran, 1973a: 438). Apez konjurtzaileak eta deabru ekaitzegileak osatu bikotea, beti anaiena ez bada ere, toki anitzetan atzematen da, eta apezari Atsular deitzen diote Sara aldean (ikus “Ekaitzegileak” kapitulua): *Gero*-ren idazlearen izena eman diote konjurtzaileari, prozedura aski arrunta erabiliz, hau da, tema mitiko bat pertsonaia historiko bati eratxikiz eta harengan berraragitzen. Iruñerrian Atarrabiori jantzi zioten mitoa, hura ere pertsonaia historikoa, XIV. mendeko frantziskotar jakintsua. Eta Orozkon ere bada holakorik:

Abade bat Orozkon paseoan - liburua eskuan ibiltzen zirean, asko - eta zaldun bat agertu ei jakon ondoan. Abadeak esan eutsen:

-Zer garitza ederrak, zer uzta ederra!

-Bai, uzta ederra. Baia zaldiak bere ederrak neuk horreek apurtuteko.

-Neuk bere frenoak ederrak horreek paretako.

Hasi zen hodeia eta harria!... Eta abadea liburuan otoitzak esaten eta bedeinkazioak. Eta paratu euan hodeia. Batzuk diote landatu barik egoen larra batean bota euala harria.

Osterantzean, abadeak maiatzaren 3ko Gurutzetik irailaren 14ko Gurutzeraino, domeka guztietan meza ostean hodeia bedeinkatuten euan, eta sakristauak kanpaiak jo. Holango baten, abadea eta monagilloa Olarteko eleiz-portalean, hodeia sano etorren eta, monagilloak estoleari eutsi gura eutsen, horrelan ikusten ei zirean (*hodeian zabiltzaten deabruak edo*). Abadea larri, bedeinkatu eta bedeinkatu, monagilloari esaten ez itxiteko estoleari gero, ezpabere eroaten eudien (*deabruak*); eta izerdi botetan, ezin euan hodeia paratu: etorten ei zirean arantzazko itxituraraino umea eskatuten. Azkenean, zapata bat sakadiz eukan abadeak, hodeiari ha bota eta atzera egin euen. Gero mutikoari galdegin eutsen abade harek:

-Zer ikusi dok ba?

-Ene! Etorten izan diraz ahuntzak, baia adar tzarrakaz... bat etorri eta bestea joan, eta bat etorri eta bestea joan (*arantzazko itxituraraino etortzen*) - ikaratuta umea.

-Ba gehiago kostatu jatak hodeia paratuten baino heu defenditan.

Gero zapata artzainek topatu Gorbeian; orduan zapatarik inork eroan ez eta:

-Hau abadearena izan behar dok.

Eta abadeari eroan. Baia harek esan:

-Ez, nirea ez da hori, emon egin dot eta.

Eta abade horrek ez ei eutson inori gehiago estolarik emon (Arana, 1996: 306, laburtua).

Tipo bereko kondaira, Sarakoa, aipatua da ekaitzegileen kapituluan, eta hirugarren bat ere, Ezterenzubikoa, azalduko da "Apezak" kapituluan. Ekaitzaren aurkako borroka mintzagai duten mito hauek ekonomiaren gaineko kezka gogoetatzen dituzte, besteak beste: uzta ona biltzeko behar den euri goxoaren nahia eta abazuza bortitzaren edo haize suntsitzailearen beldurra.

VII. URA EKARTZEKO TEKNIKA

Behar materialei begiratzen diete beste kondaira batzuek, uraren hornidurak dituen arazo teknikoak azalduz, adibidez. Euskal Herrian eta Gaskonian badira euli itxurako izaki bihurriak, familiariak deituak, edo prakagorriak ("Herioa" kapituluan azalduak), beren jabeentzat lan gaitzak egiten dituztenak. Haietaz pasadizo oso dibertigarriak kontatzen dituzte Zuberoan eta Bizkaian. Zuberoako bertsio bat azalduko da "Emazteak I" kapituluan eta hemen *Bahean ura* ikusiko dugu, Orozkon kontatua. Herri horretan oso ezagunak dira Axpuruko abadearen eta haren giltzariaren istorioak, etxe bakoitzak du berea, eta denetarik hartuko dut zerbait, bertsio amankomuna emateko.

Axpuru etzea Untzuetako maldan dago, nahiko gora; hango abadeak familiariak eukazan jostorrazontzi baten gordeta. Giltzariak ikusten euan ugazabak, Muruetan meza emotetik etortze orduan zeozer kuxu (hartu) egiten euala leku batetik. Egun baten sorotzi egin euan abadea eta orratzontzia topatu: zabaldu euan eta dana ei zan euliak eta aparejuak; eta beharra eskatuten eutsien emakume horrerri, beharra. Axpurun beti ur faltan-eta, uretan ipini eudiezan euliak emakumeak. Laster etzeko ontzi guztiak bete eutsiezan, eta atzera bere beharra eskatu, beharra gura eudiela, ausikika eta hegaka emakumearen inguruan.

-Kontsolatuko dodaz -egin euan harek.

Galbahe bat emon eutsien eta hartan ura ekarteko agindu, Nafarrondoko errekatik gora.

Familiariak bahearen zuloak pekorotzez tapatu eta ur gehiago ekarri. Eta uriola Axpurun, urez bururaino.

Giltzariaren senarra etorri eta:

-Zer pasatu da hemen?

-Ba, hau eta hau pasatu da... - andreak.

Eta gizon horrek, euliek beharra eskatu eutsien orduan:

-Topatuko deusiet!

Andreari sabelpoko ulea hartu eta hagaz katea egiteko agindu eutsien. Eta baebiltzen ule horregaz katea egiten, baia ezin. Orduan pakea egin eudien.

Bitartean, abadea meza emoten egoan lekutik igarri euan Axpurun zeozer gertatu zala. Etorri zan arin eta familiariak batu eudiezan eta kutxan sartu. Eta hor bukatu zirean komediak (Arana, 1996: 322-338).

"Sorgin aprendiz" baladarentzat Dukas-ek egin zuen scherzo-aren erritmo furrinta ekartzen digute gogora familiarien joan-jin xoroek. Funtsean oso istorio antzekoak dira Goetherena eta gurea, baina gaia askozaz zaharragoa da, jadanik Samosatako Luziano idazle helenistikoak idatzi zuen hartaz kontu bat, "Gezurzaleak edo sinesgogorra" elkarriketan.

VIII. URA GAINDITZEKO TEKNIKA

Ur-eskasiarako irtenbideak amesten dituzte familiarien mitoek, eta ametsa mikazten da, gaitza baino okerragoa baita erremedioa, uholdea. Ur-eskasiak bezainbeste arazo eragiten du ur gehiegiak, eta horretaz ere badira mitoak. Laminek edo deabruak nola egin zuten zubia esaten digute *Ligiko Zubia*, *Arrosako zubia* (ikus "Emazteak I" kapitulua) eta antzekoak. Hona *Kastrejanako zubia* Orozkon kontatua.:

Neska batek, esne saltzeko, itzuli handia ibili behar euan erreka igoten zanean. Eta halango baten esan euala:

-Egongo balira behintzat deabruren batzuk zubia egiteko hemen, batetik bestera pasetako!

Aktoan agertu deabruak, eta baietz zubia egin eguna argitu baino lehen, neskatoaren arimagaitio. Hasi ziren beharrean, harriak menditik hartu eta hara, ariniketan; eta bazan deabru herren bat, harek besteak baino harri txikerragoak eroan. Neskatoa larri, abadeakana, fraileakana... Ja, gitxi falta zan zubia bukatuteko, eta fraileren batek esan ei euan:

-Ba, hemen kantarazo behar jake oilarrai.

Eta batu ei eudiezan oilar baltza, oilar gorria eta oilar zuria; gero liburuakaz "pla-pla-pla" txaloak egin, kukurruku baino lehen oiloak egiten dauen letxe; eta hori entzun orduan oilarrak kantatu.

- ¿Qué gallo canta? -deabruak.

- Gallo blanco -jendeek.

- Cal y canto -deabruak, eta segi lanean.

Gero gorriaren txanda. Eta berdin, jo aurrera. Azkenean:

- ¿Qué gallo canta?

- Gallo negro.

- ¡Todos los demonios al infierno!

Eta ezin akabatu zubia, harri bat falta. Eta gero euren artean haserretu deabruak, erru guztia herrenarena zala, haren harria falta izan zela eta, hareri palo gero (Arana, 1996: 362-370, laburtua).

Familiariak eta deabru zubigileak antzekoak dira beren joerengatik, eta hori oso nabaria da Orozkon: berriemaile berak kontaturiko bien istoriotako protagonistek modu berdinean inbokatzen dituzte prakagorri ur-ekarleak eta deabru eraikitzaileak (Arana, 1996: 329, 365, 893). Istorioak berak alderantzizkoak dira: lehenetan ur eskasia da arazoa, eta oker irteera ur gehiegizkoa; bigarrenetan, ur gehiegik dakarren oztopoa gainditzeko, zubigintzaren teknika

bilatzen eta aurkitzen ere da. Bietan izaki mitikoeak dakarte konponbidea, txarra edo ona; eta bietan maltzurkeria erabiltzen dute jendeak izaki horietaz baliatzeko. Baina desberdinak dira ondorioak: deabruak erraz engainatzen dira eta, azkenean, dohainik eraikiko dute zubia; zailagoa da familiaren mainei garaitzea, emakume maltzurra baino maltzurragoak dira, bahean ura ekartzen jakin dute, beren nagusigoa erakutsi.

IX. ANIZTASUNA

Bahean ura eta Deabruaren zubia kondairetan uraren alderdi bakar batean jarri dugu arreta. Baina, beste alderdiez gogoetak egin litezke berdin, mito guztietan bezala, nondik eta nola begiratzen diegun. Eta bi istorio hauetan ezinezkoa da *Faust* ez gogoratzea. Pertsonaia horren eite zerbait badute familiardunek: hark letxe, kario ordaintzen dituzte demonio langileen zerbitzuak, ezin hilez edo infernura joanez, prakagorriek ez baitute inor barkatzen, eta ez dira deabru ergelak.

Faust-ekin zerikusia dute zubiaren truke deabruari arima saltzen diotenenek, nahiz eta bi tipoen artean desberdintasun handiak badiren. Zubia barik, boterea eta plazera eskaintzen ditu txerrenak Marlowe-ren eta Goethe-ren bertsiio literario ezkorretan. Askoz baikorragoak dira kristau tradizioko kondairak: XIII. mendeko *Teofiloren mirakulu*-aren bi aleetan, Rutebeuf-ek eta Berceok idatzirik, nola *Legenda Aurea*-koan, Andere Dona Mariak deusezten du deabruarekiko ituna. Eta are optimistagoa da hemen aipatu dugun tradizio herrikoia: Ama Birgina orde oilarra da salbatzailea, apez edo emazte erne baten aholkuari esker. Herri mitologiako deabrua ez da biziki beldurgarria eta bai aski irringarria, kasik pena ematekoa. Nago barreak ez ote duen funtzio garrantzitsu bat bete izan: Elizak eten gabe sakatzen zuen infernuaren beldurra goxatu bide du, larritasuna erlatibizatuz.

Mitologia herrikoiak arimaren salbazioaren ardura eta infernuaren beldurra horrela erabili izanak kristianismoaren eta paganismoaren arteko sinkretismoari begiratzera eramaten gaitu, nola biak uztarturik ibili diren luzez eta, bereziki, nola paganismoak bere printzipioei atxikirik iraun duen: beste erligioari elementuak eta pertsonaiak mailegatzearren, haietan moldaketak egin ditu bere eskema propioetan sarrarazteko. Uraren sinbologiatik urruntzen gara, baina maileguen erabilpen antzekoa nabari dugu gorago, Ama Birgina lamina itxuran aurkitu dugunean ur bazterrean.

Bidenabar, mitoen ikerbide eta esanahi kasik ahituezinez ohartzen ahal gara, urari bakarrik begiraturik haiengana hurbiltzeko bideak eta irizpideak jadanik anitz direlarik. Funtzio sinbolikoaren arloan, arazo existentzialentzako formulazioa eskaintzen dute. Eta hori egiteko, elkarren osagarri diren elementuak edo aurkakoen bikoteak erabiltzen dituztenean, gauzak eta ideiak sailkatzen laguntzen dute, baita kontzeptuekin jokatzeko parada ematen ere.

Ura, bere aldetik, era anitzetan ageri zaigu, bizigarri eta hilgarri, garbi eta zikin, zeruko eta lurreko... Iturri guztietatik atera izanagatik, ez ditugu latsak agortuko, jadanik poeta-kantariak proposatzen digute-eta beste alderdi bat, gogoetan jarraitzen ahal izateko: "Urak dakarrena urak daroa".

MUSIKA

° Benito Lertxundik *Orbaizetako arma-ola*-ri egin doinuaren erreka-hotsak ur naturala eta haren erabilpen teknikoa gogoraraziko dizkigu.

<https://www.youtube.com/watch?v=GVOGfNKgPLc>

° *The Araucanians of Chile* (Playa Sound, Sunset France, 1995) diskoko “Amulem” abestia, laminen kari (soinua ez da sarean aurkitu).

° Zuberoako pastoraletako “Turkoen martxa”, Bayart zaldi sorginarekin batera.

° Ekaitzaren haserrea eta harria irudikatzeko, Shostakovitch-en bibolin bigarren kontzertuko III. mugimenduko bukaera (adagio-allegro)

<https://www.youtube.com/watch?v=RDOORIm6bGw> (20:08 ? minututik eta bereziki 20ra arte)

° Abadea eta hodei zalduna lehian: Shostakovitch, txelorako bigarren kontzertuko III. mugimendua (allegretto).

https://www.youtube.com/watch?v=oEU5y_Qjvpw (bereziki 28. minututik landa, hodeia erretiratu arte)

° Dukas-en “Sorgin aprendiza” scherzo-a, ur ekartzeko familiarien harat-honatak.

<https://www.youtube.com/watch?v=mdHAKNgUAho>

° Bururatzeko, Benito Lertxundik kantatua “Urak dakarrena, urak daroa”.

<https://www.youtube.com/watch?v=cteADkQt8QY>

V. kapitulua

EMAZTEAK EUSKAL MITOLOGIAN - I⁶

Mundu honetako bikoteak

Martxoaren 8an ospatzen dugu orain emazteen eguna. Nafarroako tradizioan, Baztanen eta Erronkarin, otsailean izaten zen, Igande-inaute aitzineko bigarren osteguna edo “sexuagesima”koa, eta *Emakunde* deitzen zioten. *Emakunde* aurreko osteguna, “septuagesima”koa, *Gizakunde* zen, gizonena. Eta ostekoa *Orokunde*, denen eguna, Ostegun Gizona edo “quingagesima”koa (Azkue 1959: 54 eta Caro Baroja 1965: 383). Beste leku askotan ere Inauteriko giroan kokatua da emakumeen besta, bereziki Agata Deunaren egunean: Frantziako eta Espainiako hainbat herritan bereziki ospatzen zuten eguna emazteek, haietarik bat auzapez hautatzen zuten eta batzuetan gizonak gomitatuz, besteetan baztertuz (Varagnac 1948: 87; Caro Baroja 1965: 371-375).

Inauteko giro trufarian onartu du tradizioak emazteen agindua, dena iruntzitara egiten denean, mundua hankaz gora jartzen denean. Osterantzean, ez! Irun-Hondarribiko tradizionalistek, nahitara edo nahi gabe, argudioa baliatu dute esanez beren alardea ez dela Aratuzte, ez dituztela hartan emakumeak gizon-jantzita ikusi nahi, eta horren aitzakian ukatzen diete bestan parte hartzeko eskubidea. Molde erasotzaile harrigarria hartu duen sexismo horrek bazterrak harrotu ditu eta laster kopletan azaldu da: *Dut* taldeak, Fermin Muguruza kantari duela, *Bidasoa Fundamentalista* abestia egin du, eta artistek eman diote fenomenoari merezi duen kalifikatiboa.

Jakina bada ere, gogora dezagun alarde tradizionalistako emazte bakarrak kantinerak direla, bana batailoi bakoitzeko, eta gizonen dutela fusila eskuan desfilatzeko monopolioa. Bizkitartean, egiazko bizitzan, emazteek parte hartzen dute indar armatuetan, ertzaintzan, adibidez, eta, dakigunez, inor ez da horregatik asaldatu. Legeak ez die inongo arlorik edo aktibitaterik debekatzen eta, hemen aginte publiko duten erakundeetan, Eliza Katolikoa soilik ausartzen da berdintasun teorikoa arbuiatzen, emazteei apezgoa debekatzen eta anglikanoek onartzen dutenean haien kontrako anatemak ihautikitzen.

Zergatik uko egin behar dio Aita Santuak justiziaren oinarrizko printzipio bati? Zergatik jende batzuek ezin dute alardean jasan eguneroko bizitzan onartua dena? Besteak beste, honengatik dateke: jaiak, erligioak bezala, edukin sinboliko handia dauka, eta sinbolo mailako aldakuntzak bizitzakoak baino zailagoak dira, sakonki kukutuak daudelako gure subkontzientean, eta iritzi kontzienteak baino kontrolagaitzagoak direlako, arrazoitzeko neketsuak.

⁶ *Gure Imatko* mintzaldia 1999ko otsailearen 10ean.

Preseski, mitologia ere sinboloek osatzen baitute, hartan emazteek zer diren aztertzean ikusten ahal dugu zer leku duten gure tradizioko irudimenean. Horren bidez hobeki igartzen ahalko dugu non diren gure kulturako eta jendarteko oztupoak, zergatik hain gogor irauten duten.

Jende anitz ez da ados izanen hemen esango ditudanekin. Aspaldi honetan eskuin eta ezker entzuten da euskal mitologian euskaldunen behialako “matriarkalismo”aren aztarnak agertzen direla - ez bakarrik mitologian, zuzenbidean eta beste arloetan ere berdin. Esan izan da gure panteoneko dibinitate nagusia Anderea izanik eta lamina femininoak ere ugari, argi adierazia dela emazteek jendarte tradizionallean aginte handia izan dutela. Ez dut uste horrela denik.

Gaia zabala baita, bi ardatzetan garatuko ditut argudioak eta bi ataletan azalduko. Hurrengo kapituluan begiratuko dugu nola dibinitate femininoen izaerak baldintza dezakeen lur gaineko emazteena, ea mundu honetakoen egoera beste mundukoena isla denez. Kapitulu honetan, berriz, gure mitologiako kondairetan agertzen diren emazteei so egingo diegu, zelan ikusiak diren eta zer *status* duten, mende honetako aurrerakoiek errebindikatzen duten berdintasuna erdietsi dutenez, bizitzako edozein arlotan.

I. DEABRUA BAINO AZKARRAGO

Ok Korral taldeak abesten eta amesten zituen “Baserriko neskatilak” oso ausartak ziren amodioan, “berotasun asko daukate gorputzean”, “beti eskatzen” ibiltzen dira eta “baso barrura sartzen dira, basajaun baten bila”. Etsigarri agertzeko arriskuan, esango dut mitoetan alderantziz gertatzen direla gauzak, hau da, betiko moduan: basajaunek eta jentilek dituztela neskatilak bahitzen eta eramaten; neskatilek, aldiz, lehen parada baliatzen dute maitale kartsu horiengandik ihes egiteko (Cerquand, 1986: 17-22; Arana 1996: 256-264). Hargatik, oraingo neska kantariak asmatu inbertsioa, egundaino entzun gabea, ez da gutiago gogoangarria.

Amodio kontuetatik landa, emazteek duten maila neurtzeko gizonen dutenarekin alderatu behar dugu, bereziki gizonekin osatzen dituzten bikoteetan: bietarik zein den adimentsua eta zein xoxoa, zein den nagusia eta zein sehia, zein menperatzailea eta zein menperatua. Istorio zerrenda bat hartuko dugu lagin gisa eta zintzoki egiten saiatuko, norberaren hipotesiaren alde daudenak bakarrik ez aukeratzeko, ororen adierazgarri direnak baizik.

Nire hipotesiaren kontra doa, hain zuzen, lehen istorioa, *Deabruaren alaba* deitua. Biziki luzea da (ikus Barandiaran 1962: 17 eta Arratibel 1995: 88 eta 59) eta oso laburtua azalduko dut. Protagonista deabruaren etxera joan da mutil, eta nagusi horren agindu gauzatu-ezinak bete behar ditu bere burua salbatzeko; zorionez, deabruaren alaba maitemindu da mutilarekin, betebeharretan lagundu du eta harekin ezkondu; deabru-ogroa erasoan joan zaie atzetik, biok hil nahiz, baina gazteek ihes egiten lortzen dute, anderearen magiari esker. Kondaira honetako neska izugarri ahaltsua da, aita bera baino azkarragoa, eta ezkontzea ere haren ekimena da. Baina senarrarekin batera ari baita aitaren kontra, ez da argi bikote adierazkorra aita-alabak diren ala senar-emazteak.

Bigarren kondairak hobeto erakusten ditu emazte baten adimena eta trebezia senarra salbatzeko deabrutik. Baxenabarreko Donostirin kontatu zioten Barandiarani:

Arotz bat bazen ezin bizia. Deabruak erran omen zion hark eginen zaskola lan guziak zortzi egunez, nahi bazien arima hari eman. Baietz, hitz eman omen zakon. Eta gero, denbora joatearekin, gizona triste, deabruak hark eman lan guziak egiten zaskolako.

Emazteari kondatu zakon dena, eta harek pentsatu zuen haren doia: ile-ondo bat burutik idoki eta deabruari emateko, hura xuxen zezan. Deabruak ezin ile hori xuxen, eta suan sartu; ilea erre eta deabruak ezin lana burura. Eta gizonak arima beretako (Barandiaran, 1962: 101).

Delako ile-ondoa burukoa ote zen ala sabelpekoa galdegiteko arrazoiak badira; tipo bereko kondairetan sabelpekoa izaten da (ikus *Bahean ura*, "Ura" kapituluan), hori delako beti kizkurra, ez burukoa: hots, kizkur gabe ez da zuzentzerik, eta zuzentze gabe ez da istoriorik. Menturaz kontalariak aldatu zuen xehetasuna, sexu-areia ezabatzeko Barandiaran apezaren aurrean; baina hain zuzen horrek egiten du esangarri pasadizoa, ideia topikoa baita sexu femininoa bihurria dela, deabrua bera baino bihurriago - eta hortaz, emaztea azkarrago eta deabruzkoago.

Oso antzekoa da *Deabruaren adina* istorioa:

Deabruak aberastu zuen gizon batek haren adina igarri behar zuen bere arima salbatzeko. Zer egin zuen emazteak? Biluztu eta barrika bat ez tigan sartu zen, eta hartarik landa barrika bat lumetan; horrela jantzirik jarri zen ateka batean, bi zangoz goiti. Deabrua etorri eta ozenki egin zuen:

-Honenbeste urte baditiat eta ez diat sekula holakorik ikusi!

Emazteak senarrari salatu eta senarrak deabruari bere adina erran. Gizona aberats eta salbu izan zen (Barandiaran, 1962: 101, Webster, 1993 II: 101, moldatuak).

Zerrenda berean sartzen ahal dugu *Deabruaren zubia* kondaira. "Ura" kapituluan ageri den bertsioan, fraile batek esan zion neskari deabrua nola engainatu eta garaitu, tipo bereko gehienetan gertatzen den legez. Arrosakoan, aldiz, emazteak asmatu zuen irtenbide salbatzailea.

Arrosan zubi bat egin behar zizun hargin nagusi batek. Kontratua egin zuen halako egunean finituko zuela, finitzen ez bazuen hainbertze diru eman behar zuelarik. Ez zizun hargin lagunik edireiten ahal eta hondar eguna heldu zenean triste zagon gizona. Deabrua agertu zakon:

-Zer duk horren ilun izaiteko?

Erran zakon harginak zer zuen, eta deabruak:

-Arima saldu nahi badidak gaur finituko diat zubi hori oilarrak kukurruku egin aitzin.

Harginak baietz, bere odolarekin sinatu zuen kontratua. Gaua heldu zen eta hiru deabru lanean hasi, elgarri harriak ematen eta erraten:

-To Gillen! Indak Gillen! Hartzak Gillen!

Jendeek ikusten zituzten sekulako harriak ekartzen menditik, eta zubia aitzina zoan.

Hargina inoiz baino tristeago, deabruak arima eramango ziola. Emazteak ikusi eta, jakin zuenean zer zuen, ideia bat etorri zitzaion burura.

Oilategira joan zen eskuan argi bat zuela. Oilarrak argia ikusi eta eguzkia zelakoan jauzi batez jeikitzen da, beranta duen beldur: KUKURRUKU!!!

Ordu berean deabruak zubiaren azken harria altxatzen ari ziren, bena kukurrua entzun eta:

-Adio gure pagamentia! - oihu egin zuten.

Eta herots handi batekin ihesi joan ziren, azken harria urera ihautiki eta.

Geroztik nehork ezin izan du harri hori jarri ahal izan, eta Arrosako zubiak orain ere badu harri bat ments (Azkue 1966: 377 eta Cerquand 1996: 31, moldatua).

II. EMAZTE EZ-DEUSAK ETA BIKTIMAK

Familiariak edo prakagorriak askotan azaltzen dira lan honetan, “Herioa”, “Ura” eta “Apezak” kapituluetan. Gogoratuko dugu izaki tiki horiek jostorrazontzian atxikitzen direla eta, askatzen direnean, lan harrigarriak egiten dizkiotela beren jabeari; baina lanik ematen ez bazaie eta askatu dituenak ez badaki nola ontzira atzera bildu, ez dutela bakerik ematen. Orozkoko kondaira gehienetan gizonak dituzte kontrolatzen eta emazteek jasaten. Zuberokoetan emaztea erneago da, bederen Eskiulako *Mendiondoko euliak* deitu bertsioan:

Mendiondon bazüzün (*zen*) etxeko jaun bat, ahuer handi bat, eta halere hanko lanak lehenetarik eginik zütüzün beti. Igante goiz batez, meza denboran haren alor bateko ogiak oro ebakirik ziren. Denak estonaturik zütüzün, emaztea ere mesfido ziozün Mendiondori. Igante batez elizalat joaten zelarik, emazteak ikusi zizün borosta batetan zerbait gorde ziela: hartu zizün eta estutx bat züzün; zabalitzen dizü eta hantik hamar bat illi jalkiten ziotzü, galtatzen:

-Zer egin, zer egin, zer egin?

-Ber xilotik sar!

Eta sartu ziren. Senarrari erran ziozün eta harek aitortu illi hurak zirela hanko lanen egileak.

Hantik aitzina emazteak ere zernahi lan emanik, berahala oro egiten zietzün. Egun batez tormentatzen zizien, beti:

-Lan, lan, lan?

Eman ziezün bahe bat eta erran:

-Zoazte, sotoko barrika hori bete ezazie eiherako nazatik uraren ekartez untzi (*bahe*) huntan: karreatuko düzie etxapeko soroan gora.

Mement baten bürükoz lan hura eginik, han zituzün berriz:

-Lan, lan, lan.

Erran ziozün bere senarrari illi horietaz behar zirela desjabetü. Senarrak:

-Bai, baina behar dizie gaje (*sari*) bedera.

-Hamar antzara etxegaraian baitira, hurak emetzü.

Ber denboran antzara hurak airatü zütützün hodeietara bürüz, eta Mendiondoko illiak ez haboro agertü (Cerquand, 1986: 27, laburtua).

Aldi batean bakarrik entzun dut emazteak prakagorriak kontrolatzen jakin zuela. Osterantzean berriemaile batzuek, gizonek, ohartarazten dute emazteak mirakusiak eta kuxkuxeroak direla; eta, eragiten dituzten txandrioak konpontzeko ezgauzak izanki, nabarmen da gizonen beharra dutela.

Familiariak ekartzen duten akats larriena ezin-hila dela badakigu (ikus "Herioa" kapitulua), haien lanei esker ongi bizi ondoan, hiltzeko unean hil ezin paratzen da jabea, zernahi pairatzen, eta ez du beste erremediorik familiarietaz gabetzea baizik, beste norbaiti emanaz. Komunzki baheari ematen zaizkio, edo abere bati, edo pertsona bati; orduan hartzailea airean abiatzen da familiariak eramana eta inork ez du gehiago ikusten. Orozkon bazen artzain familiardun bat, lasterkari paregabea; bere burua gaixo eta txarto ikusi zuenean, jakin zuen zelan prakagorriez libratu eta kortako ahuntzari eman ei zizkion, jostorrazontzia arranean sartuz (hala esan zuen lehenik berriemaileak), edo ipurdian (berriz kontatu zuenean); nolana ere, berehala airatu zen aberea, eta haren txilina aditzen zuten gero zeruan, baina ez zuten ikusten (Arana 1996: 348, moldatua).

Jakina da ahuntza eta emaztea parekatuak direla gure inguruko kulturetan, esamolde askotan agertzen denez (ibid: 868); Oztibarren (Baxenabarre) "Ahuntza ez da abere, emaztea ez da jende" erraten zuten (Videgain, 1989: 281). Bada, familiariak pertsona bati ematen zaizkionean, pertsona hori emazte izaten da. Orozkon beti, beste familiar hartzaile bat izan omen zen:

Zeberrioko neskatxa bat, Jakoa, Bilbon neskame egon zan; haren aita txarto paratu zan eta hil ezinean, prakagorriak eukazalako; etxekoek bere baekiten zeozer eukala gizonak. Alaba etorri zan Bilbotik eta aitak galdetu eutsen ea onartuko euan berak eukan kutxatxo - familiariena. Alabak baietz. Gizona berehala hil zan. Eta neskatxa egundaino ez zan paretan inon bere ez, beti ibiltzen zan airan: hara airan eta hona airan, karraka (Arana, 1996: 356, laburtua).

Berdintsu gertatu zitzaion Anbotoko Anderea bilakatuko zen neskatxari. Andere hori mendi batetik bestera ibiltzen zen, beti airean; eta familiariak izan zirela kausa zioen aurreko bi kondairak esan zituen orozkoar berak.

Anbotoko Señorea, neskatilla zala, neskazarren bategaz egon zan neskame. Ugazabandre horrek familiariak eukezan, Axpururo Axpean hartuta, eta hil orduan emon eutsiezan neskameari; harek kutxa hartu eta:

-Eskerrik asko. Eta bai, beti ibiliko zara airan -esan eutsen neskazaharrak neskameari-, beti ibiliko zara airan, garra darizula.

Hargatik kondenatu zan neskatxa eta holantxe ibili zan: Anboton egiten euezan zazpi urte eta beste hainbeste Gorbeiako Atxean, Supelegorren (Arana, 1996: 291, laburtua).

Azken bi kondairetan, familiarien hartzaile eta biktimak neskameak eta alabak dira; aldiz haiengandik abantaila atera eta kontrolatzen dituztenak, aita edo ugazabandrea. Ikusia dugu nagusi jaunek edo senarrek baliatzen ahal zituztela gehien bat, neskameek edo emazteek ez dakitelako erabiltze eta berriz atzera biltzen. Maila batean – goikoan – dira senarrak eta nagusiak; beste batean – behekoan – sehiak eta emazteak; ez dugu aurkitu morroia baino gehiago den emazte nagusirik.

Nagusigoa gizatasunean⁷ datzan ustea etengabe sakatzen digute, modu batez edo bestez; esaterako, norbait ohoratu nahi denean “Agur jaunak” abesten diegu errespetu eta goresmena adierazteko, nahiz eta omenduen artean andereak ere izan; batzuek zutiarazi ere egiten gaituzte, jaunkotasuna kartsukiago mirest dezagun. Ez genuke jarriarik egon behar emazteek horrelakoetan?

III. AHAIDE NAGUSIEN LARDERIA

Beti Anbotoko Anderearen sorrerari buruzko kondairetan, hauteman daiteke gizona izatea baldintza nahikoa dela emaztea baino gehiago izateko. Ondoren azalduko diren bikoteetako kide bat Anderea da; eta bestea, hura kondenatzen duen ahaidea. Hona bertsio anitzetan oinarritu laburpena (ikus Barandiaran, 1973a: 400-405; Azkue, 1959: 367 eta 1966: 437; Etxebarria, 1991: 390; Arana, 1996: 792).

Esaten dute neskatilla ederra zela Anbotoko Anderea, bilo horia, eta beti orrazten egoten zela. Horretaz haserretu zitzaion ama eta madarikazioa bota zion: “Ximistak eramango al hau!” Berehala airatu zela su eta gar, ihurtziritan.

⁷ Giza eta gizon sinonimo gisa erabiltzen ditut. Arrazoinak azken kapituluan dira.

Beste batzuek diote emazte ezkondua izan zela Andere hori, eta ez zuela inondik ere elizara joan gura. Egun batez senarrak gurdian sarrarazi zuen estutua eta elizaraino eraman zuen bortxaz; baina elizako atetara heldu eta barrura sartu barik, dena sutan jarri zen, estekak erre zituen eta airean abiatu zen. Geroztik hor dabilela garretan, mendi batetik bestera bueltaka.

Bertsio honen aldaera batek dio eliza maite ez zuen andere horrek neba bat zuela apez, eta hark zuela elizara eroan.

Familiarien kondenari eta Anderearen sorrerari buruzko kondairetako bikotekideak elkarrekin alderatuta, hara zertan diren harremanen korrelazioak: aita/alaba = ugazanderea/neskatoa = ama/alaba = senar/emaztea = neba/arreba. Kondenatua beti emaztea da, eta kondenatzailea nagusia, gurasoa edo gizona.

Merezi du mailakatze hori haztatzea. Normala da aita nagusi izatea alabaren eretzean, eta ama alabaren eretzean: genealogiaren araberako logika da, gurasoak eta haurrak ez baitira berdinak, haien arteko harremana bertikala da. Normala da ugazabandrea nagusi izatea neskamearen eretzean: mailaketa sozio-ekonomikoaren araberako logikan, harreman bertikala da nagusien eta sehien artekoa (instituzioa zuzena edo okerra den kontuan hartu gabe).

Baina ez da normala senarra nagusia izatea emaztearen eretzean, ez eta neba arrebaren eretzean ere; horien arteko harremana ez baita bertikala, horizontala baizik, bai genealogiaren arabera (belaunaldi berekoak) bai eta maila sozio-ekonomikoaren arabera. Senarra eta neba nagusi izateko arrazoi bakarra sexua da, agintea eta maskulinitatea konkomitanteak dira.

Gizonen gailentzeak emazteen ukatze eta izate-eza eragiten du usu. Zenbat aldiz ez dugun entzun ekitaldi publiko batean hizlariak toka egiten, entzule femininorik ez balitz bezala... Oso nabari da fenomeno hori borroka kantuetan, Labegueriek, Monzonek edo bestek eginak: "Euskal semea da gure anaia" (*Euskadiko gaztedi berria*), "Euskal Herria diagu zain (...) gauden denok anai" (*Batasuna*), "Kantazak euskalduna, kantazak hire herria", "Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara" (*Bagare*), etabar.

Anaitasuna dekretatua da denen onurako, berdin inoren anaia izan ez daitezkeen ahizpa edo arrebenzat ere; bitartean 'haurride' edo 'senide' hitz zahar jatorrak galdu ditu euskarak gaurkotua eta berriztatua izan arau; itxura, orok onartua da auzo frantziarrek aldarrikatu duten *fraternité*-ari esker egin duela aurrera Historiak.

IV. ARMAK ETA BIZARRAK

Gizonenak dira historia eta borroka, eta gizonen atributua borrokako armak, nagusigoaren eragile eta sinbolo. Gure tradizioan hala dela igartzen da *Lamina zauritua* istorioan, jadanik agertua zaiguna “Auzo harremanak” kapituluan. Aldi honetan Orozkoko bertsioren laburpena ikusiko dugu.

Emakumeak iruten edo galtzeta egiten geratzen ziren gauaz supazter ondoan, gizonak oheratuta. Lan egin eta beren txirimartxoak egiten zuten, txitxiburruntzi jaten, dena gizonen isilean. Lamina etortzen zitzaien tximiniatik txitxiburruntzi eske, eta emakumeek ematen zioten bakeagatik. Baina gauero gauza bera zen: laminek jana eramaten eta besteek jai zeukaten. Azkenean aspertu ziren eta etxeko gizonari salatu zioten. Eta hark, berak arteztuko zuela lamina hori! Biharamunean emakume jantzi eta iruten jarri zen. Lamina etorri zen eta zeozer igarri zuen:

-Bardatik hona bizarra latzitu zain! Eman txitxiburruntzi!

Gizonak burruntzia suan eman zuen eta goritua zuenean laminari sartu zion, ahotik diote Orozkon, uzkitik Zuberoako istorio zenbaitetan. Eta ez zuten gehiago laminarik izan etxean (Arana 1996: 223-232).

Bertsio batzuetan, lehen aberastu bazen etxe hura, peko erreka jo zuen laminek zapuztu ondoan (Webster, 1993 I: 47). Arnaudin-ek 1877an Gaskoniako Landetan bildu beste batean (1966, 40 zb), etxekanderearen laguna zen lamina eta gizona ohean zegoenean etortzen zen; emazteak arto eta koipe ematen zion gomitari, berak iruten zuen bitartean, eta etxe hura gero eta aberatsago egin zen, laminak oso ahaltsoak ziren eta. Baina senarrak bisiten berri ukan zuen eta ez zitzaion laket; bera gelditu zela iruten erabaki zuen, emaztea ados ez izan arren - emazteak ez baitira beti gizonen aurre egiten ausartzen; lamina etorri zenean, bizarrari ohartu zitzaion, baita gaizki iruteko moduari ere, baina koipea eskatu zion halere, eta kolpatzea izan zen gizonaren erantzuna; jende haiek inoiz baino pobregoa bilakatu ziren eta ez zuten gehiago lamina ikusi.

Emazteak eskaturik edo ez, gizonak dira bertsio gehienetan laminen zaurtzaileak. Bakarrik bi bertsiotan irakurri dut emazteak gerrena hartu eta berak zauritu zuela janaria kentzen zion sorgina edo lamina: bat Barandiaranek (1973a: 493) bildu zuen Eskoriatzan, bestea Gamindek (1997) Elantxoben. Gaineratikoetan, gizonaren esku uzten du emazteak armaren erabiltzea, nahiz eta berak ere egiten ahal zuen, emazteen eginkizuna arma erabiltzea ez delakoan edo. Hainbestearino nabarmentzen da armaren gizatasuna non laminak, zauritua izan zenean, esan baitzuen: “Gizona bizarra laztsu!”, horrela parekatuz burruntzia erredura eta bizarraren zizta. Horrez gain, laminaren zauria esplizituki sexuala da askotan eta Zuberoako bertsio idatzietan uzkie azaltzen bada, ahozkoetan alua ere esaten dela aditu izan dut. Eraso falikoa, dudarik gabe; familiariak falikoki erabiliak diren bezala, izaki eme eta sinbolo feminino baten kontra.

Armak eta sexua bereiztuz, gerla arbuia eta amodioa aukeratzen duten gizonak gutietsiak izan dira gure kulturaren, kasu onenean molde anbiguoak. *Le nozze di Figaro* operan, amodioa hautatu duen Cherubino borrokara bidali dute, eta Figarok barre egiten dio, “Non più

andrai farfallone amoroso” martxa ospetsuan, *Narcisetto Adoncino* deituz; beharrik, *vittoria* eta *gloria militar* trufan erabiliz, sinbolo sakratuak ere doi bat inarrostean ditu.

V. SORGINKERIAREN ANTIDOTOA

Laminak basotik etxeetara etortzen dira emazteekin jatera, tximiniatik sartuta. Ordaritzan, basora joaten dira emazteak, laminen akelarreetan dantzatzera, tximiniatik etxetik jalgirik (ikus “Auzo harremanak” kapitulua). Horrelako bidaia dibertigarriak anitz bertsiotan kontatzen dira Euskal Herriko herrialde guztietan, Santa Garazitik Orozkoraino (Cerquand, 1986: 133-349; Barbier, 1931: 141; Azkue, 1959: 295, 332 eta 381-382, 389; Barandiaran, 1984b: 73-95). Hona Orozkoko bertsiotan oinarritua den bilduma:

Etxe bateko mutila, gau batez zizailuan etzanik erdi lo zelarik, etxekanderea sartu zen, sukaldeko harri lauza bat altzatu, azpian gorderik zegoen kutxatxu batetik unturia hartu eta gorputz guztia hartaz igurtzi zuen. Mutila isilik. Andereak esan:

- Laino guztien azpitik eta berro guztien gainetik, oren bat harata beste bat honata.

Eta tximiniatik gora joan zen, akelarrera buruz. Mutilak ere joan nahi eta berdin egin du, baina alderantziz esan:

- Laino guztien gainetik eta berro guztien azpitik atsoaren gibeletik.

Eta gora eta behera doa gaixoa, lainoa zen lekutik gora, sasia zen lekutik haren azpian: dena eratzita, urraturik, heldu zen akelarrera. Han baziren sorginak dantza eta dantza buruzagi baten (akerraren?) inguruan, eta hantxe zen etxekanderea ere.

Gero buruzagi hori hondorik gabeko aulki batean jarri zen, eta sorgin guztiak pasatzen ziren azpitik, ipurdian muin emateko hari. Gure mutilaren aldia heldu zenean - zapataria zen eta eztena zeraman aldean - muin eman orde eztenaz ziztatu zuen ipurdian. Eta besteak orduan ohikatu:

- Alto el baile! Hemen baten batek bizarrak latzak dituz.

Eta hantxe sakabanatu ziren akelarrean ziren guztiak. Mutila bakarrik geratu zen sasien artean eta goizaldean ahal bezala itzuli zen etxera (Arana, 1996: 200).

Istoria hau aurrekoarekin alderatzekoa da: tximiniatik datozen laminak, “gizona bizarra laztsu” edo “bizarra latzitu zain” esanez, gerren zaurtzaila eta bizarra lotu ditu. Berdin egiten du akelarreko buruzagiak, salbu gerrenaren lekuan eztena dela. Metaforikoki, bizarrek dute akelarrea barreiarazi eta lamina kolpatu. Gizatasunaren sinboloak ditu laminak eta sorginak garaitzen, eta berdin sorgina ugazabandre eta gizona morroi direnean ere, hau da, emaztea maila sozial goragokoa denean.

Esan daiteke gizona dela gure mitologiako kondairetan laminen eta sorginen antidotoa, kontalariek usu azpimarratzen dutena. Emazte senpertar batek bere gurasoek betetzen zuten errituaren berri eman zidan 1999an: haren amatxi Arantzakoa zen eta hura bizi zeno tradizio guztiak atxikitzen zituzten etxean. Esate baterako, haur ukan-eta emaztea ez zen ongi eta ez garbi senarra etxean sartu arte; orduan gizonak emaztearen atorra garbi bat janzen zuen eta berehala emazteari pasatzen zion: arropa hartan bildurik zegoen gizonaren bertuteak emaztea begiratzen zuen aire txarretatik eta horrelakoetatik. Egintza ezin femininoagoa den erditzeak dakartzan alde ezkorrak, ahulezia eta zikina, gizonak erremediatzen ditu, hark daukalakoan garbiaren indarra. Erditzea lohia eta garbitu beharra dela erakusten zuen Elizak “purifikazio”ko erritua eginarazten zienean erdi berriei; eta ideia noraino egoskorra den adierazten du Luiaondon nire gaztaroko pasadizo batek. Haurrak jostetan ari zirelarik, mutiko batek “coña!” esan zuen; neskatilak, holakorik ez esateko gaztigatu zion; mutikoak, berriz, bere burua justifikatzeko: “Amamak ere *coño* esaten du”. Eta neskatilak azkendu: “Bai baina *coña* okerrago da, *coña* erditzen delako” (hitzez hitz: “Coña es peor, porque la coña pare”). Erabateko argudioa.

VI. AMA SORGINA ERRE

Lainoen gainetik eta sasien azpitik akelarrera joaten den mutilak ez ohi du etxekandere sorgina salatzen. Beste kondaira batzuetan, ordea, gupida barik errea izango da sorgina, semeak berak agindurik, ondoko kondaira tipoan bezala:

Herri batean baziren anitz haur gaixo, begizkoak joak omen: herritarrek esaten zuten sorgin batek bota ziola zorte gaiztoa eta sorgin hori abadearen ama zela. Apezek bazuten modu bat sorgina nor den jakiteko: meza eman ondoan liburua zabalik utziz geroz, elizan diren sorginak ezin dira mugitu, paralsiatu bezala gelditzen dira. Horixe egin zuen gure apezak: meza bukatu eta, liburua hetsi barik etxera joan zen. Laster etorri zitzaion neskatoa esanez amaren partez arin elizara itzul zedin eta liburua hetsi zezan. Horrela jakin zuen apezak ama sorgina zuela. Azkueren bertsioak dio (1966: 333) apez horrek ama sorgingabetu zuela, bedeinkazioen bedeinkazioz. Orozkon kontatu didaten bertsioan, berriz, apezak ama errearazi zuen, ulertzekoa dena, sorgina zelako.

Aldi honetan urrun joaten da gizonen nagusikeria: genealogiaren logikaren kontra, semeak ama menperatzen du, hilarazteraino, sorginen kontra zernahi justifikatua bailitzan. Esango digute apezkeriak direla horiek, baina Azkue apezaren bertsioan ez zuten sorgina hil, eta bai andre batek kontatu zuen Orozkokoan (Arana, 1996: 194 eta 632).

Funtsean, seme apezak Orestes-en krimena baizik ez zuen egin, hainbestetan aipatua eta hurrengo kapituluan azalduko dena. Eta makina bat ipuin bukaeratan irakurri dugu protagonistaren amaizun gaiztoa erre zutela - amaizun edo amatxi berdin, sinbolikoki, amaren irudia da beti. Kapituluaren hasieran azaldua den *Deabruaren alaba* istorioan atzematen dugu maila genealogikoaren uzkaileza, aitaren kaltez alabaina; baina arazoa da sorgin erreen ipuinen

misoginia bat datorrela iritzi arrunt batekin, makina bat aldiz entzun behar izan baitugu emazte guztiak nolabait sorginak garela.

Orain eta antzina, Erdi Aroan ere iritzi berekoak ziratekeen, Anjel Lertxundiren “Lilith” ipuineko pertsonaia batek dioenez (*666 Piztiaren izena*): “gonadun guztiak dituk sorgin”. Mitologia, askoren sentimendua eta errealitate soziala bat datozenean, elkar indartzen dute eta ez dezakegu esan ikusmolde kolektiboa bestelakoa dela.

VII. AMA IZUGARRIA ETA ODOL GAIZTOA

Ama sorginaren erretzeak psikoanalisira eramaten gaitu. Ikuspegi horretatik ipuinak analizatu dituen Bettelheim ospetsuak uste du sorgina beti amaren iruditik datorrela, “ama izugarri”aren arketipotik. Sorginen amatasuna “Hansel eta Gretel” ipuinean atzematen du. Bi anai-arrebak basoan galdu eta etxe bat aurkitu zuten; han bizi den sorgin-ogroak abegi hona egin die hurrei, baita hazten ere, ama on batek egin lezakeen bezala; baina bakarrik gizenarazteko eta gero jateko asmoan egiten du. Modu berean, haur tikiak pentsatzen du amak bere nahi guztiak egingo dizkiola, eta gero, Edipo garaian, ohartzen da ez dela hala gertatzen; horregatik sumindurik eta sentimendu bikoitzetan murgildurik, ama ere ez ote den ogro bat sumatzen du. Kontua da, “ama izugarria”aren irudia ez dela soilik haurtzaroko gauza, adin helduan ere mantentzen dela eta sinbolo-konstelazio zabalago eta eragingarri batean kokatua dela, emaztearen odol menstrualaren arketipoaren inguruan: odol hori da ur gaiztoa, hilargiari, heriotzari eta gauaren izuari lotua, denak sinbologia femininoaz tindatuak (Durand, 1969: 110 eta 119).

Irudi misogino horren barnean, haurrak dira biktima hautatuak, eta haurren eriaraztea eta hiltzea da gure tradizioko sorginen eginkizun tipikoa; bada, horixe burutzeko behar den pozoia hileko odolean dago: hala dio *Alberto Magno* deitu magia liburu zaharrak (1981: 67):

Oraino hilekoa duten emazte zaharrek sehasakako hurrei begiratzen dienean, pozoia sartzen diete begien bidez. Hori honengatik gertatzen da: hilekoa duten emazteen odol geldiak eta beste umoreak gorputz guztian hedatzen direlako begietaraino, eta begi horiek airea kutsatzen eta haurrak infektatzen dituztelako.

Zoritxarrez, gehiago hilekorik ez duten emazteek ere infektatzen dituzte haurrak. Nolaz?

Hileroko odolik ez baitute kanporatzen emazte zaharrek, barnean gelditzen zaizkie humore gaizto guztiak eta, zaharrak izanik, ez dute aski bero gorputzean horien erretzeko, bereziki pobre direnek, jaki arruntak jaten baitituzte: horiek besteek baino pozoi gehiago botatzen dute.

Ikusten denez ez da eskapurik: emazte zahar eta txiroa sorgina da halabeharrez. *Alberto Magno* ez da euskal liburua, baina hark seinalatzen dituen ezaugarriak zituzten hemen itxuratu diren sorgin anitzek; Webster-en bildumakoek, adibidez, edo Barandiaranen *Brujeria* liburukoek (1984b); Caro Barojak (1966: 290) kasu bat aipatzen du Nafarroan: Arantzan, aspaldian, karrika

bereko haur batzuk begizkoak joak zirela eta, gizon batek esan zuen karrika horretatik egunero lehena iraganen zen atsoa (ez pertsona) zela gaitzaren eragilea; eta gutik egin zuen emazte xahar bat ez baitzuten erre, jadanik prestatua zuten-eta labea haurren familiako emazteek; eta gizonek salbatu zuten...

Sorginak antzinako jendartean onak zirela eta kristianismoak gaiztotzat harrarazi egin dituela esaten da maiz, baina partean baizik ez da egia: kristianizatuak ez diren herrialde eta kulturetan badira sorgin gaiztoak, hala amerindioen artean nola Ozeaniako irletan. Pertsekuzio basatia kanpotik ekarria bazen ere, sinestea oso bertakoa da.

VIII. HEMEN ERE TXAKURRAK ORTOZIK

Gure mitologian agertzen diren bikoteei begiratuta - salbuespenak salbuespen – ukaezina da emazteak gizonen eragin pean daudela, baita gizonen baino maila genealogikoa eta sozial goragoa dutenean ere. Kondairetako gizon armatu eta emazte desarmatuen arketipoa indarrean da gaur ere, Bidasoako eskualdean inoiz baino bixiago.

Bereziki misoginoak izaten dira sorginen istorioak, eta sorgin kaltegarrietan gizonak guti bezain ugari dira emazteak. Hala izan da inkestatu ditudan lekuetan. Donostirin Barandiaranek egin ikerketan ere sorgin gaiztoa “sorcière” (femininoa) izaten da gehienetan; eta aztia, aldiz, “devin” (maskulinoa), ez da kaltegarria, baizik eta kabala eta gauza galduak non diren asmatzen duena.

Horiek hola, ezinezkoa da ondorioztatzea euskal mitologiak euskaldunen behialako matriarkalismoa erakusten duela; berdintasunetik urrun da eta, orokorki, jendartean atzematen den joera antzekoa da, beharbada doi bat hobea, ez hain desorekatua, gutitan baina noizean behin emazte azkarrak ikusteko parada ematen digu-eta, atea zabalik utziz hobekuntzari.

Jendarte jarrera atzerakoi andanak irauten dute, iraun ere. Jostailu sexisten kontrako hainbeste kanpaina egin eta, 1998-1999ko Eguberriz, hau entzun dugu Baxenabarreko saltoki baten publizitatean: “Neskatilendako *Barbie* panpina, eta jeloskeriarik ez izateko, mutikoentzat *Action-man!*” Preseski, urte hartako *Barbie*-ren atributu berria “trentza magikoa” zen, *Action-man*-ena, aldiz, “basamortuko patruilako” gerla jantziak eta armak: rol banaketa sexistaren laburpen bikaina! Eta gero kontatzen digute naturak dituela bultzatzen neskatilak seduzitzera eta mutikoak borrokatzera. Bitartean, sexuaren arabera, orrazteko adats luzea edo gizon armatua eskaintzen zaie haurrei, haien bidez ikas dezaten beren burua non koka.

Hauek guztiak entzunda, irratiko mintzaldietan galderagile izan zen Maddi Etxeberrik arazoa pausatu zuen: baztertu beharko al ditugu kondaira zaharrak modelo desegokiak eta diskriminatzaileak erakusten dizkielako haurrei? Ez genuen ondorio hori atera nahi eta erabaki genuen mitologia ez dela zakarrantzira botatzekoa, alderantziz; joera sexista nagusia izan arren, salbuespenak ere badirela, eta kondairak anitzak, bertsio eta interpretazio desberdinak

ahalbidetzen dituztenak. Tradizioa ez da dogmatikoa, ez du orientaziorik inposatzen eta bai kontalariari parada ematen berak aukeratu duena kontatzeko berak aukeratu duen moduan, beti aurkituko duelako joera nagusiaren kontra doan ale kontestatarioa. Nork bere esku du orain arteko jokamoldea iraultzea, salbuespena izan dena ohiko bilaka dadin.

Hemengo sexismoa ez baita Ingalaterra victorianokoa eta ez ditugu aditu behar Virginia Woolf-ek jasan zituen tamainako predikari ergelak: "Oscar Browning, Cambridge-ko pertsonaia handiak esan ohi zuen 'edozein motatako azterketa-lanak irakurri ondoan, edozein dela ere lortutako kalifikazioa, beti iruditu zitzaiola emazterik hoberenak gizonik txarrenak baino adimen gutiago zuela'" (*A room of One's Own*).

Nahiz eta larrikeriak ez zaizkigun falta izan: San Frantses Xabierkoak misionest bati bidali zion eskutitza, emazteekin zer jarrera hartu behar zuen aholkatuz, eta bi gauza azpimarratu zituen. Lehen, emazteen gogo-arina dela eta, hobe duela gizonen arima lantzea, gizonen bertutetik baitator emazteena. Bigarrenik, senar-emazteen artean auzi bat denean, sekula ez emaztearen aitzinean aitortzea gizona dela hobendun, haren errua osoa eta nabaria bada ere; osterantzean, gizona zirikatuko du emazteak - beti isekari eta diskrezio gabeak baitira emeak. Horregatik erakutsi behar zaie emazteei nolako errespetu zor dioten senarrari, bai eta gaztigatu ere zein gogorki zigortzen dituen Jainkoak eginbide sakratu hori ahanzten dutenen handiuste eta burgoikeria. Emazteei dagokie ezkontidearen haserreak irenstea eta pazientziaz eramatea, beren desobedientzia eta indiskrezio propioen ondorioz jasaten baitituzte, eta haietaz arranguratzeko beste arrazoinik ez dute, ezpabere behar bezalako izpiritu manukorraren falta (Delumeau-k aipatua, 1978: 324).

Munduan okerrago baden arren, geurea asumitu beharko dugu, argudio lausengarrietan erori gabe, hala nola gure sexismoa ez dela gurea, indoeuoparrek, erromatarrek eta judeo-kristauek ekarri zutela. Holako ustekeriak egiaztatze inongo frogarik ez dugula, ez da polita hobena besteen bizkar ematea, soilik gure nahikariak ferekatze.

Milaka urteko menpekotasunaren ondoan berdintasuna erdiesteak gogoeta serioagoak behar ditu, lortuen gainean lokartu gabe. Hemen eta gaur oraindiko, "kantazan" baino maizago "kantazak" abesten, eta *OK Korral*-ekoek bezala neskek beren amodio pil-pila ahotan hartzea ez da ohikoena, askoz gehiagotan egiten dute gizonen. Emazte trobadorerik bazen XII. mendeko Okzitanian, maitasun kezken kantari. Gizon baino askoz gutiago beti eta, oraingoak bezala, biziki poeta onak ziren haiek ere, Dia-ko kontesa, adibidez, "A chantar m'er de so qu'eu non volria" konposatu zuena.

MUSIKA

° “Dut” taldeak, Fermin Muguruza kantari, “Bidasoa fundamentalista”, giroan sartzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=w4CCLxMiJMk>

° “OK Korral”, 1986 diskoan “Baserriko neskatilak” abestiko hitzak gogoratu: “Nola egiten dute amodio / Baserriko neskatilak, berotasun asko daukate gorputzean / neskatilak jarraitu behar dira. Baso barrura sartzen dira / basajaun bat bilatzera / iluntzean entzuten dira / atsegin intzirak. / Beti eskatzen, beti arra jotzen / beti eskatzen / behin ere ez dira asetzen”.

<https://www.youtube.com/watch?v=b7t1-4DJMHQ>

° Euskaldunen kantu kutuna: “Agur jaunak”, gizatasunaren ohorean.

<https://www.youtube.com/watch?v=d7Z8E-xhYTU>

° Gerlako kantu “birilak”: “Aupa gizona jaiki mutil”, hartan esana baita: “Euskal herria diagu zain, presoak eta hilak ere bai, abertzale izan ezkerro bai gauden denok anai”

https://www.youtube.com/watch?v=M-ieK_s5SW8

° Mozart-en *Le nozze di Figaro* operako “Non più andrai” aria

<https://www.youtube.com/watch?v=HhZ2viQw6Sc>

° Areta Franklin-en “Think”: askatasunaren oihua.

<https://www.youtube.com/watch?v=cGXU7268Z50>

° Comtessa de Dia trobadorearen “A chantar m'er de so qu'eu non volria”.

<https://www.youtube.com/watch?v=5Zah4VWPiNE>

VI. kapitulua

EMAZTEAK EUSKAL MITOLOGIAN - II⁸

Dibinitate femininoak

Gure mitoetan agertzen diren mundu honetako emazteen egoera aztertu ondoan, orain beste mundukoak izango ditugu mintzagai, hau da dibinitate femininoak, ikusi nahiz haien izateak zer ekar diezaiokeen jendeen sozietateari. Ikusia dugu tradizioko kondairetan azaltzen diren emazteak, ez beti baina bai gehienetan, gizonen menpe egoten direla, bai intelektualki, bai sozialki, gizonak dauzkatala agintea eta agintea ekartzen duten armak, bistan dena. Laburzki, emazteek egunero jasaten duten menpekotasuna (Teresa del Vallek ikertu eta nabari duen bezala), gure mito batzuetan ere ageri dela.

Alabaina, euskaltasunaren matriarkalismoa baieztatzeko erabiltzen den argudio bat beste maila batekoa da: berdintasuna, arlo sozialean baino areago, euskal erligio zaharrea azaltzen dela, dibinitate femininoek - Marik bereziki - duten muntan. Alegia, dibinitate nagusia goiandere bat duen jendarteak ez dezakeela emazteak zantatu, eta jatorrizko sistema hori kultura patriarkalista arrotzek dutela deuseztu.

Idea ez da berria. Bachofen antropologoak zioen, *Das Mutterrecht (Amaren legea, 1861)* liburuan, jendediaren eta familiaren bilakaera historikoan amaren legea, lege matriarkala, izango zela lehenbizikoa, *Telurische Urmutter*-en zaindaritzapean jarria zena. Ginekrazia hori sinbolikoki uztartua da gauari, hilargiari, ezkerari, amazonismoari eta lurraren sakontasunari. Preseski, Amazonismoari ihardukitzeko ezarri zen gero aitaren legea, ondorioztatu zuen Bachofen-ek, haren sinboloak direla eguzkia, eskuina, eguna eta izpiritua; eta iraultza hori Greziako mitologian ongi islaturik atzematen du, aita mendekatzeko ama hil zuen Orestes heroia- ren ihardueran bereziki, haren krimenak erakusten baitu Olinpoko Zeusen eskubidea nagusitu zaiela lurreko aginteei, eta printzipio metafisikoa fisikoari. Bachofen-en lana eta Morgan antropologo eboluzionistarena (*Antzinako jendarteak, 1877*) baliatu zituen Engels filosofoak, eta biak integratu bere liburu ospetsuan (*Familiaren, jabego pribatuaren eta estatuaren jatorria, 1884*), matriarkalismoari komunismo primitiboa lotuz eta patriarkalismoari jabego pribatua. Teoria hori marxismo historikoaren elementu garrantzitsua bilakatu zen eta, segur aski, Engels-en bitartez iraun du Bachofen-en hipotesiak XX. mendean.

Teoria eboluzionistak baztertuak dira oraingo antropologia sozialean, nahiz erligio mailan baliteke ordezkatze prozesu zerbait gertatu izana, hau da, Neolito garaian Asia Tikian eta Kretan aurkitzen diren lurreko goiandereak zokoratu izana indoeuroparrek ekarri jainkoek. Dena dela,

⁸ *Gure Imatza*ko mintzaldia, 1999ko martxoaren 10ean

jainko argiek dibinitate feminino ilunak menderatu dituzten ideia nahiko topikoa da, eta Mozart-en *Txirula sorgindua* operan ere aurkitzen dugu: Gaueko Erreginak eta haren bi “aria” famatuen doinuek eta garrasiek, eder eta patetiko, ezin hobeto adierazten dute zer izan daitekeen dibinitate feminino baten destino petrala; bizkitartean, alaba bahitu dion Sarastrok eta haren apez lagunek erreginaren damak ohildu dituzte oihu eginez: “Leku sakratua profanatu da, infernura emazte zikin horiek!” (“Entweiht ist die heilige Schwelle! Hinab mit den Weibern zur Hölle!”).

Arazoa da inola ere ez dela frogatu erligioaren arloan goiandereak nagusi izateak berdintasuna ekartzen duela arlo sozio-politikoan. Hain zuzen, antzinako Mikenas hirian, Orestes-enean, jainkoen ondoan baziren lurreko andereak, garrantzi handikoak, eta gizonek zuten manatzen (Héritier 1996: 211). Baina ez dira antzinateko erligioak gure aztergai, eta hemengoari mugatuko gara, haren dibinitateen izaera nola giltzatzen den lurtarren egoerarekin hautemateko. Eta gaiaren hasieratik hasi.

Barandiaranen ikerketaz geroztik, sekulako garrantzia hartu du Marik gure mitologiari buruzko lanetan: dibinitate nagusia eta antzinateko goiandereen antzekoa dela esaten da. Orain axiomatzat edo hartzen diren baieztapen horiek gogoeta bat baino gehiago merezi dute.

I. ANBOTOKO ANDEREA, AMA LURRA OTE?

“Ekaitzegileak” eta “Mairu” kapituluetan azaldua da zergatik ez ditudan Mari izena eta ez Amalur deitura erabiltzen Anbotoko Anderea eta antzeko goiandereak izendatzeko. Errepikatuko ditut jadanik lehen kapituluaren eginak diren oharrak: Anderea airekoa dela bereziki, gauaz su eta gar pasatzen ikusten zutela, batzuetan tximisten artean, mendi batetik bestera aldatzen zenean, “beti airean” ibiltzera kondenatua baitzen; airekoa da halaber, sai edo bele itxuran, hegaz begizatzen dutenean Bizkaian. Ekaitza, euria eta txingorra eragin ditzake, eta berdin idorteak, greban jartzen denean. Hortaz, hezetasuna baldintzatzen du, eta ondoriozko uzta, ona edo txarra.

Erakutsi nahi izan dut haren eginkizunetan meteorologiak duela jendeentzat garrantzia handiena, ugaltasuna baldintzatzen duelako. Harpeetan baldin badu egoitza -lurpean- beti zeruari hurbil dago, mendian, eta zeruan lan egiten du. Bikoitza dela erraten ahal da, izaki mitikoak ohi diren bezala.

Halere, lurraren sinboloa eta genioa dela, beharbada haren pertsonifikazioa, esaten du Barandiaranek (*Diccionario*); eta Caro Barojak (1966: 293) infernua egoten den Proserpinaren antza duela, hark bezala lurraren emankortasuna baldintzatzen duelako, kontuan hartu gabe euriaren bidez, airetik, egiten duela, Zeusek bezala. Zeusek ere mendiko harpeetan izan zuen egoitza, eta Hesiodok “lurpeko” eta “laborari” gisa kalifikatzen du.

Arranoa zen Zeusen enblema, eta saia Anbotoko Anderearen itxura: jainkoari aitortzen zaion zerutasuna zergatik andereari ukatu? Zergatik anderearen mitoek diotenaren erdia ahanzi eta bakarrik azpimarratu harpeetan bizi dela? Segur aski gure ingurunean indarrean dauden sinbolikoen menpe gaudelako: maskulinoak dira zerua eta airea, femininoa lurra; Antzinateko erligioetan, jainko maskulinoek egina ohi zen euria eta haiek zuten ortzi eta tximisten atributua;

zeruaren gobernuaren beren eskuan daukate eta, irudiz, inor ez da prest monopolio hori zalantzan jartzeko. Horrela “Amalurra” gora eta “Amalurra” behera erabili gaituzte, Andereari tradizioan inoiz eman ez dioten izenburua gorai patuz.

Zalantzan ezarri dira, Aimery Picaud Erdi Aroko beilariaren hitzak ere, alegia, nafarrek Jainkoari Ortzi (Urcia) deitzen zutelako. Ohartu ote dira beilarien bideko Lepoeder gainean den Ortzanzurieta mendia “Orçiren çorita” deitzen zela erdi aroan? Picaud-ek aipatu zuen Urcia maskulinoa zen segur aski, jainkoa deitzen baitzuten; baina txiripa, inguru hartan den santutegi handian, Orreagan, andere bat da nagusi, Ama Birgina; hari otoitz egiten dioten beilariak eguraldi egokia eskatzen ote diote?

Herri tradizioari begiratuta ez da harrigarria emazteek ekaitzak egitea; sorginen lana zela esaten zen, haiek zituztela sortzen jendeei kalte egiteko, eta horretaz akusatu zituen Inkisizioak (Caro Baroja 1966: 117). Tirolen (Frazer, 1981: 639) zioten sorginak orrazten direnean erortzen zaizkien biloek ekaitza eragiten dutela, eta Eskozian indar horren alderdi baikorra baliatzen omen zuten, idortea zenean euria ekartzeko metodo gisa. Badakigu (ikus “Ekaitzegileak” kapitulua) Anbotoko Anderea bere haitzuloaren hegian orrazten agertzen zela maiz eta, neskatxa zelarik ere, horregatik madarikatu zuela amak. Bilo luzearen orraztea emazteen eginkizun tipikoa izanki, ondorioz heldu den ekaitza ere beraiek sortua litzateke. Horixe egiaztatzen du beste sineskera batek: Verdier antropologoak oroitarazten duenez (1979: 64), jadanik Pliniok idatzia zuen hilekoa duten emakumeak abazuza eta ihurtzuria bazterraraz zitzaizkela, biluzik ageriz haiei aurre egiten. Serbian, ekaitza dakarrenean emakumeak bere sexua erakusten dio ortziari, urrunarazteko. Hilekoen eta ekaitzaren arteko lotura sinbolikoa, biei egozten zaien nahasmendua izan litekeela uste du Verdier-ek, entzuna baitu Borgoinan tenpesta aurreko haize beroak eta hilekodun emakumeak ondorio berdina dakartzatela - maionesa bihurtarazi edo gazikiak galarazi; hilekoak ekaitz biologikoa eragiten omen du, hainbestearino non, “une horretan emakumearen gorputzaren barnea ikusi ahal balitz, izugarria litzateke, dena iskanbila eta nahaspila, izenda ezina”.

Hortik datorke neskatilek errogatibetan zeukaten rola, Ama Birginaren ikurraren atzean kantuz ibiltzen zirenean. Lehorrea zenean, neskatxek garbitzen zituzten iturriak, horrek euria ekarriko zuelakoan (Sébillot 1968 II: 223). Verdier-ek (1979: 256) sumatzen du indar handi hori kontrolatzeko izaten direla etxeko alabak hain hestuki begiratzen eta hezten, edozein desbideratze ekiditeko asmoan. Horregatik ote zen hain jasanezina beti orrazten egoten zen neska, indiziplina erakusten zuelako eta bere indarra seduzitzeko erabiltzen, modu asozialetan? Sorginena izan zein neskatilena izan, ekaitza sortzeko ahala ez da ongi ikusia.

Kontu zahar horiek ez direla gehiago sinesten, ohartaraz daiteke. Bada, bai: ekaitzen eta emazteen arteko loturak bizirik dirau gaur egunean. Hurakanek eta zikloiek emazte izena eraman izan dute luzaz, 1979 arte. Mexiko Golkoko haien aztertzen dabilen hegazkin pilotu batek – zientzialari batek - *Libération* egunkarian (1997-VII-29) hala zioen: “Hurakanak izaki kapritxosoak eta bitxiak dira, ezin ulertuzkoak, horregatik ematen zieten emazte izena”. Feministak aldarazi zuten arte. Baina hurakanen gibeletik ibiltzen diren ikertzaileen irudikapenaren arabera, ozeanoko goiandere tropikalak dira orain ere, “liluragarriak beren indar eta izugarritzko handitasunagatik”.

II. ANDEREA, EUSKAL MITOLOGIAKO DIBINITATE NAGUSIA?

Ezinbestekoa da euria, idortea eta uzta manatzen dituen dibinitatea garrantzitsua izatea, eta ulertzekoa da Anboto Anderearen itzala. Baina ez da hura gure eguraldi egile bakarra, ez du funtzio horren eskusibitatea. Bizkaian eta Gipuzkoan baditu bere ondoan ihurtzuria eta harri-erauntsiak egiten dituzten herensugea eta deabruzko zalduna; bi horiek dira Nafarroako eta Iparraldeko ortzigile nagusiak, nahiz eta neska ekaitzegilea ere baden Baxenabarren, Salbatoreko Saindia.

Batzuek nonahi ikusten dute Mari, eta Iparraldean ere atzeman dute, baita “Donamaria” eta “Sainte Marie” izena duten etxe eta toponimoetan ere. Hots, horien eponimoa Ama Birgina da itxura guztien arabera. *Marimania* hain da hedatua non 'mairu' hitza ere Marirekin lotu baituten, oker handiak eginez, besteak beste Mendibeko “Mairu-etxe” “Mari-etxe” bilakaraziz (ikus “Mari” kapitulua).

Eta gero, goianderea benetan dagoen lekuetan ere, ez dago bakarrik, eta ez da esana beste pertsonaiek baino aipamen handiago izan duela: badira laminak, basajauna, mairuak, jentilak, tartaroa, denak munta handikoak berriemaileen gogoan. Marik hartu duen ospe itzela Barandiaranen lanen hedatetik heldu da eta aski berria da: gure “jainkosa” ofiziala aldarrikatua da orain, bilo-horia eta fotogenikoa, ahanztekoa ez dena zinearen garaian. Tradizioan gauza ez da hain nabarmena izan.

Matriarkalismoa erakusteko, Anbotoko Anderearen nagusitasunaz gain, beste dibinitate antropomorfo femininoak ere aipatzen dira, laminak batik bat. Jakina, ugariak dira gure bazterretako laminak, baina ugariak ere irudi maskulinoko izakiak. Euskal Herriko ekialdean gizonak dira lamina zubigileak, Gillen deitzen direnak. Eta genero zehaztu gabeko izakiak ere badira. Dibinitate femininoen aniztasuna ganora gutxiko argudioa da.

III. ZERUAN BEZALA LURREAN ERE?

Eman dezagun baietz, gure mitologiako dibinitate gehienak femininoak direla eta andere bat dutela nagusi. Horrela izanagatik, “beste mundu” mitikoan den egoerak gure mundu honetakoa mana lezake? Hau da, “zeruan bezala lurrean ere”, borondate bat eta bera? Mitoak pentsatzeko tresnak dira eta mitologiak badu zerikusia soziologiarekin, baina bien arteko korrelazioa ez da beti zuzena eta segur da hemengo emazteak ez direla beste munduko kopia: goianderearen gurtzeak ez diela agintea ekarri erakusten du historiak.

Komeni da beharbada berriz ateratzea *Lamina zauritua* kondaira, jadanik agertua lan honetan, “Auzo harremanak” eta “Emazteak I” kapituluetan: lamina kebidetik jausi eta jatekoa eramaten zuen, emazteak salatu-eta gizonak zauritu zuen arte, eta orduetik ez zela gehiago laminarik ageri etxe hartara, bakea ukan zutela. Hala diote bertsio gehienek; guti batzuek zehazten

dute laminak etxaldeko aberastasuna bermatzen zuela eta, etxea zapuztuz geroz, jende horiek pobretu zirela. Kontua da laminek, dibinitate ongileak direnean ere, ezin dutela gizonaren eraso galarazi, eta emazteek eskaintzen dizkien erritu propiziatorioei erantzunez emankortasuna ekartzen badute, berdin, indarrean den ideologia inposatzen zaio mitoari.

Berrikitan, 1998ko abenduan, Pasaiaiko arrantzontzi bat galdu zen Bizkaiko golkoan, bere marinel guztiekin. Tragediaren izugarria eta itsasoko lanjerra zein handia den adierazteko, Pasaiaiko arrantzaleen kofradiako lehendakariak esan zuen: “Itsasoa emazte tzar bat da, emazte traidorea, egun eman egiten dizu eta bihar kentzen” (*El Correo*, 1998-XII-24ko artikuluan: “La mar es una mala mujer, una mujer traicionera que hoy te da y mañana te quita”).

Ez da *jende* tzar bat, baina *emazte* tzar bat, hurakana bezalaxe, aldakorra eta hiltzailea. Noraino eramaten gaituen haize beltzaren sinbologia femininoak. Gizonak irensten dituen itsaso gaitza eta emazteak parekatzeak dibinizatzen ahal bagaitu, ez gaitu batere lagunduko iritzien inertzia astintzen eta justizia lortzen. Ez gara harrituko Antzinateko Grezian Lurreko Anderea gurtu arren emazteek aginterik ez izateaz, gurean ere inork ez lezake pentsa Mexikon edo Hondarribian ez dela matxismorik gero, Guadalupeko Ama Birgina kartsuki gurtzen dutelako. Dibinizatzeak berak ere ez du nahitaez errespetua esan gura; jadanik Gilgamesh heroi sumertarrak irudi misoginoenak erabiltzen zituen Ishtar iraintzeko eta oina zauritzen duen zapata langoa zela jaurti zion behin.

Mircea Eliade erligioen historiagileak dioenez, Mediterraneo inguruko neolitiko eta brontze garaian hain aipatuak diren goiandereak (Mesopotamiako Ishtar, Feniziako Astarte, Greziako Demeter eta Afrodita, Asia-Tikiko Zibeles... denak nahiko antzekoak) biziaren sakratua eta ernaitasunaren misterioa adierazten dituzte, baita kapritxoa eta ankertasuna ere; bizia, indarra, ugaltasuna oparitzen dituzte, bai, baina gerlak eta izurriteak ere. Gehienak biziaren andereak dira eta, aldi berean, herioarenak (Eliade, 1968). Antzeko ideia durduzagarriak betikitzen dituzte poeta oso estimatu batzuek, Rilker-ek adibidez, esaten duenean emazteak bi fruitu daramatza sabelean “haur bat eta herioa” (*Les cahiers de Malte Laurids Brigge*).

Sorburuan kokatzen diren asmoak nolakoak, ondorioak halakoak: gogoeta misoginoetan jaio eta bizi diren goiandereak ez zaizkigu baliatuko, daukaten boterea handia ezin dute ordenamendu soziala artezteko erabili; ez dute horretarako bokazioa eta inork ez die eskatu. Erligioaren irudien esanahia eta eragina neurtzeko orduan, ingurugiro ideologikoa eta ohiturak kontuan hartzekoak dira, elkarrekin dituzten harremanen logika igartzeko; zuzen lotuak edo denak bat direla baieztatzea sinpleegia da.

Halaber, mitoa ez dela historia azpimarratu behar da. Amazonak (gizonik gabe bizi ziren emazte gerlariak) ez dira inoiz izan (Tartaro begibakoitzik ere ez...). Orain arte historian eta geografian zehar ez da azaldu jendarte bakar bat amazonen tipokoa, ez eta sexuen arteko berdintasuna duenik. Badira jendarte matrilokalak eta matrilineariorak, azken hauetan ondoretza amaren bitartez pasatzen baita, batzuetan hura jabea izan gabe, hau da, bere nebatik bere semera iragaten uzten; baina inon ez dute emazteek gizonak bezain beste aginte politiko eta ekonomikorik izan, are gutiago militarra. Dokumentu antropologikoetan azaltzen diren emazteak gizonen pean egon dira, gehiago edo gutiago. Mitologiak aurkezten dizkigun gehienak bezala.

Gerta daiteke, gainera, emazteen ahalek izialdura eragitea eta horregatik oraindiko okerrago tratatuak izatea: bizia emateko ahal biologikoa eta herioa emateko ahal sinbolikoa baldin badituzte, gizonek konpentsazioa bila lezaketek hiltzeko ahal oso erreala duten armak erabiliz. Andereen nagusigo mitikoa beraien aurkako zampaketa justifikatzeko baliatu izan dute gizonek, argudiatuz emazteen aurka erabiltzen duten zapalkuntza neurri prebentiboa baizik ez dela, andereek agintzen zutenean gizonei jasanarazi dizkieten gehiegikeriei eta afruntuei ihardukitzea (Héritier 1996: 216). Gizonen beldurrak eta mesfidantzak bortizkeria ekarri dute kasu txarretan, eta hobereetan erdeinua eta gutiespena. Argienak ere ez dira horrelako aurreiritzitik libratu, eta Mozart-ek berak, bere testamentu ideologikotzat hartua den *Txirula sorgindua* operan, onetsi du libretistaren misoginia larria, garaiko *maçon* "aurrerakoi"en ildoan: Sarastroren apezek Tamino heroiari gatzigatzen diote ezin seriozago: "Bewahret euch vor Weibertücken, Dies ist des Bundes erste Pflicht!" ("Begira ezazu zure burua emazteen jukutrietatik, horixe da gure Ordenaren lehen eginbidea"). Zapaltzaileen leloa, beraiek direla zapalduak.

IV. INTERPRETAZIOAK MITO BALIO DU

Gure jatorrizko matriarkalismo aldarrikatzen tematzen dira euskaldun anitz, eta horretarako ere arrazoiren bat izan behar dute. Sexuen arteko parekotasuna bilatzen dute eta horixe aurkitzen, aurkitu ere. Jendeek sortuak eta jendartearen aldaerei egokituak dira mitoak, eta ahalbidetzen dituzten interpretazioak ere haien berezko osagarri dira. Onartu beharko dugu, tradizioan ez bezala, gaur egungo mitologia matriarkalista izan dadin nahi dela.

Antzina zituen funtzioak eta orain dituenak ez dira berdinak. Orain ez da gehiago sinesten lehen bezala Anbotoko Anderea egiazki bizi dela; horrez gain, doi bat ahanzten da ekaitzak egiten eta eguraldia manatzen ibiltzen zela. Batez ere ez da gehiago gogoratzen kondena baten ondorioz zebilela gelditu ezinik. Baina bai sinetsi nahi da gure jendartearen ez zela sexista Mariren mirakuluz eta, bereziki, geroan ere ez dela izango, mitoaren ikasgaia barneratzen badugu. Hortaz, Mari da gure dibinitate nagusia, egiazki aldi honetan, eta Euskal Herriko leku gehienetan, ezezaguna izan zen tokietan ere, funtzio zehatz bat betearazteko gogoak bizi baitu.

Hala bada, ukalezina da mitoek bizi-bizirik dirautela eta eskaintzen dizkiguten ereduak indarrean daudela, balio izan baitezakete zuzentasunezko proiektu nazional eta soziala eraikitzeko, gure sustraietan oinarrituak. Ez da zertan harritu, askotan gertatu izan da hori historian. Grekoek Homerorengan ikasten zituzten modeloak -edo anti modeloak. Frantziak baditu bere Clovis, bere Jeanne d'Arc, bere Iraultza Handia. Euskal Herrian identitate bila ibilki, pentsamolde propioa aurkitzeko xedea dugu eta, partez, mitologian kausitzen. Auzo herrietan haizu eta zilegi dena zergatik gurean ez? Haiek bezala, gure asmoei egokitzen dizkiegu mitoak, nahi duguna erranarazten diegu, manipulatzeko menturaz. Bego: mitoen naturan eta patuan dago manipulatu izatea, eta ez da horregatik sobera asaldatzeko arrazoirik.

Ez dezagun baieztatu, halere, betidanik esanahi hori izan dutela; soilik onartu mitoek beren bilakaera badutela eta inoiz baino zuzentasunzale eta feministago bihurtarazi ditugula orain, horixe delakoan funtzio berria betetzeko behar duten eitea.

V. LURPEKO AGINTEA?

Logika horretan, halere, paradoxa bat bada, handia. Sexuen arteko berdintasuna lortzeko, sistema sinboliko sexista arbuia behar litzateke. Sistema horretan, preseski, gizonen egokitzaren zaizkie goialdea eta airea, emakumeen behaldea eta lurra; goiak agintea erran nahi du, beheak menpekotasuna, hori adierazten dute bederen 'garaitu' eta 'azpiratu' hitzek. Sinbologia hori nola sortu zen ez dugu hemen aztertuko; kontua da guretzat, emazteentzat, ez dela biziki lagungarri, behearekin batera menpekotasuna suertatzen zaigulako. Mitologia mediterranean zaharrez, lurteko andereekin batera baziren jainko ortzigileak, ekaitzegileak. Hots, ortzantza sumindurari eta bortizkeriari uztartzen zaie eta, euskaraz ere, norbait oso haserretua denean "ortzia bezain kexu" dela erraten da. Antzinateko Ekialde Hurbilean armadari eta gerlariari - hau da aginte militarri - alderatzen zitzairen ortzia. Alde horretan ere, goiandereak lurpeko eta jainkoak zeruko izateak ez gaitu aitzinarazten larderia lortzeko orduan. Aireko goiandereari ere alde txarrak azpimarratzen bazaizkio, kasik ezinbestekoa da gaitzak oro egozteko behar izateko.

Nola ulertu emazteen askatasuna eta berdintasuna erdietsi nahi dituztenok Mari "amalurra" dela errepika dezaten, argia delarik lurpetarra baino areago zerutarra dela? Tradizioan matriarkalismoa bilatu eta horren alde mitologiak eskaintzen digun apurren aurrean begiak hesteak edo agerian denari muntarik ez emateak, ez du zentzu handirik. Zaila da bai, denentzat, erakutsi dizkiguten sinboloen itzulikatzea; horretan bakoitzak gure itsukeria...

VI. LOGOS BARIKOAK

Naturaltzat jotzen eta axioma balira bezala hartzen ditugu gure kulturako irudikapenak, sexu eta generoarekin zerikusia dutenak barne. Eta gehienek eskaintzen diguten klixea da emazteak intuitiboak eta sentiberak garela, liluragarriak eta krudelak, historikoak eta beldurtiak, irrazionalak eta ilogikoak, fidagaitzak eta aldakorak, lurrari, hilargiari eta gauari lotuak; emazteen egitekoa, jakina, bizia ematea da. Gizonen, gerla egiteaz gain, alderantzizko ezaugarriak dituzte: argitasuna, razionalitatea, ausardia, fidagarritasuna; horregatik haien beso sendoa behar dute emazteek bizitzan zuzen ibiliko badira. Eskema berdinarekin gainean finkatzen da Marirengan gure inkontziente kolektibo matriarkalista igartzeko duen teoria:

Euskal kosmo-ikuspegian, *mater-materia* da Mari goianderean haragitzen, eta ez *logos*-a edo arrazoi abstraktua; ez goitik-beherako edo emanazioko mugimenduan, baizik eta petik-gorako edo inmanaziokoan (Ortiz-Osés, Naberanek zitatu, 1998: 86, nik euskaratua).

Menturaz oso asmo zintzoaz pentsatu ideia da, baina betiko zulora amiltzen gaitu: *logos*-a (logika) ukatzen digu, gizonek bai dutena eta, filosofoen arabera Aristoteles-etik Heidegger-aino, animaliak eta jendeak bereizten dituen: horrela, alegia deus ez, pertsona izateko ezaugarria kentzen zaigu, abereekin eta Marirekin batera ontsa naturalak izan gaitezen. Berritasun guti ekartzen digute Marizaleek, generoen banaketaren terminoak beren ohiko lekuan atxikitzen dituztenean.

Zoritxarrez, terminoetan inbertsio gertatzen den gutxietan ere, eguzki feminino eta hilargi maskulino direnean, ez ei da hargatik aldatzen osotasunaren zentzua: Hérítier antropologoaren ustez (1996: 234), gutietsiak dira beti emazteari lotzen zaizkion baloreak, emazteei lotuak direlako hain zuzen; sinboloetatik baino honantzago edo hurbilagoko zerbaitek manatzen dituelako segur aski. Bestalde, ez da dudarik generoa eta haren kategoriak ez direla sexu biologikoari uztartuak, Simone de Beauvoir-ek laburtu zuena erranez “ez dela emazte sortzen, bilakatzen baizik”.

Biologiaren determinismorik ez bada eta hautua kulturala baldin bada, zergatik hautu berdina egiten da beti? Arrazoinak bat baino gehiago dirateke ihardesten du Hérítier-ek (1996: 231-234). Hasteko, “naturaz” ez, baina bai “bortxaz” egiten da aukera, aurre-historian behintzat: haur tikien ama baztertua izan zatekeen ehiza eta gerlatik bizi-baldintzen bortxaz - luzaz eman behar baitzuen titia - eta biltze lanetara mugatuko zen. Eginkizun horiek zergatik ez diren gutiago balioztatuak ez dakigu. Eta gero odolarena bada, hobeto esanda, haren irudikapena: emazteek nahitaez galtzen dute hilerokoa; gizonek nahitara ematen dute gerlan, emazteei debekatzen zaiena. Odolari buruzko fantasmak oso ideologikoak dira, eta biziki atxikiak: hilerokoa lohia da, gerlariena, aratza; horregatik gerlan hiltzen diren gudari musulmanak beren odolak garbituak dira eta ez da beharrezkoa haien gorpua urez ikuztea. Araztasuna da emazteek Jainkoaren ministroak izateko falta omen duguna.

Gerla, armak eta aginte militarra, denak kontrol tresnak, Martitz eta Martzial-en atributuak, ez dira partekatzen, ez zaizkie emazteei erraz ematen. Aurre-historian bizitzaren bortxaz egin aukerak sustraiak barnatu ditu, eta ordutik hona sinboloen banaketa generikoak munduaren eta gauzen pertzepzioa egituratzen ditu, halako moduan non bizimoduaren aldaketak ezin baitu berez erazi: ondorioa kausatik autonomo egin da.

VII. ZERUARI SO ETA MAILUARI LOT

Bi kapitulu hauetan mitologian kukutzen den ideologia nabarmentzen saiatu gara, nola uztartzen den praktika sozialarekin eta nola sinboloen eta arketipoen erabiltzeak elikatzen eta iraunarazten duen sistema osoa, bi arloek elkar eragiten baitute.

Sinboloetan dautzan kategoria generikoek sailkatzen dituzte baloreak eta, neurri handian, bizitzaren ordenamendu soziala; haien arabera definituak baitira nolakoak izan behar duten emazteek -goxoak eta, ahalaz, doi bat zozoak- eta nolakoak gizonak -doi bat bortitzak eta, ahalaz, azkarrak; eta zein izan behar diren bakoitzaren egitekoak: etxeko gobernua emazteena, aginte publiko eta politikoa gizonena.

Gauzak hola, ez genuke gure burua engainatu behar eta kontzientzia onean lasai geratu, pentsatuz hemengo tradizio zaharraren arabera gure jatorrizko praktika zintzoa izan dela eta aski dugula kanpotarrek ekarria baztertzea injustiziak zuzentzeko. Erran gabe doa jainko arrotz baten monoteismoak ez gaituela askatuko: hura dauka estakuru aita sainduak emazteei apezgoa ukatzeko. Baina protestanteak eta anglikanoak ere monoteistak dira eta arazoa konpondu dute, tradizioaren kontra joanez.

Hobe dugu jakitea, bai hemen eta bai besteetan, sexismoaren gaitza biziki barna dela eta hari garaitzea ez dela erraza. Zinezko berdintasunaren modelo historikorik ez dugu, nahiz jendarte batetik bestera aldeak oso handiak izan: menperakuntza arinak baditugu -joan den mendeko Irokis amerindiarrek zeukatena, adibidez, edo Hopiena-; ugariagoak menperakuntza basak, guretzat ezagunena gaur egungo erresuma islamikoena, hain segur. Aurretikoen ezean, zerbait berria sortu beharko dugu eta, naski, gure-gureak jotzen ditugun sinbolo batzuen kontra joanez.

Ez da etsitzeko arrazoa, baizik eta zailtasunak non dauden jakiteko.

MUSIKA

° Mozarten *Txirula sorgina* operan emazteen erdeinu sistematikoa aurkitzen badugu ere, haien ahoan emanak diren doinuak paregabeak dira; eta hasteko Gaueko erreginaren lehen aria: “O zittre nicht, mein lieber Sohn”. <https://www.youtube.com/watch?v=NjgVfoVPCoA>

° *Txirula sorgindua*: bigarren aktoko “Wie? Wie? Wie?” kintetoan “Infernura emazte zikin horiek!” oihukatzen dute Sarastroren bi apezek. Antzinateko erligioetan goiandereak baztertu omen zituzten jainkoek. <https://www.youtube.com/watch?v=oqy9cq8fMa0>

° *Txirula sorgindua*, Gaueko erreginaren bigarren aria: “Der Hölle rache”: Anbotoko Anderea, gauekoa. <https://www.youtube.com/watch?v=pDUyA-fVie8>

° Mozart, *Così fan tutte* opera: “Come scoglio immotto resta contra i venti e la tempesta” aria. Emazteak eta hurakana, baina aurrez aurre. Schwarzkopf-ek kantatua, Karl Böhm-ek zuzendu bertsioan (EMI P. 1963 eta 1986).

<https://www.youtube.com/watch?v=CeB0k87SnCM>

° *Txirula sorgindua*: bigarren aktoko “Bewahret euch vor Weibertücken” duo-an emazteetatik begiratzeko aholku ematen dute apezek: beldurrak ez du ideia onik ekartzen.

https://www.youtube.com/watch?v=h8PzQODTw_k

° Mozart, *Le nozze di Figaro* operako duo: “Canzonetta sull'aria: Che soave zefiretto”. Behekoen agintezina ikusi eta, atsedean pixka bat hartzeko, doinuaren ederrez mendeku tikia dastatzen.

<https://www.youtube.com/watch?v=Fc3fmSSUwck>

° Joan Baez, “We shall overcome” abestia, “Ezina nekez egina” ikusiko dugulakoan.

<https://www.youtube.com/watch?v=nM39QUiAsoM>

VII. kapitulua

APEZEN IRUDIA TRADIZIOAN⁹

Apezak mundu honetako pertsonak dira, eta halere leku handia dute herri mitologian, sorginen antzera naturaz-gaineko ahalak dituztelakoan. Kondaira gehienetan azaltzen diren jendeen eta izaki mitikoen arteko tirabiretan eta gatazketan, apezek beren baliabideak ateratzen dituzte beste mundukoekin neurtzeko. Jendeen alde eta parte txarrekoen kontra aritzen dira ontsalaz, baina sorginen eremuan kokaturik atzematen ditugu batzuetan, beren ez-ohiko ahalak kalterako baliatzen ahal baitituzte: hain da laburra sorginaren eta sorginaren aurkakoaren aldea non, anitzetan, bi poloak baturik agertzen baitzaizkigu, ekaitzegileen kasuan ikusi ahal izan dugunez. Printzipio logikoa hau da: gaitza galarazteko bertutea daukanak gaitza egitekoa ere badaukake. Eta araberakoak dira herri tradizioan apezenganako sentimenduak: fidantza eta mesfidantza. Eliztarrek, lehen, oso seriooki hartzen baitzituzten apezren ahalak. Sandra Ott-ek (1993: 108) Zuberoako zaharrei entzun die lanjerosak izan daitezkeela, indar berezia baitute eta bakoitzak bere temperamentuaren arabera erabiltzen duelako.

Kondaira askotan erakusten da apezren bikoiztasun hori: sorginen konjuratzaileak dira baina sorginak ere, ekaitzen garaileak baina ekaitz egileak ere, arima erratuen uxatzaileak baina kondenatuak ere, jendeen osagileak baina trufa-gaia ere; eta, noizean behin, heroi tragikoak.

Apezaren irudia, beraz, ez da beti biziki ortodoxoa, mitologiak bereganatu baitu eta bere erara aldarazi baitu, sisteman sarrarazteko. Eta halere, edo horregatik, ortodoxian ere badituzte apezek beste mundukoen kontrako baliabideak eta exorzista bat izaten da katedraletan, deabrua ohiltzeko deabrutuen gorputzetik, kristianismoaren eta paganismoaren ideiak elkarrengandik oso urrun ibili ez diren seinalea.

I. APEZAK GAUEZKOEN GARAILEAK

Euskal Herriko leku anitzetan esaten dute parte txarrekoak (laminak, basajauna eta abar) apezren otoitz edo benedikazioek uxatuak izan direla. Zuberoan, Larraineko oihaneko basajaunak malur anitz kausatzen zizkien bizizaleei, harik eta apezak urrunarazi zuen, neskenegun gau oroz “Salve Regina” kantatuz (Cerquand, 1986: 23). Herensugeaz Ezpeletan esan zioten 1942an Barandiarani (1973b: 416): “Batzuek erraten dute apez batek madarikazionea egin omen ziola eta

⁹ *Gure Iratiko* mintzaldia, 1999ko apirilaren 7an.

handik kasatu omen zuela itsasgorrietara". Isturitzeko laminak apezan otoitzei esker suntsituak izan zirela azaldu zuen Oxobik 1930eko *Gure Almanaka*-n (Kaltzakortak zitatu, 1997: 67).

Hortaz, apezarengana jotzen zuten jendeek beste munduko izakiren batekin arazoak zituztenean, eta hark laguntzen eta aholku ona ematen zizkien. Hala gertatzen da *Deabruaren zubia* istorioen bertsiio gehienetan, "Ura" kapituluaren ikusi dugunez: zubiaren truke deabruari arima saldu zion neskatilak (edo harginak) abade batengana jo zuen, eta hark aholkatu zion eguna argitu baino lehen oilarrari kantaraz ziezaion, deabruak ihes egin zezaten zubia bukatu gabe eta, ondorioz, lansaria – arima - eskuratu gabe.

Arrakasta handia izaten dute apezan metodoek parte txarrekoak menperatzeko, nahiz ez den beti lan erraza izan, besteak ere ez baitira besoak uztarturik egoten erasoan aurrean, aitzitik mendekatzen saiatzen dira; eta horrek parada ematen dio apezari bere adimena eta ahalak erakusteko:

Larrungo mendiaren oinetan leze batean bizi ziren laminek jendeak pertsekutatzen zituzten, inguruko etxeok bereziki. Behin, apezaz trufatzeko, auzoko gizon bati erran zioten:

-Hoa Sarako erretorearengana eta erraiok guregana etortzeko.

Erretora badoa, baina halako moldez izitu eta beldurtu zituen haren bertuteak, non ez baitzen lamina bat agertu apezaren inguruetara, eta apeza etxera itzuli zen nehor ikusi gabe. Laminak berriz lehengo mandatariarengana:

-Zer zen oraistian hemen izan den gizon arropa beltz hura? Ori, zuaz berriz beregana eta emozu gerriko zinta seda hori gerrian ibil dezala.

Hala egin zuen gizonak; apeza mesfido zen eta galdegin zion:

-Ahal dakizu zinta horren neurria zenbat den?

-Ez jauna.

-Zoazi beraz orai lezeari hurbil den gaztainondora eta neur ezazu ea zenbat inguru eginen dituen zuhaitz hartan.

Gizona beti bezala badoa obedienci eta hasten da, manua zuen bezala, zinta sedaren neurtzen zuhaitzaren inguruan, bainan azkeneko ingurua egin duen bezain sarri, horra nun suntsitzen zaizkon begi aintzinean bai zuhaitza eta bait zinta seda. Eta gizona hantxe gelditu zen, deusik ezin ikusiz eta ezin asmatuz, gogoetan jarria (Cerquand, 1986: 55, laburtua).

Atsular izan zitekeen erretore horren zuhurtziaz eta jakintzaz gogoetatuko zuen. Eta aldi hartan bai, baina ez dira beti borrokatik garaile ateratzen apezak, noizean behin huts egiten dute, edo erdi huts. Preseski, Larrundik urrun ez den beste mendi bateko laminen aurka. Artzain bat galdu zen Mondarraingo lamina-zilo batean eta apeza haren bila jautsi zen: eskuan zeraman ostiari esker jalgi zen bera bizirik, baina mutikoa han gelditu zen (Barandiaran 1973a: 469). Halaber

Ahüzkin (Zuberoan): meza entzunik gabe zegoen mutiko bat airean eraman zuen zaldi batek Lexarregibele aldera; xerka joan zitzaizkion jendeak eta hango leizean ikusi zuten hilik; apezak sartu zen harat, ur benedikatua igorri eta otoitzak egin, baina ezin zuen hila atera; gero mutiko bat sartu zen, hiru ezko benedikatu inguru gerrikoan zituela amak ezarririk, eta korpitza atera zuen; orduan boz bat entzun zuten: “Madarikatu, gerriko korda horiek eramaiten dute, ez ur-txapaxta horiek, ez eta kanta eder horiek!” (Barandiaran 1962b: 109).

II. SORGINEN AURKAKOA

Beste munduko izakiak bezala, mundu honetako sorginak ere konjuratzen eta menperatzen ahal ditu apezak. Zuberoan (Ott, 1993: 109), Santa Garazi Igaia etxeko nagusiak ahal berezia zuen belagileak ikusteko, besteek ezin zezaketena; behin, halako bat ikusi zuela esan zion auzoari, eta belagilea mendekatu zitzaion haren haur sortu berriari konbultsioak eraginez; apezak deitu zuten eta hark ohildu zuen sorgina. Gipuzkoako istorio batean apezak nola egin zuen zehazten da:

Berasategiko neska bat joan zen konfesatzera, gorrotatzen zuen familia bateko sei haur hil zituela. Sorgina zen eta euli bilakaturik zintzurtean sartzen zitzaien eta hiltzen zituen. Zazpigarrena salbatu zuen apezak, estolaz eulia harrapatu eta kutxa batean sartuz: kutxaren barnean neska hila zela ikusi zuten gero (Barandiaran 1973a: 501).

Apezen tresna baliosa da estola. Hura ukituz hodeian zebiltzan deabruak ikusi zituen bereterrak, apezak bedeinka eta bedeinka ari zen bitartean (“Ura” kapitulua). Frantziako apez batzuei, kontatzen du Sébillot-ek (1968 IV: 240), txerrenek estolak urratzen zizkien bata bestearen ondoan exorzismoak egiten ari zirenean, eta horregatik zuhurrenek dozena bat eramaten zuten aldean, aurre egin ahal izateko.

Apezaren ama sorgina istorioan azaldu da (“Emazteak I” kapituluan) herri batean haur anitz eri zirela apezaren amak begizkoa bota zielako; eta apezak bazuela manera egia zenez igartzeko, meza eman ondoan aldare gainean liburua zabalik utziz geroz, elizan zeuden sorginak ezin mugiturik gelditzen zirelako; hala egin zuenean, haren ama geratu zen paralesiatu bezala: hura zen sorgina; orduan benedikazioen benedikazioaz apezak sorgingabetu zuela dio Azkuek, eta Orozkon, aldiz, errearazi zuela.

Bi gauza azpimarratzeko dira istorio honetan: apezak ez zela sorginkeriatik biziki urrun, sorgin baten semea baitzen, eta apezak baduela liburua, sorginak kontrolatzeko tresna bikaina, eta anibalentea: hura erabiltzen du, bai sorgina nor den jakiteko eta bai sorginak konjuratzeko behar diren formulak eta otoitzak irakurtzeko.

Tradizioan ez da apezik libururik gabe, beti brebiario eskuetan irudikatzen eta gogoratzen dituzte jendeak. Liburu misteriotsua, ulertezina herritarrentzat, irakurtzen dakiten gutientzat ere, latinez idatzia baita. Hitz magikoz betea, ustez, hartan kontzentratzen ziren apezaren ahalak. Baina

sorginkeriaren kutxa ere izan daitekeen liburu hori izugarri lanjerosa da apeza bezain azkar ez direnentzat. Frantziako toki askotan kontatzen dute (Sébillot 1968 IV: 240) neskame batek apezeneko mahai baten gainean atxeman zuela liburua, kuriositateak bultzaturik zabaldu eta deabruak eraman behar zuela, apeza garaiz heldu eta salbatu izan ez balu.

Mitoeak erakusten duten apezan bikoiztasuna errealitate historikoa izan dela adierazten du Castañegak, bidenabar arrazoin soziologikoak azalduz, 1529an idatzi zuen *Tratado de las supersticiones y hechizarias* liburuan.

Por experiencia vemos cada día que las mugeres pobres y clérigos necesitados e codiciosos, por oficio toman de ser conjuradores, hechiceros, nigrománticos y adeuinos por se mantener e tener de comer abundantemente; y tienen con esto las casas llenas de concurso de gente (Castañega, 1994: 12).

Ontsalaz antonimoak diren 'hechicero' eta 'conjurador' deiturak pertsona berari egoki izanak adierazten du elkargarriak direla bi funtzioak. Ohartzekoa da funtzio kontrajarri horiek berdin emakumeek zein eliza-gizonek bete ditzaketela, eta ama sorgin eta seme apezaren korrelazioan jartzen ahal ditugu; ez dut uste bi jende tipo horiek pobreziak dituela lotzen, irudimen mitikoak baizik.

III. APEZ SORGINAK

Liburuaren eta sorgin-indarren jabe izan diren apez batzuk biziki ezagunak dira: Lapurdin Sarako Atsular, Iruñaldean Atarrabiakoa, Nafarroa hegoaldean Bargotakoa, Orozkon Axpurukoa... Denak modelo antzekoak, nigromanteak, Caro Barojak erabili terminologian (1975: 18-22). Egiatzko bizi izan diren pertsonaia ospetsuen izena daramate, pertsonaiei mitoa erantsi zaielako. Eta ahal handiak eransten zaizkie: Atsularrez eta Atarrabioz erraiten zen deabruaren eskolan ikasiak zirela, Salamancan eta Zugarramurdiko harpean. Deabruari biziki hurbil dira, ikasle izatea filiazio modu bat baita eta, hori aski ez balitz, anaia ere deabru dute, borrokatzen duten ekaitzegilea. Ahaidetasun eta borroka horiek utzitako oroitzapen gisa zerbait eskas dute: itzala, aztala edo takoina, etsaiak eramanik eta, aldi berean, hark utzi zigilua edo zikatriza, herren izatea deabruaren ezaugarria da-eta (gogora *Kastrexanako zubi*-ko deabru errena).

Anitzak eta desberdinak dira apez-sorginen abenturak eta bidaiak, airekoak bereziki. Ariztiaren bilduman (1980: 18), Atsularrek jakin zuenean “gure Aita Saindua deabruarekin esposatzera egun zohala”, bi deabru deitu zituen; bietarik arinenak eraman zuen Erromaraino (Azkueren bertsioan (1966: 69) galtzagorri batek egin zuen lan hori) eta hango mahai ederrean jarriak ziren deabru guztiak uxatu zituen gurutzearen bidez. Harri batez bi txori egin zuen apezak, ipuin kontalariaren ustez: “Geroztik Atsular apezari esker izan zen gauza bat ona: ez zirela gehiago esposatzera libro izan”.

Zelibatua da atzerakoiek oroz gainetik atxiki nahi duten apezan eginbidea, nahiz eta hartatik datozkien maiz herritarren trufa mingarrienak, oso ugariak Europako tradizioan nola gurean, beheago ikusiko dugunez. Hain mihi-gaizto ez direnek ere ohartarazten dute, kondairek parada ematen dutenean, apezak ezkondu ez baina giltzaria edo neskamea badutela. Orozkon Axpuruko abadeak ospe itzela du bere kriadeagaz batera protagonizatzen dituen pasadizoengatik (ikus "Ura" kapitulua). Harekin aireko bidaia xoragarria egin zuen prakagorrien laguntzaz, istorio polit honetan kontatzen denez, beti ironiaz apaindurik:

Maiatzaren zortzi batean, Urduñako "Ochomayo" eta bertako zezenketa. Axpuruko abadearen kriadea balkoian egoan, hasperenka:

-Ññaia! Oraintxe nor egon liteken Urduñan zezenak ikusten.

Apezak entzun eta:

-Gura dozula joan, ala?

-Bai eta pozik joango nintzeke!

Atera mamarroak (familiariak) jostorraz-ontzitik eta "rrriii", laino bategaz, plaza ganean Urduñan, eta gan-ganetik ederto zezenak ikusten. Han zezenketan bere ei egozan besteren batzuk, mamarrodunak, eta batek esan ei euan:

-Haiko han Axpuruko abadea bere kriadeagaz.

Ez eutsien sinesten, baietza eta ezetza:

-Gura badozue haren zapata ekarriko deusuet.

Esan eta egin. Zapatea ekarri, eta gero abadeak esan ei eutsen:

-Ez badaustazu ekarten zapatea, bekokian fundituko deusut adar bat.

Adar hori funditu jakon eta, lotzatu ez egotearren, atzera emon eutsen zapatea. Gero, zezenketa bukatu zanean, etxera berriz bide beretik. Eta etorri orduan, ba ikaratuta kriadea; baina geroztik jakin euan ugazabaren prakagorrien berri, eta horrela egun batez haien jostorraz-ontzia topatu eta zabaldu egin euan (*ikus istorioaren segida, "Emazteak I" kapituluan*; Barandiaran, 1960: 107; Arana, 1996: 330-334, moldatua).

Sorginen indar edo familiariengandik beste hainbat gauza miresgarri lortzen dituzte apez sorginek, batez ere egurra eta ura etxera ekartzea.

IV. EIHAR-MEZA

Edozein sorginek bezala jendeei kalte egiten ahal diete apezek, eta bere-berezko duten “eihar-meza”ren bidez. Eihar-meza hori erdarazko “meza beltza” dateke eta haren helburua etsaiak ihartaraztea da, hiltzea azkenean. Euskal Herriko apezengana ibili naiz erritu horren berri jakin nahiz, eta inork ez dit izena baino gehiago aipatu, ez bide dute deusik jakin gura holako kontuekin; halere barrez aitortu zidaten apez bati, ez hain aspaldian, bi eihar-meza emateko eskatu ziola norbaitek, eta apezak ihardetsi: “Bat zuretako emanen dut nahi baduzu”; eta hartan gelditu zela gauza.

Alderantziz, Gaskoniako *Messe de Sento Sècairo* (*Jondone Iharleren meza*) baten deskripzio luze-zabala ematen digu Sébillot-ek.

Behiala Biarnon eta Gaskonian oso hedaturik zen sineskeraren arabera, etsai bati mendekatzeko aski zen haren kontra eskumikua botaraztea apez bati; horren ondorioz, anatema pean zegoen pertsona esmeriatzen joaten zen. Apeza, eliza-atorra eta estola jantzirik, gainean kapa beltza ere, inprekazioen hamabi zerrenda erraten zituen, hamabi tortxa beltzek argiturik.

Gaskonian bazen *Sento Sècairo*-ren meza, haren xedea baitzen norbait emeki-emeki iharraraztea. Oso apez gutik zekien horrelako meza ematen, eta haietarik tzar batzuk baizik ez zuten egiten, naski.

Meza hori jende multzorik kokatzen ahal ez duen eliza batean bakarrik eman daiteke, hau da, hondamenetan edo profanaturik izan den elizan. Meza emaileak bere maitalea hartu behar du beretter, eta biok elkarrekin afari on bat eginik izan behar dira. Hamaiketako lehen zeinu-hotsarekin batera hasten da meza eta gibebekoz aitzina jarraiki, oren baten buruan amaitzeko maneran, gauerdian tanko. Beltza izan behar da ostia, eta ez borobila, lau puntakoa baizik. Apezak ez du arnorik kotsakratzen, haren orde ura edaten du, bataiatu gabeko haur baten gorpua bota duten iturriko ura. Gurutzearen seinalea ezker zangoaz egiten du eta lurrean, eskuin eskuaz eta bularrean egin orde.

Gironde-n ematen omen zen horrelako meza eta 20-50 liberetan zen haren saria.

Bigorren heriotza gaiztoko meza bazen (*messe de male-mort*); hil-hurren luze eta oinazegarria eragiten zuen.

Neska bat seduzitu eta harekin ezkontzen ez zen mutila ihar eta hilarazten ahal zen, haren kontrako eihar-meza eginez; eta halaber ezkontzeko hitzeman eta senargaia uzten zuen neska. *Amodio gaizto*-ko mezak, alderantziz, etengabe atzeratzen ziren ezkontzak laster bururarazten zituen (Sébillot, 1968 IV: 238).

Mendiben entzun dut bertako neska batek mutil batekin atxiki eta, utzi egin zuela funtsezko arrazoirik gabe, eta beste batekin ezkondu; lehen haurra ukaitetik hil zela neska hura, eihar-mezaren ondorioz, omen. Meza horrek ez dirudi Gaskoniakoa bezain pintoreskoa, baizik meza gomendatu bat, ustezko errudun bat iharrarazteko xedean emana.

Batzuetan sorgin fama ordaindu behar izan dute apezek: Sébillot-ek (1968 IV: 237) kasu larri bat aipatzen du: Perche eskualdean, 1867an, La Loupe-ko apeza hil zuen gizon batek, bere burua libratzeko hark bota ei zion zorte gaiztoaz.

V. APEZ EKAITZ KONJURATZAILEAK

On eta gaitzaren arteko joan-jinetan, parte-txarrekoen kontra aritzen den apeza aurkitzen dugu, ekaitz konjuratzailea, hura ere sorginen etsaia finean, sorginen lana omen zelako tenpestak sortzea.

Euskal Herriko leku askotan eta 1960raino guti gora behera, maiatzaren 3an hasi eta irailaren 14 arte - Gurutzetik Gurutzeraino - igandeko meza ostean apezak urten zuen *Veni Creator Spiritus* kantatzen, elizaren ingurua egin eta atean edo hilarrietako gurutze ondoan airea bedeinkatzen zuen sainduen letaniak erranez eta lau aldeetara ur bedeinkatua isipatuz (Marliave, 1995: 25). Osterantzean ere, hodeia zetorren bakoitzean bedeinkatzen zuen apezak, beti sakristauak edo bereterrak lagundurik (ikus "Ekaitzegileak" eta "Ura" kapituluak).

Kristau ikusmoldetik zeremoniak duen zentzua esplikatu zuen XIII. mendean Jakob Varazze-koak bere *Legenda Aurea*-n, airean ibiltzen diren deabruak eginak direla ekaitzak adieraziz:

Hodeia dakarrenean elizatik ateratzen dira gurutzeak eta aurrean ezartzen zaizkio hodeiari, (*airean bizi diren*) deabruak, errege soberanoaren guda-ikurra ikusirik eta hartaz ikaraturik, ihes egin dezaten (Varazze, 1967 I: 354, moldatua).

Herritarren ikusbidean, berriz, mitologiako pertsonaiak izan daitezke deabru horiek, gure tradizioan Anbotoko Anderearekin edo herensugearekin asimilatuak. Kontua da, harri eraunsiak galaraztea inportantea baitzen laborantzarako, herritarrek konjuratzaileen beharra zutela eta, helburu horren atzean, elkarrekin edo aski hurbil ibili direla erligiotasun giristinoa eta herrikoia. Horrela Elizaren errituek denak kontentatzen zituzten: apezak modu kristauaz jendeak lagundurik, eta nekazariak beren antzinako sinesteei atxikirik. Beren aldetik herritarrek ez zuketean kontuan hartuko doktrinaren zuzentasuna, baizik errituen efikazia, eta horren arabera ordaintzen zituzten.

Hodei konjuratzaileak hain dira ospetsuak non mirakulua bailitzateke laborari herri batean haien zerbitzuak ez ordaintzea eta haientzat etxola bat ez izatea kanpandorrean edo leku gora batean, hodeiei eta deabruei hurbilago izan daitezen.

Herriek apustuak egiten dituzte beren artean, zeinek duen konjurtzaile azkarrena; batzuetan apezak direla konjurtzaileak.

Zirkuluak egiten dituzte eta barnean deabruekin borrokatzen, hain gogorki non zapata bota behar baitieten joan daitezen, eta biziki akituak jalgitzen dira gatazka latz horietatik. Beren konjurua noraino heltzen den aldarrikatzen dute eta harro dira hodeia auzoen eremura igorririk, han bota duelakoan harria.

Konjuru egiteko mezaren kanoneko hitzak erabiltzen dituzte, haien indarrez ogia eta arnoa Jesukristoren gorputz eta odol bilakatzen diren bezala, harri erauntsia ere ur bilakatuko dutelako ustean. Nolanahika nahasten dituzte latina, hebreera eta grekoa: “Per ipsum crucem, cum ipso cruce, Eli, Eli lama zabathani, agla, aglata, tetragramaton, adonay, agios, otheos, ischiros, athanatos, eloim”, eta abar. Ez baitituzte bat ere konprenitzen, misterio espantagarriak kokatzen dituzte hitz horietan (Castañega, 1994: 57, laburtua).

Manera ortodoxoak nahiago eta proposatzen ditu Castañegak:

Zeinuak jo, jendeak bil daitezen elizara: apezak sagrariotik atera Sakramentua eta, haren inguruan argiak piztuta, *Salve Regina* kantatu eta misaleko otoitzak erraten ditu. Gero, Joanesen ebangelioa erranik, gurutzea hartu eta joaten da hilarrietara edo hodeia biltzen ari den aldera, eta han Gurutzearen laudeak kantatu (...): “Salva nos Christe salvator per virtutem crucis, qui salvasti Petrum in mari miserere nobis. Ecce crucem Domini, fugite partes adversae” eta abar. Eta behar izanez gero, gurutzea hodeiaren kontra lurrean finkaturik, sainduen letaniak erran. Horrela egin arren Jainkoak zigortzen badu, pazientzian eraman, eta ez horregatik modu onei -katolikoei- utzi (Castañega, 1994: 62, laburtua).

Hamaseigarren mendeko era kanoniko horretaz, edo antzekoaz, egin izan da hodeiaren benedikazioa, oraintxe arte. Baina Castañegak arbuizatzen zituen modu heterodoxoagoak zituzketen mendi tontorretan eta herriek pagaturik iharduten zuten ermitarietara, hala nola Ozkazeko San Antonikoak, 1895 arte iraun zuenak, eta Larrungo Santu Izpirituaren kaperakoak, 1897 arte. Larrunera Mendekostez joaten ziren herritarrak, euria eskatzera eta besta egitera; preseski jaietako “gehiegikeri” engatik debekatu zuten beila. Itxura, Urkiolan egon zen, 1910 arte, azken ermitaria (Marliave, 1995: 28).

Ez dira sobera kanonikoak gaur egun Euskal Herri osoan kontatzen diren apezaren eta ekaitz-deabruen arteko borroka epikoak. Hona Baxenabarreko ale bat:

Ezterenzubin harri erauntsia, arada entzuten zen, arada. Hala erraiten duzie ziek ere? Harriaren azantza, harri erauntsia heldu delarik, haren azantza, arada, kliskita-klaskata, zur idorrez joka bezala da... zera, xalapartaren azantza egiten du. Eta arada hautemaiten zen, eta apeza eta bereterra galdeginik, kanpoan, elizatik kanpoan otoitzean ari zen eta ur benedikatia botatzen eta latinez otoitz, hitz mirakuluzkoen erraiten, sakratiak, sekretuzko hitzak. Eta apeza (*enfasia*) izerdi uharretan! Eta bereterra harritia hari so, eta hura ari zen bere zeretan eta:

-Ezarrak zangoa ene zangoaren gainean.

Eta bereterrak ezarri zien zangoa apezaren zangoaren gainean eta ordian ikusi zien Iturranburuko parrean -Iturranburu mendi bat da, ezta, Ezterenzubiko mendi bat- Iturranburuko parean ikusi zien hodeietan apeza borrokan debriarekin ari. Debria buztanarekin eta adarrekin eta guziak, e? Biloekin eta. Eta debriarekila borrokan (*enfasia*) tira ahalarik! Eta ordian hartako zen apeza izerdi hola.

Bistan dena, apezak irabazi zuen eta debria gibelarazi: ez zen jin harria, ez zen herriraino harria jin (Eñaut Etxamendik kontatua).

Istorioren Lapurdiko eta Bizkaiko bertsiak "Ekaitzegileak" eta "Ura" kapituluetan azaldu dira. Bideratzen dituzten sinboloen esanahian barnatzeko, oroitarazteko da ortzia eta guda uztartu dituztela mitologia batzuek: antzinako Mesopotamiako sumertar laborarientzat ekaitzaren triskantzak langoak ziren menditik behera jausten ziren nomaden inbasioak, eta Enlil ortzi-jainkoari alderatzen zizkieten. Shostakovitch-en *Leningrad* sinfoniako "Inbasioa" esaten zaion zatiaren leitmotiv errekurrenteko gerla danborren hotsak ezin hobeto girotzen ahal du Ezterenzubin gero eta gertuago entzuten zen erauntsiaren arada, kanoiak direla ostotsen burrunbak.

Herriaren defentsan, ortzi-tropa apurtzaileen kontra borrokatzen zuten apezek, eta handia zen haien erantzukizuna, kausitzen ez bazuten herritarrek kontu eskatzen baitzieten (Satrustegi, 1980: 108). Sébillot-ek kontatzen digu (1968 I: 108) Alpeetan, XIX. mendeko hasieran, exorzizatzaera behartzen zituztela apezak, eta biziki preziatuak zirela arrakasta biltzen zutenak. Arestian aipatu metodoak erabiltzen zituzten, gurutzea erakusten hodeiari, ostia ere bai, eta ostiari berari mehatxu egin zion apez batek, lohitara botako zuela ez bazen deabrua baino azkarragoa. Baina kasu huts egiten bazuten eta harriak uztak suntsitzen bazituen! Anitzetan gertatuz geroz herritik joan behar zuen apezak.

VI. APEZ EKAITZEGILEAK

Sorgin izan daitezkeen bezala, ortzigileak ere izan omen dira apezak. "Ekaitzegileak" kapituluaren airean ikusi ditugu hodeia zuzentzen, eta lurretik ere berdin egiten ahal zutela diosku Sébillot-ek, sorgin arruntek erabiltzen zuten modu berdinez:

Saintongen esaten zuten antzina apezek harri erauntsia eragiteko ahala bazutela, aski zutela urmael, iturri edo ibaiko ura jotzea zaharo miresgarri batez. Zehaztua ez den lekuan, hiru biltzen omen ziren urmael batean, urari irabiatu eta uherrarazten zuten, lohiarekin nahasiz: horrela abazuzaren legamia sortarazten zuten eta eskualde guztia xehatzen (Sébillot, 1968 II: 439).

Eure eta Orne departamenduetan uste dute, brebiarioan diren formula magikoei esker, apeza hodeietara igo eta abazuza botatzen ahal duela zigortu nahi dituenen soroetara (Sébillot, 1968 I: 109).

Santa Garaziko Etxeberri erretoreak bazuen indar handia eta, bolbora baitzen, batek baino gehiagok jasan omen du haren zigorra (Ott, 1993: 109): igandean lan egin behar zuten bi gizonetarik batek baimena eskatu zion apezari, besteak ez; Etxeberrik jakin zuen eta sumindu zen: izugarrizko euria egin zuen bi egunez eta baimena eskatu ez zuenaren uzta guztia galdu zen; apezaren mendekua izan omen zen, besteen soroetan ez baitzen batere kalterik gertatu.

Istorio xelebrea bildu du Garmendia Larrañagak elizgizon ekaitzegile bati buruz:

Oiartzungo komentuko praile Txanbenat eta erretorea elkarren jelos ziren. Txanbenatek Iruñera joan behar zuen batean, apezak konjuru egin zion harri-jasa prailearen bizkarrean eror zedin. Bidean eguraldi aldaketa ikusi zuen praileak, igarri zuen eraso bere buru gainera zetorrela eta erretorearen lana zela. Baserri batean behi-larru bat eskatu, burutik behera jantzi eta apezaren sagastira joan zen; dena loretan zen eta arbola azpitik arbola azpira ibili zen, lore denak harriak txikitu arte. Gero Iruñera joan eta, handik etorrita, apezarengana; eta hark: “Ondo egin al duzu bidaia? - Bai, oso ongi, eta zuk nola daukazu sagastia? - A, ez dakit, aspaldian ez naiz izan eta. - Ba, joan behar zenuke eta ikusi ea nola dagoen”. Joan zen eta dena txikiturik ikustean pentsatu zuen: “Horri inork ez zioke pegatzen (*ziria sartzen*)” (Garmendia 1991: 81, laburtua).

VII. APEZ KONDENATUAK ETA ARIMA ERRATUAK

Apez mitiko gehienak mundu honetakoak dira, baina bada hemengoa izanik beste munduko bilakatu denik, hala nola *Apez kondenatua*. Euskal Herri osoan kontatzen da haren istorioa eta bilduma anitzetan jasoa da. Etxebarriak (1995: 17-32) jatorri desberdinetako aleak elkartu ditu. Hona kondaira tipoa:

Bazen apez bat ehiztari amorratua. Behin, meza ematen ari zelarik, ehiza-orak entzun zituen, “txi-txau, txi-txau”, erbi baten ondotik. Sagara zen, eta gure apezak bertan utzi ostia, xixpa hartu eta txakurrekin erbiaren gibeletik abiatu. Geroztik kondenatua dago airean ibiltzera, erbi eta ehiza-oren ondotik. Txikiak “iu-iu” egiten du eta handiak “auh-auh”. Haize eta ekaitzeko gauetan entzuten dituzte bereziki, eta Amezketan diote hura pasatzen denean hamalau eguneko tenpesta datorrela.

Anbotoko Anderea ere, bere sorreraren bertsio guti batzuetan, Jainkoak zigortuta zen airen ibiltzera (Arana, 1996: 294). Otxandianon diote Anderearen lehengusua dela abade kondenatua (Azkue, 1959: 368). Batzuetan apez horren bizitza Atsularrena bezalakoa da, deabruaren eskolan ikasi eta gero konjuratzaile izanda (Azkue, 1966: 241). Ehiztari-txakurrei hainbat izen ematen zaizkie Euskal Herrian gaindi: Abade-txakurrak, Martin abadea, Mateo Txistu, Pisti Joan (Preste Joan?), eta Dohoztin Salamon Erregea, herri horretan ehiztaria ez baitzen apeza, meza entzulea baizik (Barandiaran, 1962b: 17 eta 86; 1984: 174). Gaskoinian Arthur erregea ibiltzen da bere ehizaren ondotik. Antzekoa da Frantzian “mesnie Hellekin” delakoa; Hellekin zerua zeharkatzen duten hilen gidaria da, horregatik “infernuko ehiza”, “arima erratuen tropa” edo “armada furiosa” ere esaten zaio tropa horri (Sébillot, 1968 I: 165; Ginzburg, 1992: 113).

Arima erratuen artean apezak ere badira, eta Sébillot-ek ematen digu haien berri:

Batzuetan hil osteko penitentzia bete behar dute elizgizonek. Plévenon-en (Bretainia), bizitza tzarreko fraileen arima erratuak ibiltzen ziren Château-Serin-eko tumuluaren inguruan. Côtes-du-Nord departamentuan, Hunaudaye-ko gazteluko harresien gainean ere ikusten ziren usu fraileen prozesioak, hamaikak eta gauerdi artean (Sébillot, 1968 IV: 254).

Apezen arima erratuak ugariak dira gure legendetan. (...) Haute-Bretagne-ko leku anitzetan agertzen zirela esaten dute: penitentzia egitera kondenatuak dira, bizitzan egin dituzten bekatuengatik eta, batez ere, ordainduak izan ondoan eman ez dituzten mezengatik (ibid.: 441).

Bretainian beti, eta Le Braz-ek dioenez (1994: 312), horrelako arimek norbait bilatzen zuten, emana ez zuten sakramentua jaso zezan. Euskal Herriko tradizioan guti entzuten da apezan arima erratuez eta, komunzki, meza bat eman edo bururatu barik utzi dutelako agertzen dira. Horra zer gertatu zen Iratiko Salbatoren:

Gau batez, goizaldera, Salbatoreko kaperan argia bazela ohartu ziren goraxagoko oihanetik artzainak. Biharamunean berdin eta hala-hala aste oso batez. Laztura batek hartu zituen, ea ez ote zuten bazka-tokiz aldaratu beharko. Bainan toki gizenaren uzteak dolu egin eta hasi ziren behar zutela ikusi zer zen argi hura.

Ur benedikatuaz ongi zinaturik, arrosarioak baina makila ere eskuetan, abiatu ziren goizalde batez, eskuak elgarri emanik. Eliza hetsia eta, bat ausartu zen gako xilotik behatzera: aldareko argiak pizturik, eta haren oinetan apez bat xutik, mezarako soinekoak soinean zituela. Artzainei ohartu zitzairen apez eta hasi zuen bere meza. Eta artzainetarik batek kanpotik ihardets, ahalik eta hobekiena: *“Et cum spiritu tuo”* edo *“Amen”*, apezak segitu eta akabatu bere meza. Gero itzuli zen ateari buruz eta begitarte-begiak lorietan oihu egin:

-O! Milesker arima onak, hoinbertze urte hauetan beha nindagon, meza hau erran beharrez zeruan sartzeko! Nehor ez zen hemen sekulan neri ihardesteko. Ez zaituztet zeruan ahantziko.

Eta horrenbertzerekin suntsitu zen. Sekulako bildotsak izan zituzten urte hartan gure artzainek. Benan ez toki heietan beretan: bazkaz aldaratu ziren biharamunean berean (Barbier, 1931: 124, laburtua).

VIII. ISEKAK: APEZ EMAZTEZALEAK, JALEAK

Zelibatuaren goraipamenarekin batera haren ondorioak aipatu dira gorago: apezei buruzko susmoak eta esamesak. Berriemaile zenbaitek leporatzen diete eliztarrei infernuaren beldurra sakatzea, bereziki sexu bekatutik aldentzeko, eta gero berek gura duten guztia egitea, zehazkiago neskameekin bizitzea - eta ez soilik etxe berean (Arana, 1996: 335 eta 338). Horrez gain, besteei haurrak egin behar dituztela esaten dieten bitartean, beraiek, haur-ardurarik gabe eta familiako kargak eraman barik, berdin sexuaz gozatzea.

Emazteen atzetik ibilki itxuratzen dituzte elizgizonak koplak batzuek, hala nola Oskorrik abesten duen "*Kyrie eleison*"-ek edo Hiru Trukuren "*Leixibatxo*"-k; haietan protagonista diren fraileak apezaren pareko izaten dira ahozko tradizioan. Irudi berari jarraiki zaizkion zenbait kondairatan apez emaztezaleak ez dira ordaindu gabe ateratzen, Orozkoko Eulali Bilbaok esandako honetan, adibidez:

Maria Garzia andra ederrak gizonari salatu deutso:

-Abadea etorten jat zu lanera joaten zaran orduan.

-Ba, badakizu zer egingo dozun andra? Hori abade hori eroan egizu kortara eta gorde egizu ira-piloan, eta ni joango naz hara, beharrak egitan.

Hala egin euan andrak, eta senarrak gero kortara jo:

-Ene! Han behia txarto dago, ekarri egizu sarda, nik egingo dot hemen garbi-ikuzia.

Sartzen du kakoa ira-piloan eta abadearen gona xigorretik kanpora, sotanatik. Eta gero sakristaua -biak egon zirean gordeta.

Hurrengo eguna domeka zan eta abadea, "*Dominus obispo*" egiten joan zen orduan, bueltatu, Maria ikusi eta esan ei euan:

-Hor dator gure Maria Garzia, ederrik eta galantik jantzia.

Eta sakristauak kontestatu eutsen:

-Bai zuri eta niri ondo kostea, fraka txirkolatik bart kortati ondo tarras aterea.

Kontalariak esan ez badu ere, pentsatu behar da abade-sakristauak zerbait ordaindu behar izan ziotela Mariari, Webster-ek bildu istorio bateko bi apezek bezala:

Apezek bisitatzen zituzten senar-emazte batzuek pentsatu zuten sos zerbait kendu behar zirela. Eta egun batez, beraz, senarra ustekabez heldu da etxera: bisitari bat (*bikarioa?*) barrika batean ezkutatu da, bestea (*erretorea*) labean. Handik jalgi ahal izateko dirua eman behar dute, baina erretorak, halere, ezin izan du atzealdea suaren ausikitik salbatu. Hurrengo igandean azaldu zen Maria bezperetan, eta apezek elkarri:

-Orduz goitiko Mariaren urguillo handia! Bertze horrek bazekik hire eta nire moltsaren berria -dio batek.

Eta erretorak:

-Zuek bezala nik izan banu dirua, ez nuen izanen gibleko aldia errea (Webster, 1993 I: 17, laburtua).

Sébillot-ek (1968 IV: 248) tipo bereko kontakizuna entzun zuen Britainiako Côtes-du-Nord departamentuan, amaiera larriagoa duena: emaztea bisitatzen zuen frailea bogadako upelean ezkutatu zen, etxeko morroiak ur irakina bota zion gainera eta bertan egosi. Sébillot berak (ibid.: 235) kontatzen du nola apez batek, amodio solasetan atxemanik landetan, galtzak utzi behar dituen arinago ihes egiteko; eta beste batek sotana erantzi, arrazoin berarengatik.

Jale gizenarena izan da apezzen beste irudi tipiko bat. Benedikazio edo errogatibak kari oiloak eta axuriak ematen baitzizkieten, ez beti gogo onez, eta "Ventre de curé, cimetière de poulets" erraten zuten Zuberoan; eta handik ez urrun Sébillot-ek jaso duen esaera (1968 IV: 233) "le dire béarnais 'Sorcières et loups-garous font manger des chapons aux curés' (...), d'où l'expression 'Cemiteri de capous' ". Bizkaian diote, "Abadearen lapikotxoa txikerra baina goxoa", esan nahi baita egoskari baino txitxi gehiago duela. Bestalde, atez-ateko fraile eskelariak tripazorro fama izan dute; amama bati askotan entzun diot, janari gehiegi ikusten zuenean: "Monteagudoko fraile guztientzako haina baduzu hor"; eta beste amamari, orduz kanpoko bisitariez: "Hori fraileak bezala, beti bazkal orduan ageri". Gratacos-ek (1995: 65) "don réticent" gisa kalifikatzen du Comminges eskualdean San Bladi egunean apezari eramaten zizkieten txerri-zangoak, usu gogoz kontra egina zelako.

Beti ematez asperturik ziren jendeentzat ideia dibertigarria zaketen apezzen gutizia baliatzea beraien engainatzeko, eta hortaz ere istorioak badira, bide batez apez zozoaren tipoa aurkezten dutenak. Vinson-ek 1973: 103) eta Webster-ek (1993 II: 35) jaso dute bertsio bana, bigarrenarenak izenburu esanguratsu duena, "Apez atzipakorra" (*engainakorra*). Maltzur batek erretoreari sinetsarazi dio erbi eskolatua baduela, mezuak laster-lasterra eramaten eta ekartzen dituen; apezak piztia bereganatu nahi du, eta biziki kario ordainarazten dio jabeak; gero, berriz, hilak berpizten omen dituen txirula erasarazi dio, eta erretoreak, tresna frogatzeko, bere giltzaria hil zuen; azkenean, itsasoko uhinak ardiak direla erakusteko aitzakiaz, maltzurak urera bota zuen apeza, eta hantxe ito zen gaixoa.

Frantziako erran zaharretan apez onaren aipamena askotan bilatu eta sekula aurkitu ez duela esaten du Sébillot-ek (1968 IV: 230-236); haien presentzia soila zoritzarreko seinalea omen zen eta, ikusten zituztenean, gurutzearena egiten edo burdina ukitzen zuten jendeek, XVII. mendeko predikatzaile batek salatu zuenez.

IX. APEZ OSAGILEAK

Ez da dena irudi txarra apezena, arrunt alderantzizkoa bada, eta ongileak azaltzen dira askotan Euskal Herrian, larritasunen eztigarri eta erien sendatzaile. Behorlegin entzun dut herrietan bazirela zenbait biziki onak, anitz gauza ezagutzen zituztenak eta bazekitenak noiz zer egin behar zen: haiekin konfiantza osoa zuten jendeek eta, medikuaren ezean, haiengana jotzen zuten kinka larrietan, baita anitz gauza erdiesten ere. Mende hasierako Eiheralarreko erretore bat, Lesgard irisartarra, otoitz erraile handia zen – bere larderiaz ere ezaguna, bestalde. Hain zuzen gure berriemaileari, haurra zelarik, burua gibelerat itzulirik jarri zitzaion emazte batekin samurtu ondoren, eta erretoreak erran zion haren amari zer otoitz egin behar zuen burua behar zen bezala jin zekion. Ustezko sorgin bat baitzen eritasunaren sorburua, hark bota begizkoa neutralizatu zuen apezak.

Zugarramurdin ere, bertako Julia Barberenaren oroitean, izugarri famatuak ziren apezak, jendeak sendatzen zituzten eta inguruko herrietatik etortzen ziren anitz, ebangelioak irakur ziezazkieten, liburuan, bistan dena.

Batez ere beiletan irakurtzen zizkieten apezek ebangelioak eliztarrei, eta gauza on anitz biltzen zituzten haien bidez, ez jakin apezan indarraz ala ebangelioenaz, edo bienaz. Mendibeko Salbatoreko beilan mutuak sendatzen omen zituzten apezek, eta deabruak ere ateratzen zituztela deabrutuen gorputzetik entzuna zuen bertako Maiana Monfortek.

X. APEZ ERREKERITZAILEAK

Errekeritzea erraten diote Izuran exorzismoari, jendeengandik deabrua botatzeko erabiltzen zen errituari. Baina ongi kausitzeko ez omen zen aski apez on bat, arotzak behar zuen lagundu, Maddi Casaubon izuratarrak xaharrei aditu dienez. Izan ere, apezaren benedikazioengatik deabrutuaren soinetik alde egiteko behartua zen deabruak erraten zuen temati: “Mihitik joanen nuk, mihitik joanen nuk, mihitik joanen nuk”. Eta arotzak berriz: “Ez, zangotik joanen hiz, zangotik joanen hiz eta zangotik joanen hiz!” Zergatik komedia hura? Mihitik joanez geroz mihia eramaten zuelako errotik; aldiz, zangotik joanez zapata baizik ez zuen eramaten. Eta Atsular bezala geratuko zen deabrudun ohia, txerrenek marka oinean, zapatarik gabe.

Etxe batean arima herraturen bat ibiltzen zenean, berdin, apezak errekeritzen zuen. Britainian (Le Braz 1994: 394), herratzera kondenatuak ziren hil batzuk biziki tzarrak ziren eta ez zitzakeen edozein apezek konjura, horretarako ez delako nahikoa ofizioa ezagutzea, beso azkarra ere behar da, izugarri gogorra baita borroka: akituak, zuri-zuriak eta izerditan ateratzen ziren borroka hartatik errekeritzaileak; azkenean estolaz lotzen zioten lepoa kondenatuari eta, txakur itxura zuela, landa desertu batera eramaten eta han egotera agindu. Gizotso edo banpiroetatik ere begiratzen zuten herria:

Normandian, XIX mendearen hastapenean, hilarrietara joaten ziren apezak, gauaz, zenduak xuxen ibiltzen ote ziren begiratzeko: kondenaturen bat gizotso bilatzeko mainak bazituela asmatzen bazuten, hilobia zabaltzen zuten, haitzur berri batez gorpuari burua moztu eta ibaira botatzen zuten (Sébillot, 1968 IV: 241).

Horietan sinesten duten jendarteentzat zerbitzu publikoa betetzen zuten apezek. Dena gezurra eta iruzurra dela pentsatzen den mementotik hasten dira mesfidantza eta aieruak, sistema ez baita gehiago ibiltzen: zergatik orduan ordaindu behar? Aspaldikoa baita eszeptizismoa, aspaldikoak dira satirak ere. Hargatik, sinestunek kontatzen dituzten istorioen arabera, ongi merezitua zuten apezek saria, haien eginkizunak ez baitziren arriskugabeak eta lan istripuak ere gertatzen ahal ziren.

X. APEZ HEROI SALBATZAILEAK

Kaltegarritzat hartzen diren herensugearen eta basajaunaren garaileak dira apezak eta noizbehinka larrutik ordaintzen zuten, heroi salbatzaileak usu hiltzen baitira borrokan. Zuberoan, Altzaiko herensugea kalitu zuen Athagiko zaldunak, adibidez, bizia utzi zuen ekintzan, piztiaren pozoiak odola ur bilakaturik edo beldurrez (Cerquand 1986: 94). Baina herria libratu zuen. Berdin badira apezak ere herritarrak laguntzeko hilak. Gorbeiaiko Supelegorren bizi den Anbotoko Andere ekaitzegileari bere harpean konjurua bota ziezaion eskatu zioten artzainek apez bati; egin zuen, bai, baina sotana erre zitzaion modu bitxiaz eta laster hil zen, ikaraz (Barandiaran, 1973b: 340-43).

Apez mitikoez, sakrifizioa bilatu gabe, maiz onartzen dute beren funtzioak dakarkien arriskua:

Orozkoko San Juan auzoan hil zen gizon bat; eta ez ei zen jende ona izan. Eta gauean agertzen zen gero gaztainondo baten gainean, dena su eta gar, oihu ikaragarriak egiten. Herritarrak beldurtuak ziren eta elizgizoni eskatu zieten zeozer egin zezaten. Eta fraile bati tokatu zitzaion agertuari aurre egitea.

Joan behar izan zuen, beraz, eta oihukariak galdegin zion hil ostean jantzi zioten habitu bedeinkatua ken ziezaion, harengatik handiagoak zituen-eta infernuko oinazeak. Fraileak, kondenatua ez ukitzeko, kako bategaz kendu zion habitua. Gero etxera joan zen eta ez zuen gehiago urten: ikaraz hil zen, odolak bihurturik. Kondenatua ere ez zen gehiago azaldu eta bakea izan zuten auzoan. Leku horri Kako-erreka deitzen diote geroztik, kakoagatik (Arana, 1996: 138; Barandiaran, 1973b: 57-61; moldaturik).

Herria munstrotik begiratzeko bere bizia galdu zuen fraile hau gorago ikusi dugun apez atzipakor eta irringarriaren kontrapuntua da, inbertsioa ere, bien heriotzak alderatzen baditugu.

Ohar berezia merezi du kondaira honetan habituak ekarri zuen ifrentzuzko ondorioak, salbazioan lagundu orde z kondenzazioaren oinazeak areagotu baitzituen. Istorioaren Azkueren bertsioan (1966: 364), fraileari ez zitzaion balio erabili zuen gurutzea, eta berdin hil zen. Mitologian aho bikoak izaten dira armak, edo huts egiten dute, eta Elizakoak ere hartara makurtu behar izan dira, moldatu egiten baititu tradizioak bere erara.

Halaber apezak, kristau jatorrizkoak dira baina paganismoak eraldatuak eta bere sistemara bilduak; eta harrezkero, kontraesankorrak dira ikusbide anitzetatik. Ahaltso eta garaileak maiz, Elizaren indar eta talisman magikoak eskura dituzten ber –ur bedeinkatu, bedeinkazio, otoitz, liburu, estola... Eta halere petxero eta pekatzaileak batzuetan, infernutarren kontra eta hilaren ukitu kaltegarritik babesteko nahiko azkarrak ez direnean erabiltzen dituzten armak, kakoa zein gurutzea. Tradizio zaharreko apezak jainkoaren zerbitzari dira eta, aldi berean, deabruarekin ikasiak; heroiak eta anti-heroiak zein hurbil diren erakusten digute, zein erraz pasatzen den batetik bestera eta mitologian zein mehea den onaren eta gaitzaren arteko muga.

MUSIKA

° Sarrera gisa Matiuren Ebangelioko bigarren zatia, “Cum natus esset Jesus”, München-go Capella Antiqua-ren *Gregorainische Gesänge* diskatik hartua.

<https://www.classicalarchives.com/work/595516.html>

° “Veni Creator Spiritus” gregorianoa, airearen bedeinkatze aipatzearekin batera.

<https://www.youtube.com/watch?v=5eQvN3aYvXc>

° Hodeia konjurtzean eta errogatibetan kantatzen ziren latinezko letanien faltan, Joan Krisostomoren liturgia ortodoxoak entzuteak kutsu exotikoaz tindatuko du gure tradizioa, "Ora pro nobis" orde "Hosspodi pomiluj" (kyrie eleyson) errepikatuz (*Die Heilige Liturgie der Ostkirche* disko zaharretik, Harmonia Mundi).

<https://www.youtube.com/watch?v=SS6UmaN7-Uk>

° Shostakovitch-en *Leningrad* sinfoniako lehen mugimenduko "Inbasioa" deitu zatia, apezaren eta ekaitz-deabruaren arteko borrokan.

<https://www.youtube.com/watch?v=gGnv23IRDvM>

° Oskorriren “Kyrie Eleyson” eta Hiru Truku-ren “Lixibatxoa”, apez emaztezaleen kari.

<https://www.youtube.com/watch?v=OQMgDtCEeXI> (39:15ean hasten da “Lixibatxoa)

* Bach-en *Matiuren araberako pasioaren* bukaera, herriaren alde bizitza galdu dutenen oroimenez eta omenez. <https://www.youtube.com/watch?v=18EMloAEugA>

VIII. kapitulua

BIDARRAIKO HARPEKO SAINDIA¹⁰

Hunkidura handia eragiten dio bisitariari Harpeko Saindiak, lehen aldikoz ikusten duenari bereziki, leku berezian baita. Harpean izan zen Alsaziako emazte batek horrela idatzi zion haraino lagundu zuen Marixan Zedarri Bidarraikoari:

Ezin dizut idatzi harpe hura ene oroitzapenean irudikatu gabe. Zorion handia da enetzat horrelako leku paregabea ezagutu izana.

Beldurra ere ematen ahal du, eta emazte bidarraitar batek hori bakarrik oroitzen du:

Ez naiz ongi oroit, bakarrik behin izana naiz amarekin, zazpi urte edo nituelarik. Gero, buhameen bestara joan nintzen, “Saintes Maries de la Mer”, eliza batean egiten da, lurpean... Biziki inpresionatua nintzen: “Oi ei ai! Ez dut holakorik ikusi ere nahi, jadanik ikusia dut ene herrian, haurra nintzenean, Saindu hura mendian, harpe batean, beldur ematen daut!”

Hainbestearaino inpresionatuak zirenek oinez egin behar izaten zuten bide osoa —orduan ez zer errepiderik-, hastapenean erreka oihanpe ilunean eta gero mendi-mendian.

I. BIDEA

Bidarraiko Noblia zubitik Harpeko Sainduraino bada bost kilometro luze, kasik bi oreneko bidea. Beilari arrotzak bururaino laguntzen zituzten bidarraitar haurrak oroit dira zein gogorra zen ezagutzen ez zutenentzat:

Zinguriak eta negarrak ibiltzen zituzten, urrun baitzen Harpeko Saindia oinez. Baina gero, han sendatzen zirelarik, bistan da, denak kontent (Marixan U.).

Errobi ibaira isurtzen den Baztan errekan gora, Ezpata auzoan barna, Infernuko zubia pasa eta, ezker aldetik jarraiki Bernateneko malda azpian ura gurutzatu arte, Harruseraino segituz, beti errepidean. Harrusetik hara oinez ibili behar da harperaino, GR 10 xendratik, aldapan gora lehenago eta mendi-saihetsean gero. Orain seinalizazio panelak badira gainera, ez euskaraz, “Le Saint qui sue” baizik (Izerdidun Santua). Harpearen heinera heldu eta, eskuineko mazela xutean ikusten dira blokez egin mailak: hantxe gainean da harpea.

¹⁰ Kapitulu hau lan luzeago baten laburpena da: *Bidarraiko Harpeko saindua*, Haranburu, Donostia, 1985

II. LEKUA

Harpeak hiru angeluko forma du, erpina goian duela. Bost metro zabal, bost sakon eta bost luze eman zizkion Barandiaranek ahoari. Gela barneko ezker aldean hamar maila badira, pasaia hertsia eta labur batera buruz, eta haren muturrean dago Saindia: argia eraman badugu, harri bat ikusiko dugu, estalagmita bat, jende gorputzaren itxurakoa -bizkarra erakusten omen du- baina bururik gabe, 1,10 metro gora eta 0,20 zabal. Harriari ura dario eta sabaitik ere xortak erortzen dira. Horrek guztiak zirrara nahikoa ematen du: "Sesitia zira, pertsona bat zira eta ilun da xoko hartan", erraten zuen Marixan Zedarrik, lehenengoz hartaz mintzatu ginenean, 1982ko irailean.

Gauza anitz ikusten dira harpean, bisitariak utziak: 1982ko agorrilean, inkesta hasteko zerrenda egin nuenean, mokanesa asko zenbatu nituen, bai oihalezkoak, bai zelulosazkoak. Haur atorrak eta zapiak (zelulosazkoak ere...). Erramu eta inarra sorta bana. Lourdesko Ama Birginaren irudiak. Marmolezko plaka batzuk, hilarrietan ikusten direnetakoak, batean grabaturik "A mon parrain", beste batean "Souvenirs", beste batzuetan "Merci St. Bidarray" edo "Merci". Paper tiki anitz tolestatuak eta haitzaren arrailetan sartuak, haietan otoitzak ("Begira gaitzazu") edo eskerrak idatzirik. Familia Sainduaren metalezko plaka bat, eta beste bat Santa Teresarena. Arrosarioak, metalezko eta zurezko gurutze tiki andana -bi ziriz eginak- eta arrosario gurutze tiki asko, medailak ere anitz. Tortxak eta, pausatua izan diren hormako harriak, haiek utzi negarrak. Meza liburu bat haitzeko goi malda batean. Dirua biltzeko kutxa bat eta txanponak haitzaren zirrikietan.

Horrelako gauzak ikusiak nituen harpera joana nintzen guztietan. Alabaina, 1982ko agorril hartan ez ohikoak ere baziren, orduan bakarrik atzemanak: Intsentsu pakete bat (*Spiritual Sky*, hippy garaia zen); baziren ere oihalezko xingola handiak, kolore bizikoak, urrundik agertzen zirenak eta, itxura, harpea apaintzeko asmoan ezarriak; ihi tortxak ere bai, jadanik erreak, eta aipatu plaka batean, "Merci" gainean, "Eskerikasko (sic) Andere Mari", gorritz idatzia. Gazte talde batek dekoratu omen zuen harpea gau batez eta, Mariren izenak salatzen duenez, Barandiaran irakurri eta aitzineko erritu paganoren bat berritzeko nahian edo.

Barandiaranek, 1945ean egin ikerketan, txanponak aurkitu zituen, bai diru-kutxan (Bidarraiko apezak biltzen dituenak), eta bai harriaren gibelean, hau da, Saindiarentzat berarentzat emanak izan bailira, eta ez elizarentzat.

III. ERRITUA

Gauza horien guztien zergatia Harpeko Saindian betetzen diren errituek esplikatzen dute. Saindiak bere gorputzari darion uraren bidez sendatzen du, bereziki azaleko eritasunak, negala eta holakoak.

Saindiaren gorputzeko hezeari izerdia erraten diote (hortik, “le Saint qui sue”). Eriek mokanes batez hartzen dute ur hori eta hartaz torratzen dute larruko mina. Gero mokanesa bertan uzten dute anitzek, eskaintza gisa, edo, batzuek diotenez, eritasuna hartan gelditzen delakoan.

Eria ezin bada Sainduraino joan, beste norbaitek eramango dio botila batean harpeko sartze azpian isurtzen den ura; baina, diotenez, hobe da norberak bertan torratzea, zuzenago egiten baita. Bidarraiko berriemaile batzuek deskribatu zuten erritua, eta honela egin zuen Beronika Karakoetxeak:

Han jendeek, izerdi hartaz, minak edo zer zituzten torratzen zituzten. Ekzema zerbait balin bazen, han, ur hartan, ura heldu delarik, mokanes edo zerbaitez hura torratuz, saildu hura torratuz, ur hartaz garbitzen zenitin haiek (*minak*). Eta hek ere (*mokanesak*) han uzten: mokanes edo zerbiet berdin, edo oihal harizko bat berdin. Eta hango uretik ekartzen zen etxera, xortaño bat beti.

Gutiz gehienek harpean berean egitekoak egin eta etxera eraman ohi dute ura; dena dela, idorte denean, Sainduak ez du izerdirik ematen:

Orain (*1982ko irailean*) ez da urik, agortua dago; baina bada erreka ttipi bat, hola, peko aldean, eskuinean, eta hartan hartzen dute jendeek ura. Zeren eta Saindiak emaiten duen uretik ez duzu botoilan ekartzen ahal, egun guztia otoitz eginik ere: han berean eskia pasatu eta zure buria pasa, oraino, bainan ez botoilean ekartzeko (Yvonne E.).

Saindiaren izerdia lortzeko, haren gorputza torratu behar dela zioen Jose Mari Kastantxok:

Han, bizkar hori, ipurdiko gain hori, torratzen duzu eta izerdia heldu da hortik: torratzen ez baduzu pitxik ez da heldu. Batzuk mokanesarekin torratzen zuten hura, eta nun duzun arregura harekin torra. Eta berriz denak (*mokanesak*) han uzten, xukatzen (...) oroitzapeneko uzten zuzten.

Otoitz ere egin behar da, Yvonne Elorgak eta Maiana Bernatenekoak hitz berdinetaz baieztatzen dute: “Lehenago erraiten zuten zuk otoitz eginago eta harek izerdia ematen zuela gehiago”. Lagungarria baino areago premiazkoa, batzuek uste dute otoitz egiten ez bada ez dela pitxik heldu.

IV. OTOITZA ETA ESKAINTZA

Ez da otoitz berezirik, elizan bezala egiten zen, belaunika ere bai:

Izan naizela harat, bidea erakusterat jendeekin, arrosorio osoa otoitz egiten zuten. Arrosorioa egiten da, hura eta Agur Maria. Gero mokanesa busti eta arreguran torratu (Maiana B).

Lourdes-en Ama Birginari nola egiten da? Galdegiten duzu han: bistan da, ez oihuka, baina galdegiten da arregura delarik (Mari K.).

Batzuk, hona jiteko, Harpeko Saindura jiteko, beren koosioa (*kofesioa*) eta komunionea eta dena egin egiten direnak: koosaturik eta komuniaturik, Bazkoak egiten diren bezala, hala-hala egiten direnak, hainbertzeraino deboziona gogoan harturik, eta nahiz resultat on bat izan (...): “Beno, orai behar dut berriz koosatu eta komuniatu eta gero berriz joanen gira Harpeko Saindura, gure eskerren bihurtzera Saindiari”. Hara, nik hola aditu izan dut jendeer erraiten (Beronika K.).

Beila egin aitzin edo beilan berean konfesatzea aspaldiko ohitura da: XIII. mendean Donejakueko bidariek hala egiten zutela dio *Legenda Aurea*-k (Varazze, 1967 II: 477).

Bietan dute parada debotoek Saindiari eskaintzak uzteko: lehena zerbait eskatzera joaten direnean, bigarrena, hura erdietsi eta, eskerren bihurtzera berriz joatean. Eskaintzak zer nolakoak diren ikusi dugu gorago: harpean atzematen ahal diren gauza guztiak.

Mokanesak uzten zituzten xukatzen, oroitzapeneko uzten zituzten. Eta gero sosak: batzuk sos bat, bertze batzuk bi sos. Hola, bakoitzak ahal zuena. Eta gurutze ttipi batzu ere bai. Ganibetaz egiten dira, erramiarekin: ziri batzu egin, hura arraildu eta ezartzen zituzten han, peñaren kontra, zonbaitzuk (Jose Mari K.).

Jendeek tortxak han uzten dituzte pizturik eta medailak. Edo uzten zuten arrosorio bat, edo oroitzapen bat, edo sosak (Mariena B.).

Denek emaiten zuten edo dirua edo zerbait uzten. Zonbait aldiz haurren arropak uzten zituzten han, ez sendatu ondoren bainan sendatu baino lehen, lehendabiziko aldian. Eskaintza egiteko egiten zuten, ene gostuko: eriares eskaintza, haren zerbait iduri izateko han. Gero sosa ere uzten da (Marixan U.).

Aditu izan dut nik jendeer, zonbaitek arrosorio pare bat uzten, bertze batzuk berdin mokanes batzu, bertze batzuk fulard batzu, bakoitzak zer ideia zin. Bertze batzuk berriz, sosak uzten (Beronika K.).

Mesede bat lortu dutenek, bereziki, uzten dute zerbait.

Sendatzen dena ez bada berriz etortzen, mina berriz ateratzen zaio. Hori ere ikusi izan dut (Angela H.).

Erremerziazera jiten dira, ordion uzten zenitin edo saindu batzu edo arrosorio batzu... (Beronika K.).

Sendatu nintzelarik izan nintzen erremerziazten. Geroztik ere izan niz (Jose Mari K.)

Zonbat aldiz ikusten dira zilarrezko gauzak eta, bistan da, han beste jendeek ebasten dituzte. Izaiten dira biziki gauza pollitak, zonbait aldiz, gurutze batzu biziki ederrak. Eta gero faltatzen ziren handik; aldi batetik bestera, beti baziren gauzak eskas (Marixan U.).

Nik ezagutzen dudan neska bat Amerikatarat joan zen aitamekin. Eta amak hil gabe erran zakon: “Bon, Bidarraiko Saindiak eman baitaut eta nik behar dudana, eraztun hau hartuko duzu eta han emanen”. Maleruski bizpahiru egunen burian eraztun ederra falta zen. Hori da. Eta hola zenbat istorio... Horiek egiak dira e? Horiek egiak dira. (...) Kanboko gizon batek ere nahi zin eta “une chapelle” edo zerbait egin. Gure apezak erran zakon ezetz, eta sos hura Bidarraiko elizarat emaiteko (Elizetxe E.).

Saindia eta apezan artean, 1960 arte-edo, izan zen etsaigoaz jendeek marmar egiten zuten: elizarendako bildu Saindiaren sosak eta gero hura arbuiatzen zutelako, eta ea zergatik ez ziren diru horiek erabiltzen bide txar hura doi bat arranjatzeko, behar handia baitzuen, oraindik asfaltatua ez zenean.

Harpeko Saindian egiten diren erritu eta eskaintzen antzekoak beste leku askotan ere aurkitzen dira, hasteko Euskal Herriko eta Gaskoniako iturri andana batean. Holako ohiturak biziki zaharrak dira eta ez sobera aldatuak, jadanik Tours-eko Gregorioak deskribatu ditu bere garaian (VI. mendean): aintzira bati oihalak, jantziak eta jatekoak eskaintzen zizkieten, euria eginarazteko (Eliade, 1975: 175).

V. BEILARIAK

Anitz jende ibiltzen zela Harpeko Saindian oroit dira bidarraitar zaharrak:

Zer jendeak ziren!... Batzuk haurra bizkarrean, bertzeak besoz beso eriarekin... Harrusetik goiti (*aitzinean duen mahaia seinalatuz*) hau bezain garbitia atxikitzen zin bidexka hura, malda hura, jendeak: goiti dabilki, goiti dabilki... (Jose Mari K.).

Inguru guztietatik etortzen ziren jendeak, Baztandik, Lapurditik, Zuberoatik... Ostaler batek erreklama eginik, kazetariak etorri ziren, *Paris-Match*, *Jours de France*... Eta gero jin zen jende, hola! Parisetik, Belgikatik... jende oso gaixoak: bat bidean hil omen zen. Etortzen ahal ez zirenei Sainduko ura igortzen zieten hemengo lagunek, urrunera batzuetan, Alsaziara, Marseillara, Argentinara...

Bidarraitar batzuek, bistan da, usu ibiltzen ziren inguru haietan. Oroitzapen hunkigarriak ditu Beronika Karakoetxeak, etxekoekin eta astoarekin haurretan egin ibilaldiez. Erreka bazterreko oihanpean eta patarrean gora, astiro haien urratsetara jartzeko, egokia iruditu zait Mahler-en lehen sinfoniako "Ehiztariaren ehorzketa" erraten zaion martxa: oihaneko animalien progua eta "Bruder Martin" ("Frère Jacques") leitmotiv-aren melodia gogoan, neskatilarekin batera egin genezake Sainduko bidea:

Ez ginen negian joaten, negia ez da sobera agreeable han. Komunzki maiatzean joaiten ginen, denbora eder eta klar batez. Goizean partitzen ginen aitaxirekilaran, goizeko freskuran. Gauari buruz ez zin nahi gure ama zenak joaita hari buruz: leku peniblea zela han, sekula jende batek min hartzera edo zerbait heldu balin bazen gauari buruz... ez zela prudentzia. Nehork ez du erraiten ahal, erori eta hezur bat hautsi edo zerbait... Eta gero, arratsaldearekilaran ez da ontsa ageri han, Saindu hura, ilunago jartzen da, goizean argi gehiago da (*ekialdera begira dago harpea*).

Beti hek, gure aintzineko zaharrek, eni erran dautate hori: goiza behar zela hara joateko. Eta aitaxirekilaran eta ama zenarekilaran ere, beti goizearekilaran izan niz, han arribatzeko gisa eguerdi baino biziki lehenago, hamarretan, hola. Gero fite hango itzulia eginik etxera jiteko gisan; ez baitzen, orain bezala autobiderik eta. Bide penosa baitzen, bide penosa baitzen.

Ni nintzen astoarekilaran "xoferra": ateratze ziderra bada gero han. (...)

Ama zenarekilaran izan naizela, behin baino gehiagotan, eta aitaxirekilaran joaiten nintzelarik, komunzki tortxa pare bat hartzen genin urte guziz zerean, Ganderailuz benedikaturik, tortxa fresko-freskoak. Eta beno, tortxa heetarik joaiten (*eroaten*) genin eta han uzten pizturik. Otsailaren bian, Ganderailuz benedikaturik, urte oro: urte oro pare bat benedikutzen, beti, eta gero han pizten genitien. Iluna zen biziki han argirik gabe. Ordion, han piztu, ontsa gauza ikusteko, eta han uzten genin tortxa pizturik, eta partitu, argia han utzirik zerbaiten kontra: "Hori arrastazan ontsa, ez dadin tortxa eror, uzkaile ez dadin, zutik egon dadin" -erraiten zaudan aitaxik.

Beti ama zenak hola erraiten zin -eta aitaxi zenak-: “Bertze aldi artio Saindia, uzten zaitut eta bertze aldi artio”. Ba, horra. Eta “Otoi, lagun gaitzazu”, erraiten genin.

Ni izan nintzelarik, bertzenaz, utzi izan dut beti hola, tortxa edo arrosorio bat. Nahi bazenin, medailak ere uzten zenitin (Beronika K. laburtua).

Bisita pribatuez gain, gerla aitzin bazen Harpeko Sainduko beila Trinitate egunean. Orduan trumilka etortzen zen jendea, oinez, Mehatxeko lepoan gaindi Itsasutik, Ainhoatik, Ezpeletatik. Gero besta egiten zuten Burkaitzenbordan eta Lezetakobordan: akordeoi txar bateko musika bazuten eta “besta polita egiten zen euskaldunen artean, karabineroak sartu arte!” (Elizetxe E.). Sumusenbordan ere egiten zen besta Mendekostez. Ez zituzten denek gustuko jai horiek, beilari zintxoek ez zezaketen denbora pasa musikan eta algaretan: “Jendea zinez heldu zena Sandiari buruz, itzultzen zen fite etxerat”, dio Beronikak.

VI. SENDATZEAK

Azaleko minak eta ekzemak dira bereziki osatzen Harpeko Saindian, baina besteak ere bai, kabalenak zein jendeenak. Sendatuak kontaezinak direla diote berriemaileek eta bakoitzak badu zerrenda bat berak ezagutu ditueneguz egina, gehienak haurrak.

Nik badut iloba ttipi bat, emokatia zen dena ekzemarekin, negalarekin, aurpegian. Ez zen hurbiltzen ahal ere. (...) Izan ziren hor eta zortzi egunen buruan haurra garbitu zen (Mariena B.).

Ene iloba ttipi bat -bi baditut- jusetan heldu, dena zakarraz betea. Horrat joan eta hola egin eta gibelatekoko xukatia. Eta sendatu gero (Angela H.).

Ikusi dut haur bat -senarra hemen bazen erranen zauzun - holakorik ez dut naski behin ere ikusi: bainan dena, dena zakar: ez zin ixkilima buru baten pausa biderik garbirik. Eta haur hura ekarri zuten hiru-lau asteren buruan berriz: larru guztia fin-fin-fina, oraino zikatrizza ageri, baina dena sendatua. Deus gabe. Eta zenbat holako (Angela H.).

Beste istorio bat ere haur bati buruz, mirakulu handia izan gabe, bere garrantzia duena:

Istorio hunek badu beharbada 10 urte baino gehiago (1982an, beraz 1970.koa dateke). Donibanera (*Garazira*) joan nintzen eta trenean emazteki bat kausitu nin bi haurrekilan trenean. (...) Hemen sartu bainintzen, Bidarraiko garan eta, erraiten daut eta:

-Zu bidarraitarra? -eta

-Hala niz, ba.

-Ni lekondarra niz... A ba, izana niz ni Bidarraiko Saindian, ba, hementxeko bi haur hookin.

-A, bon, bazenin ordian zerbait arregura...

-Ba, ba, banin.

Haurrak biziki normalak emaiten zuten, partikularzki mutikoa, xarmanta, mutiko hark bazitin berdin hamar urte, ene iduriz, e? Haur hura eleketan eta dena bazekien untsa. Eta haur hark, haur hari egundaino ez ziezakoten ogirik janaraz; bertze gauzetarik zernahi, zernahi jaten zin haur hark, haurrak jaten zin zernahi bertze gauzetarik, e? Eta ogirik ez ziezakoten janaraz. (...) Medikietarat eta denetara joaiten zuten; medikiek erraiten zioten, bon, hasiko zela ogia ere jaten haurra. Ba, baina, laborari etxe eta, badakizu, hek ez ziren hala kontent.

Hola denborian, norbaitek erran omen zioten haur harekidan zertako ez zuten egiten beila bat Harpeko Saindura. Eta denbora berean, mutiko eta neska baitzieten berekidan, neska hark bazin ekzema, omen, eta harendako ere bazebiltzaten hantxe-hementxe midiku egiten, badakizu... Ba, baina haurrari ez zitzakon joaiten ekzema hura.

Azkenean hartu omen zuten ideian behar zutela senar-emazteek beren bi haurrekidan Saindura jin, eta behar zutela ikusi ea beharbada mutiko hura ere, hark ere zerbait abantail harrapatuko ote zin -haurrak ba omen zitin, mutiko hark ere, ezagutzak eta denak, e? Mintzo eta denak, badakizu, salbu ogia ez zin jaten.

Horrara ba jin ziren, hor egin zuten beren deboziona, eta haurra etxera joan eta ogia han jaten hasi zen.

Gero neska hark hementxe, nunbait hor -erakutsi zadan emazte hark- oraino bazitin, badakizu, markak, nun ukana zin ekzema, neska harek, ba. Eta harendako ere han, delako saildu hura torraturik, hartaz, ur hartaz, garbitu zuten. Eta hara jintxo, haurra bederatzigarren eguneko, neskak joana zin ekzema.

Beno, izigarri kontent, izigarri kontent, mutikoa ogia jaten, ogi eta gasna, ogi eta xokolet, alo, emaiten zakoten ogi guzia: bazkaritan, afaritan bere ogia jaten jende normal batek bezala. Konprenitzen duzua? (Beronika K.).

Ikusten denez, haurrekin du Saindiak zaletasun handia. Mutu egoten zen haur bat ere mintzo zen:

Lehenago nik erranen dautzut istorioa, ez da istorio, egia, pasatu dena. Ene senarraren ama mendian bizi zen, arrunt mendian, Zuhaian. Oinez joaten ziren, ez zen pitxik (autobiderik), mendiz mendi Bidarraitik Ezpeletara... Eta egun batez jin zitzakola gizon bat, (...) eta Harpeko Saindiaren bidea galdegiten zakola. Eta sarrarazi ziela -badakizu, Euskal Herrian beti bada holako eta, zerbaiten hartzeko...- Eta izigarri denbora txarra zela.

Eta gero han jakin genin gizon hark -Kanbon medikia zen- bazin haur bat mutia, eta haren zerbitzuko bazen neskato bat euskalduna. Eta neskatoak erran zakon nagusiari:

-Bazazu, nagusia, emadazu eni laguntza pixkat, nik joanen dut haur hau Harpeko Saindura, Bidarraitat.

Eta hola izan zen, medikiak eman zakon haurra... eta laguntza eta jin zen Harpeko Saindura; bainan beti oinez, mendiz mendi. Eta gure amaren etxera sartu zirelarik gizon hek abiatiak ziren denbora txarra ikusita, heen (*haur-neskatoen*) biderat, xerka. Eta badakizu mendia nola den, ximista eta, izigarri leku baita... Haurra izitu, emazteñoa ere, izitiak ziren, trenpatiak. Eta aita ikusi haurrak, eta oihuka hasi zela: "Aita! Aita!", mutia. Voilà.

Jende hek beren bizi guztian bazutela Harpeko Saindiarendako amodioa... (Elizetxe E.).

VII. PUNIZIONEAK

Eskerroneko jendeak estimatzen ditu Bidarraiko Saindiak: sendatu eta eskerrak bihurtzera joaten ez denak berriz eritasuna harrapatzen du. Baina trufariak ditu bereziki begitan, eta haietaz mendekatzen da:

Hura ez dakit batere nungoa zitakeen. Norbait jin omen zen horrarat, Harpeko Saindura, bere ustez beilan. Doaikabe ez zin sineste handirik, horreratu eta erran omen zin:

-Hau saindia dela? Hau saindia dela? Hau deus ez duk, hau kaka-saindia duk.

Harengatik, e? Beno, ez zin arrazoina, haren erraitearen beharrik; harek ez zekien ea zer zen, bai edo ez: ez zekien pitxik!

Handik partitu eta etxera gabe, salbu errespetia, eta ikaragarriko beheitikoa jautsi omen zitzakon pretsuna horri. Eta berriz horra gabe ezin sendatu. Berriz joan behar izan zin horra eta eskerren bihurtzera (!?), barkamendu galde egitera. Bai. Miriku eta istorio eta komeri, dena. Ezin erreusitu!

Nik erranen dut: Kaxu! Gauzetan ez da sobera trufatu behar, ez da sobera trufatu behar. Egon ixilik, egon ixilik bederen. Zer nahi duzu? Hura han balin bazen hala, e be, zerbait bazen hura (Beronika K.).

Beste berriemaile batzuen erranetan (Jose Mari K., Elizetxe E.), zangoa haustaraztea da Saindiaren mendeku ohikoena. Erran behar, lehen zen bezalako bidean, Saindiaren laguntza behar zela zangoak zuzen atxikitzeko. Holako tokietan ohituak ez direnak –arrotzak bereziki- izaten dira petxeroak. Batzuetan, mespretxuz erraten duenak Saindiak ez duela berriz ikusiko, zerbait han ahantzi eta arra-joan behar du gauza horren bila.

Bada zigor bat larriagoa. Aspaldian, emazte batek, Gaxuxak, hartu omen zituen Saindiaren sosak eta berehala punitua izan zen: batzuek diote aztala eraman ziola mamu batek, edo deabruak, edo aire-gaixtoak (*oinazturak*):

Han, Harrusean, emazteki batek -Joanes zin izena senarrak eta emazteak Gaxuxa-, emazteki batek han berean sosak ernegatu zitin. Eta egun hartan, omen, eta arratsean denbora gaixtoa egin zin, izigarri: ihurtziri eta. Eta jarririk omen zagon Gaxuxa senarraren beha -senarra kanpoan zin nunbait lanean-, eta beti supazterrean zagolarik, gainerik beheiti sartu zakon zerbait eta brasa dena barreatu: sartu brasan, ximinitatik beheiti sartia zela -hala egin zuten-, supazter guztia barreatu zin eta aztala ereman (*Gaxuxari*). Ni gau hartaz oroitzen niz ni, zer gaua zen hura: izigarri zen ihurtzuria eta ximista, ximista, ximista ximisten gainean. Gero, berehala barreatu zen aire-gaixtoak joan zakola supazterretik zera, aztala. Gero egin zakoten midikiek zapeta larruzkoa. Baina ez zen... gero beti hola ibiltzen zen, beti hola (*maingu*) (Jose Mari K. laburtua).

Beste batzuk diote zurruta zilotik sartua zela Gaxuxari aztala eraman zion mamua.

VIII. HASIERAKO MITOA

Nor da eta nola dago Saindu hura harpean? Misterio bat zela erraten zuen Beronikak:

Nehork ez du konprenitu behin ere, badakizu? Nehork ez du konprenitu. Harpeko Saindian, Saindia sartia izana da hamabi argiekilan, Saindu hori. Eta gero, denbora hartan, argi heekilan Saindu hori sartzen ari zelarik memento hartan, Ohatarreko kabala guztiak orro eta marruma... ez omen ziren ixildu hura han sartu arte; hura, Saindu hura han sartu arte.

Badakizu, Lourdesko mirakulia bezala sartu zen han. Pentsamazu, gure aitatxi zena haurra zen oraino, denbora hartan, hori gertatu zenean.

Hamabi argiekilan sartu omen zen hura gauaz. Eta sekulako mogimendia: Hause, Harruse, Bernateneko, Putzuko, kartier hortako kabala guziak, denak marrumaka ari izan omen ziren. Eta ordion Saindu hura han pausatu eta gero fini! (Beronika K. laburtua).

Hori noiz gertatu zen galdeturik Beronikak zehazten du: "Gure aitatxi haurra zen oraino. Eta orain (1982an) 42 urte hil dela, 97 urtekin". Gertakari harrigarri hura mitoaren bigarren partea baizik ez zatekeen, hori baino askoz lehenago beste zerbait agitu baitzen.

Nik aditu izan dut (...) neska bat bazela galdua zena artzaintzan ari zelarik, eta ez zuten harrapatzen. Eta -denboraren burian, badakizu denbora handi bat joan izanen zen doaikabe-ikusi zuztela gau batez hamabi argi hor, zilo hortan sartzen, eta geroztik etorri zirela jendeak horrarat eta ordutik hasia zela. Ene amatxiri eta aitaxiri hola aditu izan dut (Harruseko Angela).

Barandiaranek (1973a: 410) 1938an Harrusean berean entzun zuenez, zen neska bat, artzaina, Eguzkimendin galdu eta burua bakarrik atxeman zuten. Gero, arratsetan anitz urtez mintzoak entzuten ziren, "Ago, ago", Eguzkimendi aldetik, eta gauerdia batez argi bat -edo hamabiki- ikusi zituzten harpera sartzen: hara joan ziren eta han ikusi zuten neskaren gorputza.

Mitoaren eskema -neska galdu, harpe batean bildu eta hartan berean argia sartzea- Anbotoko Anderearen jatorria kontatzen duen kondaira tipoa batean aurkitzen dugu. Andere hori izango zen neskatoa arrats batez, behiak biltzerakoan bat falta zuela eta haren bila joan zen; gorri bat ikusi zuen eta, berea zelakoan, jarraitu zitzaion; baina behi sorgin bat zen eta leize baten barrura eraman zuen neska; han gelditu zela diote, hura zela Anbotoko Anderea, bere haitzulora sutan joaten dena (Barandiaran, 1973a: 398). Barandiaranen ustez Harpeko Saindia dibinitate horren agerkera edo modalitate bat da.

IX. SINESTEIA

Berriemaile batzuek, Harpeko Saindiaren eta hari darion uraren indarra esplikatzeko, Lourdes-ekin alderatzen dute eta hango ur sendagarriarekin: funtsean, batean posibleak badira mirakuluak, zergatik bestean ez?

Lehen erraiten zuten bazirela hola, mirakuliak gertatzen zirela. Hala Ama Birgina ere nola agertu zen Lourdes-en. Beharbada, berdin gertatu zen (*hemen*). Ez gure denboran, e? Jinkoak daki noiz (Mari K.).

Hortaz logiko da edozein elizatan bezala otoitz egitea han, belaunikatu ere:

Izan naizela harat, bidea erakusterat jendearekin, arrosorio osoa otoitz egiten zuten. Arrosorioa egiten da, hura eta "Agur Maria" (Marixan U.).

Eta Beronikaren iritziz Harpekoak ez ziren beste sainduei zorrik.

Nik elizako saindiak ere, segurki, saindu kartsiak ditut. Bainan horko hura kartsiago daukat, e? Ene gostuko. A, bai! Kartsiago daukat nik horko saindia. (...) Hamabi argiekilan Saindia hor sartu zelarik, jakizazu hark baziela kartsutasuna, e? Hor sartzeko. Nik ez dut aditu nehun saindurik sartu izan dela hola. Ez, ez. (...) Sartu zenian aingeru hura, hemengo kabala guztiak marrumaka eta orroka... (Beronika K.).

Oraingo sinestea, halere, ez dateke lehengokoaren modukoa.

Gaurko egunean zaila da sinestea, jendea joaten da urarengatik beharbada, eta joatean joan, otoitzen dukete Saindu hura (Yvonne E.).

Berriemaile gehienak ohartzen dira oraingo gazteek ez dutela Saindiarengan sinesterik. Eta gazte batek, hain zuzen, damu du hartaz ikasteko parada galdu izanik:

Ene amatxik bazazkien holako gauzak, eta guk irri egiten genuen. Ordion, gero ez zin gehiago kontatu nahi, erraiten zin ez ziela balio guri kontatzea. Orain hil da eta ni gauza anitz jakin gabe gelditu naiz...

Ikasi nahi dutenentzat ez da berantegi, agian. Jakin eta sinetsi izan dutenak omenduz, eta Saindiaren berri eman diguten guztiak eskertuz bururatuko dut, bereziki Marixan Zedarrri, hark gidatu baitzituen nire lehen urratsak Bidarrain. Besteak ahantzi gabe, nahiz denak ez diren agertu laburpen honetan: Ane Miren Zedarrri, Marixan Uztaritz, Yvonne Elorga, Eugénie Elizetxe, Angela Harruseko, Maiana Bernateneko, Mari Kazernako, Beronika Karakoetxe, Isabel Etxepareko, Jose Mari Kastantxo, Ana Mari Kastantxo, Jean Cabillon, Julia Borda eta Mailuisa Sumusenbordako.

MUSIKA

Mahler da kapitulu honetako musikaria. Mendian du egoitza Harpeko Saindiak, eta Mahler-ek ezin hobeto kausitzen du naturarekin eta animaliekin ditugun loturak adierazten.

° Mahler-en III. sinfoniako lehen martxa, sarrera gisa, bidean beilariak laguntzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=h3nxzR87dxE> (gutxi gora behera, 10garrenetik landa, 3 bat minutu)

° Tapia eta Leturia Band-aren diskoko “Errosario Santua”, Saindiari zuzentzen zizkioten otoitzak, bereziki “Agur Maria”, oroitzen (soinu hau ez da sarean aurkitzen).

° Mahler-en I. sinfoniako “Frère Jacques” leitmotiv duen martxa, Beronikak aitatzirekin eta astoarekin udaberrian egiten zituen bidaia gogoangarriekin batera.

<https://www.youtube.com/watch?v=U5A5tFyXQjo>

° Navajoen seaska kantu bat (“Dawa”, *Indiens Sacred Spirit*, Virgin Records, 1994), Saindiak hurrekin duen zaletasuna aipatzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=t4KmakjxoQs>

* Mahler-en III. sinfoniako 3. mugimenduko “scherzando”, “Zer erran zidaten oihaneko animaliek” izenburu daramana: abereek -etxeok, ordea- marrumaka omendu baitzuten Saindia bere harpean sartzean. <https://www.youtube.com/watch?v=Ygteef546dl> (bereziki azken minutua.)

* Amaitzeko, Mahler-en III. Sinfoniako 1. mugimendua, “Baccus jainkoaren prozesioa”, beila eta besta egiten dituzten ibiltarientzat.

<https://www.youtube.com/watch?v=FpN-GYEdKKs>

IX. kapitulua

MARI, MAIRU ETA BESTE¹¹

Inork ez du zalantzan ezarriko Barandiaranek euskal mitologiaren ezagutzan izan duen garrantzia. Ez zuen, hargatik, zertan infaliblea izan, eta bideratu dituen ideia zenbait zehaztu beharrekoak dira, nire ustez. Zor diogun estimak ez luke oztopatu behar azterketako mesedegarriak diren kontuak argitzea, are eta gehiago hari esker dauzkagun materialak etengabeki erabiltzen baititugu mitoen ikerketan.

Izaki mitiko zenbait izendatzeko Barandiaranek erabiltzen dituen izendapen batzuk (“mairi”, “maindi”...) baztertu behar direla uste dut, alde batetik zuzenak ez direlako eta, bestetik, “Mari” hitzarekin duten homofoniagatik, asimilazio okerrak egitera eraman dutelako. Beranduxe bada ere, komenigarria da berrikuste zerbait egitea.

I. MARI

Hasteko, Barandiaranek Anbotoko Andereari emandako “Mari” izenaren egokitasuna ezarriko dut zalantzan, ondoan emango ditudan arrazoiengatik eta, bereziki, aipatu ditudan asimilazio desbideratuengatik.

Dibinitate feminino horri Bizkaian eta Gipuzkoan “Anbotoko Señorea edo Dama” esaten diote gehien bat. Horrez gain, Andere horren “izen tikia” Mari, Mariurrika, edo Mari Urraka dela esaten dute Durango aldean (Azkue, 1959: 368). Halaber Gipuzkoan, Murumendiko Damaren ondoan, Marimunduko ere agertzen da (Barandiaran, 1984: 127). Baina, maizenean, “Mari” izena “Señora”ri edo “Dama”ri gaineratzen zaio, hura ezabatu gabe. Lagun gipuzkoar zenbaiti galdeturik, ea etxean zer entzun duten, hauxe erantzun dute: Oñatikoak eta Elgoibarkoak “Anbotoko Señora” bakarrik entzuna zuten; Eibarkoak eta Zerainekoak “Anbotoko Dama”; Aretxabaletakoak “Anbotoko Señora” edo “Anbotoko Sorgina”, azken hau gazteek erabilia; Itziarkoak “Anbotoko

¹¹ Kapitulu honen oinarrian den artikulua 1996n argitaratu zen Baionako Euskal Erakustokiaren boletinean (*Bulletin du Musée Basque de Bayonne*).

Sorgina”; Mandubikoak (Ordiziako gainean) “Murumendiko Dama” edo “Murumendiko Mari”, baina haitzuloari “Damazulo” beti eta ez “Marizulo”.

Aski peioratiboa izan daiteke euskaraz Mari hori: hor ditugu “Mari-zikin”, “Mari-mutil” eta antzekoak (Peillen, 1991). Hots, eguraldi ona edo txarra egiten duen zeruko dibinitateak zerbait hobea merezi luke eta uste dut hobe genukeela tradizio zabalduenari atxikitzea eta “(Anbotoko) Anderea” deitura erabiltzea; bide batez gaizki-ulertu bat baino gehiago ekidin litezke

II. MAINDI, MAIDE, MAIRI: BA OTE DIRA?

“Mari” izenetik abiaturik huts handiak egin baitira, egin ere, eta Barandiaranek berak eman zien bidea, “Mari”k beste hainbat izenekin zerikusia dukeela esan zuenean. Hona bi testu esangarri:

MAIDE es también un genio nocturno que baja por la chimenea de la cocina para recibir las ofrendas que al retirarse a dormir hayan dejado los moradores de ella. En Mendibe le llaman SAINDI-MAINDI “Santo Maide”

A este genio (Lamin) se la atribuyen en Soule la construcción de los cromlechs; en Mendive, la de los dólmenes de la región. MAIRI-ETXE llaman al dolmen en la región de San Juan de Pie de Puerto, es decir, casa de MAIRI, que debe de ser una de las formas del nombre MAIDE, si no lo es de MARI, nombre de otro genio del que hablaremos más adelante.

INTXISU es el genio a quien se atribuye en Oyarzun la construcción de los cromlechs. Es por tanto el mismo MAIDE con otro nombre. La misma función ha sido asociada también a otros seres míticos, como SORGIN, JENTIL y MAIRU. MAIDE es de sexo masculino, su correspondiente femenino es LAMIÑ. (Barandiaran, 1972: 419).

El nombre de MARI puede igualmente tener relación con los nombres de MAIRI, MAIDE y MAINDI con que son designados otros personajes míticos, si bien los temas vinculados a estos son diferentes. (Barandiaran, 1972: 424).

Barandiaranek, beraz, Maindi, Mairi, Maide eta Mariren lotura iradokitzen du. Badakigu Mari nor den. Ikus dezagun nor diren beste hiruak.

Begira diezaiogun lehenik “Maindi” delakoari. Goragoko testuan, Barandiaranek dio “Saindi-Maindi”tik heldu dela; baina “Saindu-Maindiak” multzotik datorrela ikusten da beste testu batean, Mendiben bildurik:

SAINDU MAINDIK ximiniati beheiti sartzen zirela erraiten zuten lehenoko xaharrek (Barandiaran, 1973: 423).

Según creencias de Mendive, los genios que de noche entran en el hogar, después que los habitantes se retiran a dormir, se llaman *Saindi-Maindi*. (Barandiaran, 1984: 161).

“Saindi maindi” horiek, beraz, “Saindu-maindiak” dira, batuz “Saindu-mainduak” idatziko genukeena, baina ekialdeko euskalkietan determinatzailearen bokalaren aurrean u > i bilakatzen baita, ‘maindia’ ahoskatzen da ‘maindua’. Hitz multzo hori euskaraz hain usu egiten den errepikapena baizik ez da, zurrumuru, elur-melur edo ziri-miri bezalakoak. Saindu-mainduak badira, izan, baina ‘maindi’ hitz soila ez da existitzen, ez ‘muru’, ‘melur’ edo ‘miri’ baino areago bederen.

“Maide”ren kasua ez da hain argia, baina horrek ere existitzen ez duen susmorik badut. Ezin dut demostratu, ez baitut izena bere testuinguruan aurkitu Barandiaranen idazkietan. Halere, ‘Maide’ izena, determinatua denean, ‘Maidia’ izan behar da nahitaez. Eta pentsa daiteke Maidia’ ez ote den ‘Mairia’ren aldakina, alde batetik, d/r alternantzia oso arrunta delako euskaraz eta, bestetik, Zuberoako ‘ü’ soinua ez delako urrun frantseseko ‘eu’tik; hortaz, beharbada, ‘mairü’ren ahoskera bat da ‘maide’, eta ez alderantziz, Barandiaranek iruzkintzen duen bezala.

Eta nor da “Mairi” delakoa? Hitz hori ere ez da hola-hola existitzen, non ez den “Mairu” determinatua, hau da, “Mairia”, batuz “Mairua” idazten dena. Nor da, beraz, Mairua edo, hobeki esanda, nor dira Mairuak? Izaki horiek komunzki multzoan eta pluralean agertzen baitira mitologian.

III. MAIRUAK NOR DIREN

Cerquand-ek hauxe diosku haietaz:

Denbora hartan bazütüzün (ziren) kartielian (Altzürükün) Mairiak deitzen ziren basagizon eder, handi, azkar eta aberats eli bat, zoin Arrolanek hebetik kazatü beitzütien. Aste oroz Mairiak eta Laminak biltzen zütüzün libertitzera Mendikolandala (Cerquand, 1986: 19).

Horrelako mairuek antza handia dute Orozkoko jentilekin, haiek ere maskulinoak direla eta lamina femininoen lagunak. Mendikolandako mairuak eta laminak elkarren lagunak badira, Liginagako maideak eta laminak elkarren bikotekide diratekeen bezala, sexu desberdinekoak:

En Laguingue (Zuberoa), me decían que los nombres de Maide y de Lamina designan al varón y a la hembra respectivamente de una misma especie de genio mitológico (Barandiaran, 1962b: 9).

Esan daiteke, beraz, mairu-laminak eta maide-laminak bikoteak berdinak direla, eta “Maide”ak eta Mairuak bat diren hipotesia azkartua da. Bien ahaidetasunaz Barandiaran bera ohartzen da beste testu batean:

Los Mairi figuran también en algunos relatos suletinos recogidos por Cerquand. Así, dicen que los Mairi se reunían con las lamina o lamias para divertirse con éstas un día cada semana en el campo de Mendy, lo que parece revelar que en la casta de las lamias los Mairi eran de sexo masculino como los Maide (Barandiaran, 1984: 124).

Lamina femininoen paredro izateaz gain, zein diren mairuen ezaugarriak eta zer den haien izena azaltzen du Barandiaranek:

“Mairu”: tipos de hombre de otro tiempo, no bautizados. (...) A los Mairu se atribuye la construcción de ciertos dólmenes y cromlechs (...) Mairuetxe “casa de Mairu”, dolmen de Mendibe (Buluntsa). Personajes de este nombre figuran en varias leyendas de Baja Navarra, de Lapurdi y del extremo oriental de Guipuzkoa con tales funciones. En otras zonas del país estas labores van asociadas a otros nombres: mairi, maru, moru, jentil, maide, lamina, sorgin (Barandiaran, 1984: 124).

Nafarroan 'moro' esaten diote bataiatu ez denari; eta 'jentil' hitzak pareko esanahia du, “ez kristau”. Frantsesez “Château des Maures ou des Lamignas” esaten dio Cerquand-ek (1986: 35) Mendibeko “Mairien jauregia”ri, hau da, Gasteineko “Mairuetxe” dolmenari, hartaz dugun testu zaharrenean segur aski. Esan gabe doa “Mairien” hori “Mairuen” dela batuz. Barandiaranek, bere aldetik, “Mairuetxe” edo “casa de Mairu” idatzi du azken testu honetan, goragoko testuan MAIRI-ETXE idatzi badu ere.

Itxuraz Barandiaranek sumatzen du “Mairu” eta “Mairi” gauza bera direla eta bere *Diccionario*-an elkartu ere egiten ditu biak, nahiz bakoitzari sarrera desberdina eman:

Podríamos pensar que Maide, Maindi, Mairi eta Mairu tienen quizá un origen común (Barandiaran, 1984: 123).

Mairiak eta Mairuak berdinak izan daitezkeela ohartu eta, zergatik uztartzen dizkio Mariri, jakinda pertsonaia horien artean ez dela batere antzik? Andereari Mari deitzeko ondorio bat?

Bestalde, zaila da pentsatzea Barandiaranek ez zekiela hitz determinatuen bukaerako ‘ua’ ekialdeko euskalkietan ‘ia’ ahoskatzen dela. Baina ezin da hipotesi hori baztertu, berak idatzi baitzuen (1984: 124) Mendibeko Mairuetxen “ahatxe-larri bat urrez beterik ihortziik bazela”, segur aski “ahatxe-larria” edo “ahatxe-larru bat” esan ziotelarik; beste ikerketa batean ere (1962b: 70), elizako sepulturak aipatzerakoan, “eliz-leki” izena ematen du eliz-leku orde, ondoan “eliz-lekiak” idatzi duela.

IV. MARI-NAHASTE

Barandiaran, halere, beti zuhurra da. Mari, Mairi, Maide izenen lotura ez du segurutzat ematen, “puede” edo “quizá” esaten du, badaezpada ere. Epigonoen idazkietan “puede” hori “mucho más seguro” bilakatzen da, eta makurrak ugaritzen dira.

Hala egiten da José Duesoren *Nosotros los vascos* liburuan:

Es poco probable que el nombre de Mari sea un diminutivo del cristiano de María, y sí mucho más seguro que deba su origen a los ancestrales Maire -genios constructores de dólmenes-, Maide -genios de los montes, de sexo masculino y constructores de cromlechs- y de Maindi -las almas de los antepasados que visitan de noche sus antiguos hogares-. O que signifique simplemente “señora” (Dueso, 1990 I: 42).

Eta, logika horri jarraituz, haxe dio arestian aipatu Mendibe Gasteineko “Mairuetxe”ri buruz:

Casa de Mari o Marietxe es un dolmen Gaxteenia en Mendibe (Dueso, 1990 I: 59).

Pollito. “Mairi” delakoari ‘i’ bat kendu eta hara non Anbotoko Anderea Mairu bilakatu den. Egia da mitologian kasik dena dela posiblea, izaki guztien arteko lotura zerbait izan daitekeela. Baina, orain arte bederen, Mairuen eta Anderearen identikotasuna ez da dokumentatua izan. Mairuak izaki maskulinoak dira eta pluralean agertzen dira; Anderea bat da, bakarra eta berezia. Parentesi artean esan behar da singularrean edo multzo pluralean azaltzea oso garrantzitsua dela pertsonaia mitikoen nortasunean, eta eite hori ez dela aski kontutan hartzen bakoitzaren berezitasunak zehazteko. Pluralak dira mairuak, jentilak edo laminak, eta singularrean direnean “lamina bat” edo “mairu bat” esaten da. Baina sekula ez dira agertuko “Anbotoko Señoreak”, ez eta “Anbotoko Señora bat”, hain zuzen singularitatea delako haren ezaugarri nagusi bat.

Zoritxarrez, denboraren denboraz eta idatziaren idatziaz, dogma onartuak bilakatzen dira gaizki ulertuak. Eta horra zer idatzi duen Victor Manuel Arbeloak duela guti argitaratu liburu batean, Mairuetxearen argazki bikainaren oinean:

Mari, la diosa madre de la mitología vasca (imitación de Cibeles, *Magna Mater*) vuela sobre el caballo de la tempestad, sobre el rayo de sol, sobre el buitre... por los cielos de Ultrapuertos. El dolmen de Mendibe, Marieche, es una de sus moradas (Arbeloa, 1993: 48).

Anbotoko Anderearen eta Cibelesen parekotasuna ere zalantzan ezartzeko da, eta hala egin da “Ekaitzegileak” kapituluan, baina bego, ez da honetako gaia.

Osterantzean, Iparralde honetan edo “Ultrapuertos” horietan, Anbotoko Anderearen tipoko dibinitateari ez diote behin ere Mari deitzen, Saindu baizik, eta hor dira Bidarraiko *Harpeko Saindia* edo Iratiko *Salbatoreko Saindia* (Sainduak, batuaz idatziak). Ez da hemen toki aski bi Saindu horiek Anbotokoarekin erkatzeko, baina haien kidetasunak esangarriak izan daitezke. “Saindu”, “andere” edo “jaun” -singularrean- deitzen zaizkie Euskal Herriko tradizioan dibinitate handiei,

autoktonoei zein etorritakoei, “Jaun” Donibane edo “Andere” Dona Magdalena eta “Andra” Mari bezalakoei.

Bitartean, aurrera doa gurpila, eta teoriak ume berriak egiten. Haurrentzat argitaratu den *Contes traditionnels du Pays basque* liburuan (Cosem, 1996), azalpen hau irakurtzen dugu:

“La Dame d'Anboto”. Mari : c'est le personnage le plus important des contes basques. C'est elle qui commande aux autres génies. On lui donne plusieurs noms : Mari, Maia, Mairi, Maide, Maindi, Amaia, ou tout simplement Dama, puisqu'il s'agit toujours d'une femme belle et riche.

Adibide hauek fenomeno oso hedatu baten lagin murrizta baizik ez dira. Horiek hola, nahasketak ekiditeko eta tradizioa ez eteteko, zuzenagoa litzateke “Anbotoko Anderea” erabiltzea Gipuzkoako eta Bizkaiko dibinitatea aipatzen dugunean, “Saindua” Nafarroa Beherekoa denean; edo kasu guztietan “Anderea” besterik gabe, hizki handiaz idatzia. Mari izenaren bidez Iparraldeko izaki mitikoekin lotura egiten dugula pentsatzea huts handia da, interpretazio faltsuan oinarritua delako eta, ondorioz, mitologiaren ikerketa oztopatzen duelako. Gaur egunean, datu anitz bildurik direnean, gure mitologiak analisi zorrotzen premia du.

X. kapitulua

EUSKARAZKO HITZ GENERODUNAK ETA AHOZKO TRADIZIOA

Mitologiari buruzko iruzkinen artean zer leku du iritzi artikulua batek? Ez dakit ba, egileak eman nahi diona, urrean. Justifikatzeko edo esan nezake, mitologia bezala, hizkuntza sinboloen sistema ere dela: etnologo ospetsuak (Lévi-Strauss) parekatu ditu biak, mitemak eta fonemak modu antzekoz giltzatzen direlakoan, bakoitza bere sisteman.

Baina estakuruak baizik ez dira horiek. Funtsean ahozko euskal tradizioa ekarri nahi dut nire ikuspuntuak finkatzeko, euskara garaikidean zabaldu diren usadio sexisten kontra argudiatzeko eta, horien baztertzeko dituzkegun arrazoi ideologikoei, zuzentasun linguistikoarena gaineratzeko. Temati honi barkatuko dit irakurleak kapitulu hau; saiatuko naiz arrazoiketan eta frogetan artez eta zintzo ibiltzea, motibazioak ezkutatu gabe.

Gurean azkarrean dauden sinboloek eragina izan badezakete pentsamoldean, modu berean eta areago hizkuntzak, pentsamendua bideratzen eta nolabait moldatzen duela; eta ez da huskeria hizkuntzaren sexismoa, zehazkiago haren banaketa generikoan kokatzen dena. Batzuen ustez, hizkuntzak baino munta handiagoa dute ohiturak eta praktika sozialak, baina auzi hori arrautza eta oiloarena langoa da, zein lehena. Biak elkarren eraginpean daude, eta osoa aldatzeko bietan ihardun behar da. Ez dut honekin esan nahi errealitatea eratzen duela hizkuntzak, baizik eta haren isla izateaz gain, eragilea ere badela.

Euskarak generorik ez duela esaten da, ez bederen gramatikala, berez sexuatuak diren bizidun zenbaitu izenetan ezik. Generoa pertsonen ematen zaie, eta etxeko abereak izendatzeko kontuan hartzen da sexua, garrantzi ekonomikoa izanez geroz. Horregatik badugu oilo eta oilar, behi eta zezen, erle eta mando-erle... Erlea eta oiloa ekonomikoki oilarra eta mando-erlea baino garrantzitsuagoak diren ber, emeak ematen dio izena multzoari, eta hartatik hitz eratorria edo konposatua onartu behar dute arrek. Baina ez zaie inportik...

Alderantziz da jendeetan. Oraingo euskara hiritarrean, arraren izena ('gizon' edo 'giza') inposatu da gure espezie biologikoko edozein banako adierazteko, arra zein emea. Zergatiak denek dakizkigu, ekonomikoak baino sozio-politikoak gehiago. Hots, zergatiek ez dutela beti berdina jokatu erakusten digu herri tradizioak. Eta tradizio onak atxikitzeak direlakoan, horiek nahi ditut gogorarazi.

Itxura, berrikitan hedatu da 'giza' erroa erdarazko "humano" eta "sozial" adierazteko; lehenago Elizak zabaldu zuen 'gizon' hitza jendeak oro izendatzeko, eta pentsatzekoa da testu sakratuekiko mimetismoaz egin zuela. Hona haietarik hiru, biziki ezagunak, eguneroko mezetan entzuten baitziren. Lehenak, *Sinesten dut*, dio: "Qui propter nos **homines** et propter nostram salutem descendit de caelis. (...) Et **homo** factus est". Bigarrena, Joanesen ebangelioaren hasiera da, denetarik ezagunena eta magikoki azkarrena: "In ipso vita erat, et vita erat lux **hominum**. (...)

Erat lux vera quae illuminat omnem **hominem**.” Hirugarrena, “Gloria in excelsis Deo et in terra pax **hominibus**”. Latinezko 'homo' neutroa bazen ere, maskulinoa den 'gizon' itzuli izan da euskaraz, eta gaur egunean ere entzun behar dugu “Lurrean bakea gizona”.

Herri tradizioan, ordea, oso oihartzun tikia izan zuen horrelako itzulketak, eta gutitan erabili da 'gizon' hitz neutro gisa, beti zeozer atxeman da haren orde. Garrantzizkoa da hori jakitea, ez diezaguten sinetsaraz 'giza' esateko behartzen gaituela euskarak, beste alternatibarik ez duela. Erlijio kristauak, eta haren kategorietan ibili diren politikak eta zientziak, terminologia sexista aukeratu izanak ez gintuzke bultzatu behar berdin egitera, ondotxo baitakigu zer izpirituk inspiratu dituen kolektibo horiek.

Orain indarrean den terminologia justifikatzen duten irizpideak bi dira nagusiki: 1) 'Gizon' eta 'giza' ez dira berdinak, ez dute gauza bera denotatzen, lehena generoduna da eta bigarrena neutroa. 2) 'Gizon' eta 'giza' jatorriz eta esanahiz berdinak izan balira ere, ez da arazorik, orain konbentzioz desberdintzeko xedea hartua badugu, erabilerak egiazki desberdinduko dituelako, sexismoa baztertuz.

Lehen irizpidea hizkuntzaren usadio, mekanismo eta tradizioarekin batera aztertuko baitira, bigarrena jorratuko dugu lehenago, ikusteko 'giza' erabiltzeak sexismoa suposa lezakeen.

I. HITZEN ATZEALDEA

Sinboloen naturan baitatza polisemiko izatea, hitzaren ohiko denotazioak ez omen du garrantzirik, eta egia izanik ere 'giza'ren berezko esanahia 'gizon' dela, denok ados jartzen baldin bagara 'gizon-edo-emazte' denota dezan, arazorik ez: guk nahi dugun zentzua hartuko du guk nahi dugun orduan.

Horrela arrazoinatzea inozokeria da. Hitzen esanahia behin finkatuz geroz ez da gehiago arbitrarioa, haren irudiak denotazio nagusia ekartzen du gogora, zentzu zabalagoan erabilia bada ere; are gehiago erreferente zehatz eta azkar bat izan duen hitzaren kasuan, 'gizon'aren kasuan esate baterako, generoduna ez ezik sexuduna ere dena.

Jende izateko baldintza 'giza' izatea baldin bada, gizonak bakarrik sartuko dira eskubide osoz kategoria horretan; emakumeei ere sartzea uzten bazaie, gibeledu ate txikitik izango da, denominazioa mailegatua baitute, ez propioa. Nabari da gizona emakumea baino hurbilago dela 'giza'tik eta emakumeak ez direla inoiz gizonak bezain 'giza' izango. Ez lirateke hemengo bazterrak guti harrotuko, halako batean EEBB-etako jakintsuek dekretatuko balute 'pertsonek' esateko hitz egokiena 'yankee-' dela eta inork ez duela zergatik eulitu, 'yankee' ez baita yankee, eta gainera, hitzaren esanahia arbitrarioa izanik, aski da denok ados jartzea engoitik “homo sapiens sapiens” esan orde, “Yankee sapiens sapiens” esateko.

Beste test bat egin geniezaieke gure espeziea izendatzeko hautatzen dugun hitzak muntarik ez duela diotenei: proposa diezaiegun 'ema-' erroa, ea gizonak onartuko duten 'emarte' 'gizarte' ordez.

Euskal parlamentari aurrerakoï batekin horrelako gauzetaz hitz eginez, argudiatu zidan 'giza' baliazera kondenatuak ginela, beste hitzik ez genuelako. Baietz, nik, 'pertsone' edo 'jende' baditugula, azken hau luzaz erabilia Iparraldean zentzu horretan. Eta hark ezetz: jende pertsona multzo bat esateko erabiltzen delarik ezinezkoa dela esangura horretatik ateratzea. Eta pertsona? Ai, pertsona: hitz latinoak dun gaixoa, eta maskara esan nahi din, antzezleak mozorrotzeko hura, itsusi eta dena imintzio. Ene, pentsa nola iraindua sentituko den gure hurkoa, pertsona dela aurpegira botatzen badiogu eta konturatzen bada kakarro deitu diogula alegia deusez! Kontuz ibili gero jende gaitzikorrek eta hitzen polisemiarekin, delako polisemia antzinate klasikoan bakarrik izanda ere. Hau idazteko unean, 1999ko azaroaren 25ean, Virginia Acebesen bortxaketa eta erahilketa deitoratu behar ditugu, hain zuzen emazteen aurkako bortizkeria borrokatzeko egunean berean. Pentsako iritzi anitzek salatu dute sexu erasoak ugaria, haien suntsitzeko erremedio bakarra berdintasuna dela nabarmenduz. Izan ere, erasotzaile horiek ez dute beren parekotzat daukaten norbait kolpatzen, gutxiagotzat daukatena baizik, eta arlo sozial guztietan emakumeak pairatzen duten bereizkeria estrukturalak eragindakoa jokaera basatiena baizik ez da krimen sexuala. Horrelako bortxakeriarik ez genuke jasango menpekotasun orokorra ez bagenu.

Eta gizonen menpe atxikitzen gaitu hizkera zehatz batek, iradokitzen duenean ezin dugula arras pertsona izan, arras 'giza' ere ez baikara. Mezua subliminala da, baina ez hargatik gutxiago erreala eta eraginkorra, eta biziki eraginkorra da ingurugiro zehatz batean indarrean diren praktika sozialak egiaztatzen eta bermatzen dituen: korrelazio zuzenean izanik hizkeraren sexismoa eta jendartearena, ez dute soilik elkar isladatzen, elkar azkartu ere egiten dute, bata bestearen sostengua delarik.

Historiak utzi digun "ondare" kultural eta ideologikoa misoginoa ez balitz, sinbolo linguistiko sexistak ez luke ondorio handirik izango. Alabaina, praktika sozialez gain, filosofo, ideologo eta predikari anitzek etengabe eta luzaz mailukatu gaituzte, uler dezagun gizonen eta abereen arteko zerbait direla emazteak (Delumeau, 1978: 312-320), ez lehenak bezain jende, ez besteak bezain animalia. Horrekin kontsekuenteak baizik ez dira gizonak, emazteak beren propietateko zerbait bezala tratatzen dituztenean.

II. 'GIZA'REN BELARRIPUNTA

Dena den, diote, 'gizon' eta 'giza' hitz desberdinak dira: filologoen izan ezik, inork ez du 'giza' hitzean 'gizon' igarriko, 'humano' hitzean 'hombre' igartzen ez den bezala. Orduan zertarako hainbeste istorio?

Gerta liteke baten batzuk ezertaz ez ohartzea, baina ez dut uste gehienek kasua denik: 'astabelarri' hitzean 'asto' badela ikusten badugu denek, eta denek badakigu 'itsasargi' n 'itsaso' badela eta 'ipurbeltz' en 'ipurdi', nola ezkutatuko zaigu, ba, 'gizarte' n 'gizon' badela, bere atributu guztiekin? Erroetatik hitz eratorriak sortzeko prozedura hori arrunta eta bizi-bizia da euskarari, inondik ez fosilizatua, eta edozein euskaldunek igartzen ahal du nondik datozen erro gehienak.

'Giza' ren kasuan ere igartzen dela frogatzen du behin baino gehiagotan aditzen den detailtxo batek: 'giza' esaterakoan eskupulo zerbait dute batzuek, antza, eta emakumeak ere sartuak direla gaineratzeko beharra sentitzen dute. Aspaldian, Lohitzunen egin zen AEKren aldeko manifestaldi batean, mikroan ari zen antolatzaileak esan zuen: "Orain denok elkarri eskua eman eta giza-kate bat egingo dugu; eta emakume-katea ere, bistan dena". Bistan zen, bai, jende-katea esan izan balu, ez zukeela zertan deus besterik gaineratu.

Nago 'giza' neutroa dela sinetsarazteko teman badela hipokrisia doi bat. Lehen 'kristau' erabiltzen zen pertsona esateko. Hura ere baztertzaila zen, kristauak ez zirenak ez baitziren orduan pertsonatzat hartuak, eta horregatik ez da gehiago ontzat hartzen. Erligioagatik diskriminazio egitea itsusia da gaur egun, sexismoagatik emazteak baztertzea, berriz, gauza jasangarriagoa da, naturala edo, berdin horretarako erligio kristauak inposatu parametroetan finkatzen bagara ere.

Eta horretan daude gure hiztegi moderno gehienak, 'giza' ri zentzu neutro emanaz eta maskulino aitortua den 'gizon' tik berezitez. Hiztegi klasikoaren egileak ere kultura eskolatuaren eragin pean egon dira, latinaren edo erdararen ohituren morroi; baina haien bederen, antzinako usadio herrikoen berri ematen dute, 'jende' hitza ere ekartzen dute eta 'gizon' en sinonimo gisa aurkezten askotan - azken hau neutrotzat baitute.

Herri tradizioan 'giza' eta 'gizon', berdinak izan dira, dudarik gabe. Euskaltzaindiaren *Orotariko Hiztegiari* begiratzen badiogu ikusiko dugu XX. mende arte hitz konposatu gehienetan 'gizon' dela lehen terminoa, eta Hegoaldeko idazle modernoak hasi direla 'giza' erabiltzen. Halere, azken honen 'humano' zentzuarekin batera, ugariak dira 'varón' esangura duten kasuak, hala nola: 'gizagaldu' (libertino), 'gizagazte', 'gizaerdi', 'gizakume', 'gizakote' eta 'gizapuska' (hombrachón), 'giza-jantzi' (ropa de hombre). 'Gizaki' maskulinoa da batzuetan ("gizaki eta andraki guztiak"), bai eta 'gizarte' ere ("se refiere exclusivamente a grupo de varones", Mendiburu, *Idazlan Argitaragabeak* I 351ean). Pierre d'Urtek substantibo maskulino gisa erabiltzen du 'giza': "Nere giza" ("mon mari"); "Zeren gizak kasik bethi baidohaz etxera ostatuetarik tripa ontsa bethea".

Osterantzean, denen gogoan daude bi adibide oso hedatuak eta eztabaida ezinak: gizajo eta gizakunde.

* **Gizajo** (=giza gaixoa) gizonentzat erabili izan da bakarrik, orain batzuetan emazteentzat entzuten bada ere.

* **Gizakunde**. Nafarroako herri batzuetan, Inaute aurreko hiru igandeak horrela izendatzen dituzte: **Gizakunde** (gizonen eguna), **Emakunde** (emazteen eguna) eta **Orokunde** (denen eguna) (Azkue, 1959: 54; Caro Baroja, 1965: 383).

Argi da gizakunde ez dela emakumeena, emakunde ez dela gizonena eta 'gizon' eta 'giza' sinonimoak direla, 'giza' eta 'ema' antonimoak diren moduan. Orain, mirakuluz edo, 'gizakunde' 'orokunde' bilakatu digute. *Emakunde* izeneko erakunde batek, bere izenak zer esan nahi duen derrigorrez jakinda, nola aldarrika zezakeen 'giza' neutroa dela, zergatik haren erabiltzea aholkatzen du sexismoaren kontrako neurri gisa? Ezin da pentsatu ignorantziak egin dutela eta, *Euskaltzaindiaren* arrazoinak asma badaitezke hango sex-ratio-a ikusirik, emazteen defentsarako talde batek egina adar-jotze handizat hartzea beste erremediorik ez dugu.

Zintzoki jokatzeko xedea duen norbaitek esaten zuen bera jarraituko zela 'giza' zentzu unibertsal eta neutroan erabiltzen, ez duelako gizon esan nahi, baizik eta 'iza-' ('izan' aditzaren erroa) eta, funtsean, 'izaki' besterik ez delako 'gizaki'. Baina fisik ez du aldatzen horrek. Etimologiak erakutsi lezake nondik datorren 'gizon' hitza, baina ezin du haren erreferentea aldatzen: arrek monopolizatu badute 'izan + on' deitura, hartan ez da gehiago tokirik emeentzat.

Pertsonari 'gizon' esaten diotenok -eta oraino badira holakoak ausarki- aurpegia ematen dute bederen, ez dute beren sexismoa gordetzen. Baina 'giza' erabili eta aldi berean sexuen arteko berdintasuna predikatzeak ez du kanorerik.

III. ALTERNATIBAK BADIRA TRADIZIOAN

Hirugarren argudioa izaten da “gauden euskaldun”, ez ditzagun hitz arrotzak erabil: 'giza' gizon izanik ere, euskara jatorra da, eta ez dugu besterik pertsona kontzeptua adierazteko. Itxura, erdararen usadioak kopiatzea eta homo-homme-hombre sistema onartzea ez da bekatu; baina eragotzia da erdal jatorrizko hitzik hartzea, 'jende' edo 'pertsona' bezalakoak.

Garbitasuna, beste printzipio asko bezala, komeni denean bakarrik betetzen da. Ehunka hitz arrotz ditu euskarak, euskaldun bipilenen ahotik entzuten ditugu egunero, eta inork ez du haien arbuiatzeko ideiarik; 'jende' hori, berriz, ezin jasan. Edo noiz nola: Hegoaldeko moduan, “la gente” esan nahi duenean, eta 'j' espainiolez ahoskatuz, bai; baina Iparraldeko usadioan, pertsona adierazteko eta 'i' soinuaz ahoskatuz, ah! orduan ez.

Alta, 'jende' bada, izan ere, gehiago lehen orain baino, egia esateko.

III. A. Hiztegiak

Hiztegi klasikoetara mugatuko gara, modernotasunak zer ekarri duen ondo dakigu-eta. Azkue dugu euskal klasikoetan eskuragarriena (*Diccionario vasco-español-francés*, GEV, 1969) eta hauxe aurkitzen dugu hartan:

JENDE: -1° (AN BN, G, L...), gente, persona sin distinción de sexo.

JENDETU: (BN-am), civilizarse: se civiliser, s'humaniser.

Pierre Lhanderen hiztegia (*Dictionnaire basque-français*, Beauchesne éd. Paris 1926) Iparraldeko euskalkietan finkatzen da eta 'jende' errodon hitz ugari erakusten ditu. Hona zerrenda bat:

JENDE: -1° famille; -2° parents; - 3° homme, créature humaine, individu (synonyme: gizon). (...)

JENDARTE: société, public, monde.

JENDAKI: -1° race, espèce d'hommes; -2° parenté, famille -6° les gens, en général le monde.

JENDEKI: -1° parents; -2° individu, homme, personne.

JENDAZTATZE: peupler, remplir d'hommes.

JENDEGISA: avec humanité.

JENDEKARI: sociable.

JENDEKIN: (...) -2° sociable, aimant la société.

JENDERAZIONE: (...) -2° génération, la collection d'hommes vivant dans le même temps.

JENDESTATU: peupler, remplir d'hommes.

JENDETASUN: caractère d'homme d'honneur (synonyme: gizatasun).

JENDETU: s'humaniser, se civiliser.

Orotariko euskal hiztegian, X. tomoan agertzen da 'jende' hitza eta hartatik datozenak. Beste zentzuen artean, "persona humana" bada, eta literaturan harturiko adibide ugari, hala nola: "Ez da jendea holakorik egiten duena, abere basa da" (Duvoisin); "Iendeak iende direnez geroztik" (Atsular); "Agertu zitzaion (Satan) ederki jauntzia eta jendea izatu balitz bezala" (Joanategi); "Etziren jende Rusoak Alemanian, zakur kondu ziren" (Saint Pierre); "Jente bürhezür bat (un crâne humain)".

III. B. Ahozko tradizioa

Iparraldeko ipuin eta legenden bilduma batzuetan hartu adibideetan azaltzen da 'jende' hitzaren aipatu esanahia.

Wendworth WEBSTER-ek 1877an argitaratu zuen London-en *Basque Legends* liburua. Harek bildu euskal testu originalak argitaratu ditu Xipri Arbelbidek (*Euskal ipuinak*, 2 tomo, Klasikoak, Donostia 1993). "Basajauna" deitu ipuinean (tomo I, 9 or.), hiru anaia eta arreba bat katibu dira basajaunaren etxean, eta egun batez "haurride hoik elkharrekin hitz hartzen dute beren basajauna hil behar dute"; baina ordurako hiru anaiak ordurako idi bilakaraziak baitira, arrebak basajaunaren andereari mehatxu egiten dio: "Idi hoik ez badituzu lehen zien bezala **gizon** bilakatzen labe gorritu batean sartuko zaitut". Andreak "iten du harek erran bezala eta **jende** bilakatzen die lehengo manera berean."

Jean BARBIERren *Légendes Basques* liburuan (1931: 22 eta 7), "Laminak Senperen" izenburuko istorioak diosku: Utsaleko zubi azpian bizi ziren laminetarik bat "hiltzera zoan. (...) Eta futxo, ez zitekeen hil, deus gisaz, gutarteko **jende** batek hura ikusita, haren aitzinean, den othoitzik ttikiena erran gabe". Zati honen frantses bertsioa hauxe da: "sans qu'un **être humain** -qui ne fut pas un lamina..."

Mayi ARIZTIaren *Amattoren uzta* bildumako "Mutil baten ixtorioa"n (1982: 14), protagonista deabruari garaitu eta, "hainbertze behi eta idi baitziren han, deabruak beretuak eta tzarrak zirelaketzazienda eginak, berriz **jende** bilakatu ziren. (...) Mutiko hori han zagon (...) harritua ikusizazienda hek **jende** eginak"

"Arttoren ixtorioa" (ibid. 68). Artto engainatzailea bere arerioek harrapatu egin dute, zaku batean sartu eta ostatuaren atean utzi, edaten duten bitartean. Artzain batek zakua higitzen eta Arttok barnetik oiher egiten du: "Utzi, utzi zakua; hemen **jende** bizirik da!" ("personne en vie", frantses bertsioan). Artzain gaixo hura ere engainatuko du Arttok, bere lekua harraraziz zakuan.

Charles VIDEGAINen doktorego tesian (*Le vocabulaire de l'élevage en pays d'Oztibarre*. Université de Bordeaux III, 1989, 281 or.), erranzahar batek dio: "Ahuntza ez kabale (etxeko abere), ametza ez mairan (habe), emaztia ez jende". Erranzahar horretan ahuntza, ametza eta emaztea parekoak dira, beti basak: ametza txarra da eraikuntzarako, egurra dateke; ahuntza menderatu ezina ez da etxeko abere. Emakumea ez da pertsona - abere bai, doaikabe. Esakeraren mezua misoginoa da, baina hori adierazteko erabiltzen den hizkera neutroa da: pertsona 'jende' da, ez da 'giza'.

Baxenabarren egindako galdeketa etnografikoen usu entzun dut 'jende' hitza. Behorlegiko Mari HIRIGOIEN andreak Elortako leizeak aipatu zituen, haien barnean hezurak atxeman dituztela; kabalen hezurak ote ziren galdeturik, ihardetsi zuen: "Bai, kabalen hezurak ditaizke, ez da **jende**-hezurrik, araz". Eta zerrenda bururatzeko, lan honetan berean "Harpeko Saindia" kapituluko BERONIKAREN hitzak: Saindiari esker ogia jaten hasi zen haur bat, "bazkaritan, afaritan bere ogia, **jende** normal batek bezala".

III. C. Literatura

Iparraldeko idazle batzuek etxean jaso dituzten erran moldeak atxiki dituzte, eta askotan aurkitzen ahal dugu haien liburuetan 'jende' hitza. Eskolatuak ere baitira eta erdaraz adieraziko kontzeptuak erabiltzen baitituzte, gerta daiteke aldi berean 'jende' eta 'gizon' erabiltzea, sinonimo gisa.

Horrela egiten du Piarres AINTZARTEk, *Biziaren bazterrean* liburuan (Maiatz, Baiona, 1992, 50. or). Idazleak Algeriako gerlan, armadak egin arabeen hilketak eta torturak ikusi eta, lagunekin joan da kapilauarengana: “Nahi genuen guk haren iritziaren berri jakin torturaz. Ondarrean bet betan (...) lerratu bezala zaio bere ikusmoldea: -Araba horik ez dira **jendeak**, ez **gizonak**.”

Janbattit DIRAZARrek (*Hegiko bordatik*, Elkar, Donostia 1995), alemanen okupazioa eta horretaz amak zuen iritzia kontatzen du 35. orrialdean: “Etxen, amak guti aipatzen zituen alemanak. Aski halere nik ere jakiteko ez zituela batere maite. (...) Erraiten zuen ere bizkitartean Aleman horiek gu bezala **jendeak** zirela, Jainko beraren umeak.”

Mattin HIRIGOIENen, *Hautsi da kristala* antzerkian (Euskaltzaindia, 1996, 48 or.), protagonista bati buruz dio beste batek: “Neska hori arrunt basa da. **Jende** manerarik ere ez du”.

Rogert IDIARTEk “Agota Pastoralá ou l'émminente dignité de la personne humaine” artikuluan (*Enbata* aldizkaria 1999-08-05) hauxe dio: “L'un des proverbes les plus connus en Soule est le fameux "**Jentik jentia** balio dizü": une personne humaine en vaut une autre”.

Ez du balio zerrenda gehiago luzatzea, argi dateke euskarak bai baduela 'giza' ordezkatzeko alternatiba jatorra, eta inor ez dela 'giza' erabiltzen behartua.

IV. HITZ NEUTROEN BALIOA

Gizon eta emazteak kokatzen dituen 'jende' bezalako hitz neutro gehiago baditu euskarak, horiek ere gero eta gutxiago erabiliak, nahiz Davant euskaltzainak aspaldian ohartarazi zigun “Denak anaiak?” artikuluan (*Egunkaria*, 1996-06-04): aita + ama = gurasoak; nebak + arrebak + ahizpak + anaiak = senideak edo haurrideak; semeak + alabak = haurrak (adinekoak izanik ere, beti gurasoen haurrak gara denok edo, Dirazarren amak esaten zuen bezala, “Jainko beraren umeak”).

Azken honetan maiz entzuten da emakumeen aipamena, maskulinoari edo neutroari gaineratua, hala nola, “Euskaldun guztiok, gizonak zein emakumeak...”, “Herri honetako gizon eta emakumeek badakite zein alderdik ekarriko dien onura handiena”, “Goraintziak Iparraldeko anaiei, edo hobe esanda anai-arrebei, ez daitezten feministak haserre”, eta holakoak.

Berdintasunaren gurariz eta politikak beharturik jazotzen dira horiek, emazteek ere bozkatzeko baitute. Hitz femininoa horrela gaineratua ikusteak beti uzten dit karitate gustu bat, injustiziaren aurrean egiten den borondate oneko jեսtua. Biziki estimagarria da, baina nahiago nuke haren beharrik ez izan, eta oparitxoak justiziaz gain hartzea.

“Anai-arrebak” bezalako hitz konposatuak aski luzeak dira eta, hizkuntzak komunzki ekonomiara jotzen baitu, bigarren terminoa, femininoa, galtzeko arriskuan dago beti. Orduan, aurreko egoeran erorita geundeke: denok anaiak berriz, eta berriz haste, Damoklesen ezpata gainetik kendu barik.

Arazo linguistikoa ere ekar dezake hitz konposatuen erabilerak, pluralak baitira beti eta ezin direlako singularrean erabili. Ezin da, baina egiten da. Borrokari buruz 1999ko udan argitaratu den liburu baten egileak zioen lan hori bere esperientzien eta gogoeten “seme-alaba” zela. Hilabete eta erdi geroago (1999-11-19), hara non *Euskadi Irrati*-ko Londongo berriemaileak, goizean goizik jakinarazi digun Blair-en emaztea haurdun dagoela eta maiatzean jaioko dela “seme-alaba”. Bizkiak ote? Ez... Alferrikako nahastea, askoz errazagoa baita 'haurra' esatea, ingelesek 'child' eta frantsesek 'enfant' esaten duten bezala, eta herenegun arte euskaldun guztiek esaten zuten bezala.

V. AMAITZEKO ORDUA

Arazoa ez da gurea bakarrik, eta gure auzo batzuk jadanik lotu zaizkio gaiari, Frantzian esate baterako, nahiz ondorioak oraino ez diren ageri. *Le Monde Diplomatique*-k 1999ko udaberrian argitaratu *Manière de voir* ale bereziko Agnès Callamard-en artikulua ekarriko dut harira, “Le sexisme à fleur de mots”.

“Izendatua ez dena ez dela existitzen” oharretik abiatzen da idazlea, erraz ulertzen duguna, izena eta izana lotzen dituen gure esakune ospetsua gogoratuz. Eta hala, emazteak ezabatuak izan ziren Frantziako Iraultza garaian “les droits de l'homme” aldarrikatu zituztenean. 'Homme' hitza hautatu zuten gizonek bazekiten terminoa ez zela neutroa, alderantziz, nahitara zituzten emazteak baztertu, izaki irrazionalak zirelakoan gehienak eta halakoei ez zegozkien eskubideak. Lege berriak ere arabera egin zituzten, eginkizun politikoak emazteei debekatuz, harrigarria ez dena bozkatzeko eskubidea 1944an bakarrik onartu zieten erresuma batean. Frantziako lehen errepubliketako eta inperioko hizkera eta politika esplizituki sexistak izan ziren.

Orain, politika zerbait aldatu delarik, hizkera aldatzea ez duela balio diote batzuek, elkarrengandik autonomoak izanda, hobe dela ohitura linguistikoei bake ematea. Alta, zehaztasun zenbaitek salatzen dute mintzaira baztertzailerak hazkura ematen duela noizean behin, eta hola, emazteak politikan sartu arau, “hommes et femmes” esakera nagusitzen hasia da, “homme” soilik esatea larriegia delako edo. Jadanik “Droits de l'homme”en 1948ko aldarrikapenean, 'personne' hitza ere agertzen da testuan, idazleek zalantzen adierazle. Askoz geroago, 1997an, dei auzitegiko zinpekoek zin egiteko formulaz “personne” eta ez “homme” erabiltzeko bozkatu zuen Senatuak; orduko, 1991n eta 1993an UNESCO-k aholkatua zuen “droits de la personne” erabiltzea, eta gauza bera egin zuen 1993an Nazio Batuen Erakundeak Vienan antolatu forum batek; Amnesty International-ek, bere aldetik, 1997an erabaki zuen “personne humaine” erabiltzea eta ez “homme”.

Aholkuak ez dira guti, eta prestigidun eta eskudun erakundeetatik datoz. Zoritxarrez, kasik inork ez die jaramonik egin, orain arte, eta komunikabideek zein elkarteek, Iparraldekoek barru, “Droits de l'Homme” aipatzen eta errebindikatzeko dituzte hitzetik hortzera.

Zer galduko dugu euskaldunek eta zer euskarak, aurrerakoien ildotik jo bageneza, ahozko tradizioak eskaintzen digun 'jende' hitza hautatuz, edo auzoko berritzaileen terminologiara egokituz eta 'pertsona' erabiliz?

BIBLIOGRAFIA

AARNE, Antti & THOMPSON, Stith

1964(1. arg. 1928) *The types of the Folktale*, Academi Scientiarum Fennica, Helsinki.

(Alberto Magno) *Les admirables secrets de magie naturelle du Grand Albert et du Petit Albert*, Albert Michel, Paris, 1981.

ARANA Anuntxi

1968 *Bidarraiko Harpeko Saindua*, Antropologiaren Euskal Bilduma, Haranburu Altuna, Donostia.

1996 *Orozko Haraneko kondaira mitikoak*, doktorego tesia, EHU.

1997 "Emakumeak euskal mitologian" in *Emakumeak Euskal Herriko historian*, Formazio Koadernoak 24, IPES.

ARBELOA Victor Manuel

1993 *Navarra de Ultrapuertos*, Caja de Ahorros Municipal de Pamplona, Pamplona.

ARIZTIA, Mayi

1980 *Amattoren uzta*, Elkar, Baiona.

ARNAUDIN, Félix

1966-1967 *Contes populaires de la Grande Lande*, bi tomo, Amis de F. Arnaudin, Bordeaux. (1. arg. 1877)

ARRATIBEL, Joxe

1995 *Kontu zaharrak*, Erein, Tolosa.

AUGE, Marc

1997 *Symbole, fonction, histoire. Les interrogations de l'anthropologie*, Hachette, Paris.

AZKUE, Resurrección María

1959-1969 (1935-1945 1. arg.) *Euskalerraren Yankintza*, 4 tomo, Espasa Calpe, Madrid.

BACHELARD, Gaston

1942 *L'eau et les rêves. Essai sur l'imagination symbolique*, Librairie José Corti, Paris.

BARANDIARAN, Jose Miguel

1960-62 *El mundo en la mente popular vasca*, 4 tomo, Auñamendi, Donostia.

1972-1974 *Obras completas I, II, III, IV, V*, Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

1984 *Diccionario de la Mitología Vasca*, Txertoa, Donostia.

BARBIER, Jean

Légendes basques, 1931, 1984.

BETTELHEIM, Bruno

1976 *Psychanalyse des contes de fées*, Laffont, Paris (Theuses of Enchantment, New York, 1976).

CARO BAROJA, Julio

1966 (1. ar. 1961) *Las brujas y su mundo*, Alianza editorial, Madrid.

1965 *El carnaval*, Taurus, Madrid.

1975 *Brujería vasca*, Txertoa, Donostia.

CASENAVE HIRIGILE, Junes

1994 "Azalegiko karbea à Alçay en Soule. Son mystère ou légende de Herensuge", *Ikuska*, 1994, 1. trimestre, 6.

CERQUAND, Jean-François

1985-1986 *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*, (1875-1885 bilduak, A. Aranaren transkripzio moldatua), 2 t. Txertoa, Donostia.

COSEM, Michel

1996 *Contes traditionnels du Pays basque*, Editions Milan.

CATLIN, Georges

1992 (1. arg. 1844) *Les indiens d'Amérique du Nord*, Albin Michel, Paris.

DELUMEAU, Jean

1978 *La Peur en Occident, XVe-XVIIIe siècles*, Fayard, Paris.

DONTENVILLE, Henri

1998 (1. arg. 1950) *La mythologie française*, Payot, Paris.

DURAND, Gilbert

1969 (1. arg. 1960) *Les structures anthropologiques de l'imaginaire*, Bordas, Paris.

DUESO, José

1990 *Nosotros los vascos*, tomo I: Mitos, leyendas y costumbres. Lur, Donostia.

ELIADE, Mircea

1957 *Mythes, rêves et mystères*, Gallimard, Paris.

1968 "Dieux et déesses", *Encyclopaedia Universalis*, 5. tomoa, Paris.

1975 (1. arg. 1949) *Traité d'histoire des religions*, Payot, PBP, Paris.

ETCHEHANDY, Marcel

1989 *Jantza Euskal Herriko elizetan*, Kultura eta Fedea.

ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel

1995 *Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esakundeak*, Labayru ikastegia, BBK, Bilbao.

FRAZER, James George

1981-1984 (1911-1915 *The Golden Bough*) *Le rameau d'or*, 4 tomo, Laffont, Paris.

GAMINDE, Iñaki

1997 "Elantxobeko ahozko narrazioak", *Fontes linguae vasconum*, 76, Sep.-Dic.

GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan

1991 *Euskal pentsamentu magikoa I*, Baroja.

1994 *Euskal pentsamentu magikoa II*, Elkar, Donostia.

GASTAÑEGA, Fray Martin de

1994 (1. arg. 1529) *Tratado de las supersticiones y hechizarias y de la posibilidad y remedio dellas*, edic. e introduc. J. R. Muro Abad, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño.

GINZBURG, Carlo

1992 *Le sabbat des sorcières*, Gallimard, Paris (*Storia notturna, una decifrazione del sabba*, Torino, 1989).

GOÑI AZURMENDI, Karmele

1991 "Etnografía de Zerain: Ritos de pasaje, la muerte", *Anuario de Eusko Folklore*, 1991, 51-115 or.

GRIMAL, Pierre

1951 *Dictionnaire de la mythologie grecque et romaine*. Presses Universitaires de France, Paris.

HARTSUAGA, J. Ignazio

1987 *Euskal mitologia konparatua*, Kriselu, Donostia.

HERITIER, Françoise

1996 *Masculin-féminin. La pensée de la différence*, Odile Jacob, Paris.

JUANENA, Agurtzane

1991 "Hizkuntz sexismoa eta euskara", *Jakin*, 65 zbk. uztaila-agorrila.

KALTZAKORTA, Jabier

1997 *Lamia, Sorgin eta Tartaroen erresuma ezkutua*, Labayru ikastegia eta BBK, Bilbo.

LAFITTE, Pierre

1941 *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Coll. Aintzina, Librairie "Le livre", Bayonne.

LE BRAZ, Anatole

1994 (1. arg. 1922) *La légende de la mort chez les bretons armoricains*, in *Magies de la Bretagne*, Laffont, Paris.

LEGARZA Y ASTEGIA, Joseba I.

1986 *Urkiola*, Ed. Santuario de Urkiola, Dip. de Bizkaia.

LE GOFF, Jacques & LE ROY LADURIE, Emmanuel

1971 "Mélusine maternelle et défricheuse", *Annales Economies, Sociétés, Civilisations*, 1971, 3-4 : 587-622.

1977 *Pour un autre Moyen Age*, Gallimard, Paris.

LERTXUNDI, Anjel

1995 *Piztiaren izena*, Alberdania, Irun.

LEVI-STRAUSS, Claude

1985 *La potière jalouse*, Plon, Paris.

LLOYD, Geoffrey

1993 *Pour en finir avec les mentalités* La Découverte, Paris (*Demystifying Mentalities*, Cambridge University Press, 1990).

MARKALE, Jean

1977 *Mélusine l'androgyné*, Ed. Retrz, Paris.

MARLIAVE, Olivier de

1995 *Saints, sources et sanctuaires du Pays Basque*, Aubéron, Bordeaux.

MICHELENA, Luis

1990 (1. arg. 1964) *Textos arcaicos vascos*, Gipuzkoako Foru Aldundia, EHU, Donostia.

MUNCHEMBLED, Richard.

1987 *Sorcières, justice et société, aux XVI^e et XVII^e siècles.*

OTT, Sandra

1993 (1981, *The circle of Mountains: a Basque Sheepherding Community*, Oxford U.P.) *Le cercle des montagnes: une communauté pastorale basque*, Ed. du C. T. H. S. Paris.

OVIDIO (Ovide)

1966 *Les métamorphoses*, Garnier-Flammarion, Paris.

PEILLEN Txomin

1991 «Noms de dieux», *Bulletin du Musée Basque*, 132 zb., Bayonne.

PEÑA SANTIAGO, Luis Pedro

1989 *Leyendas y tradiciones populares del País Vasco*, Txertoa, Donostia.

PROPP, Vladimir

1983 (1. arg. 1946) *Les racines historiques du conte merveilleux*, Gallimard, Paris.

SATRUSTEGI, José María

1980 *Mitos y creencias*, Txertoa, Donostia.

SEBILLOT, Paul

1968 (1. arg. 1904-1907) *Le folklore de France*, 4 tomo, Maisonneuve et Larose, Paris.

VALLE, Teresa (del)

1985 *Mujer vasca, imagen y realidad*, Anthropos, Barcelona.

VAN GENNEP, Arnold

1946 *Manuel du folklore français contemporain*, tome premier, vol I : "Du berceau à la tombe", Picard et Cie. Paris.

VARAGNAC, André

1948 *Civilisations traditionnelles et formes de vie*, Albin Michel, Paris.

VARAZZE, Jacob de

1967 (1264an idatzia) *La Légende dorée (Legenda Aurea)*, Garnier Flammarion, Paris.

VERDIER, Ivonne

1979 *Façons de dire, façons de faire. La laveuse, la couturière, la cuisinière*, Gallimard, Paris.

VERNANT, Pierre

1996 *Entre mythe et politique*, Seuil, Paris.

VEYRIN, Philippe

1955 *Les basques*, Arthaud, Paris.

VIDEGAIN, Charles

1989 *Le vocabulaire de l'élevage en Pays d'Oztibarre*, doktorego tesia, Université de Bordeaux, arg. g.

VINSON

1883 *Le folklore du Pays Basque*, Maisonneuve et Larose, Paris.

WEBSTER, Wentworth

1993 *Euskal ipuinak*, 2 tomo, Xipri Arbelbideren argitalpena.

WOOLF, Virginia

1996 (1929, *A room of One's Own*) *Une chambre à soi*, U. G. E. 10/18.

Aurkibidea

SARRERA	5
I. MITOAK	5
II. HURBILAK	7
III. SARBIDEAK.....	9
I. kapitulua	11
EKAITZEGILEAK: DIBINITATE MENDITARRAK.....	11
I. ANBOTOKO ANDEREA	11
II. SAIAK, BELEAK ETA MURUKO DAMA.....	12
III. ABADEA ETA ZALDUNA.....	13
IV. ERROGATIBAK, MENDIKO ELIZAK.....	15
V. EKAITZEGILEAK ETA APEZ KONJURATZAILEAK.....	15
VI. GOIANDERE ORTZIGILEAREN JATORRIA.....	17
VII. MELUSINA SUGEA	19
VIII. HERENSUGEAK	21
IX. ANDEREA ETA HERENSUGEA.....	22
X. ANDROGINIA	24
XI. ERREFLEXIBITATEA ETA AURKAKOEN BATASUNA	25
XII. EKAITZEGILEEN ERRITUAK	26
XIII. ANDEREA, ZERUKO DIBINITATEA.....	27
II. kapitulua	29
HERIOAREN IKUSPEGIAK.....	29
I. ERRITUAK ETA MITOAK	29
II. HERIOA NORK EDO ZERK EKARRI.....	30
III. HERIOA EUFEMIZATUA.....	31
IV. BIZITZEA ETA HILTZEA PAREKATUAK.....	33
V. ONDO BIZI, TXARTO HIL	35
VI. HERIO DESIRATUA.....	37
III. kapitulua	40
AUZO HARREMANAK LAMINEN ETA JENTILEN MITOETAN.....	40

I. LAMINAK NOLAKOAK	40
II. LAMINAK ESKE.....	41
III. ELKARREN GOMITAK	42
IV. LAMINEN ORRAZIA EBATSI.....	43
V. LAMINEN EMAGINA	44
VI. MAIRUAK, LAMIN OHOINAK ETA ARROLAN	45
VII. LAMINA, BASAJAUN ETA JENTIL BAHITZAILEAK	46
VIII. JENTILEN BUKAERA	47
IX. MITOA ETA IDEOLOGIA	48
IV. kapitulua	50
URAREN AIPAMENA HAINBAT MITOTAN.....	50
I. BEHEKO UR SINBOLIKOA: LAMINAK	50
II. PARTE TXARREKO ZALDIK	52
III. URA ETA DENBORA.....	52
IV. URA, ILEA ETA SUGEAK.....	53
V. GOIKO UR NATURALA ETA EKAITZA: ANDEREA.....	54
VI. EKAITZ ZALDUNA.....	55
VII. URA EKARTZEKO TEKNIKA	57
VIII. URA GAINDITZEKO TEKNIKA.....	58
IX. ANIZTASUNA	59
V. kapitulua	61
EMAZTEAK EUSKAL MITOLOGIAN - I.....	61
Mundu honetako bikoteak.....	61
I. DEABRUA BAINO AZKARRAGO	62
II. EMAZTE EZ-DEUSAK ETA BIKTIMAK.....	64
III. AHAIDE NAGUSIEN LARDERIA	66
IV. ARMAK ETA BIZARRAK	68
V. SORGINKERIAREN ANTIDOTOA	69
VI. AMA SORGINA ERRE.....	70
VII. AMA IZUGARRIA ETA ODOL GAIZTOA	71
VIII. HEMEN ERE TXAKURRAK ORTOZIK.....	72
VI. kapitulua	75

EMAZTEAK EUSKAL MITOLOGIAN - II.....	75
Dibinitate femininoak.....	75
I. ANBOTOKO ANDEREA, AMA LURRA OTE?.....	76
II. ANDEREA, EUSKAL MITOLOGIAKO DIBINITATE NAGUSIA?.....	78
III. ZERUAN BEZALA LURREAN ERE?	78
IV. INTERPRETAZIOAK MITO BALIO DU	80
V. LURPEKO AGINTEA?	81
VI. LOGOS BARIKOAK.....	81
VII. ZERUARI SO ETA MAILUARI LOT.....	83
VII. kapitulua	85
APEZEN IRUDIA TRADIZIOAN	85
I. APEZAK GAUEZKOEN GARAILEAK	85
II. SORGINEN AURKAKOA	87
III. APEZ SORGINAK.....	88
IV. EIHAR-MEZA.....	90
V. APEZ EKAITZ KONJURATZAILEAK	91
VI. APEZ EKAITZEGILEAK	93
VII. APEZ KONDENATUAK ETA ARIMA ERRATUAK	95
VIII. ISEKAK: APEZ EMAZTEZALEAK, JALEAK.....	97
IX. APEZ OSAGILEAK	99
X. APEZ ERREKERITZAILEAK	99
X. APEZ HEROI SALBATZAILEAK	100
VIII. kapitulua	102
BIDARRAIKO HARPEKO SAINDIA	102
I. BIDEA.....	102
II. LEKUA.....	103
III. ERRITUA.....	104
IV. OTOITZA ETA ESKAINTZA	105
V. BEILARIAK.....	107
VI. SENDATZEAK	108
VII. PUNIZIONEAK.....	110
VIII. HASIERAKO MITOA.....	111

IX. SINESTEIA	112
IX. kapituluia	114
MARI, MAIRU ETA BESTE	114
I. MARI.....	114
II. MAINDI, MAIDE, MAIRI: BA OTE DIRA?	115
III. MAIRUAK NOR DIREN	116
IV. MARI-NAHASTE	118
X. kapituluia	120
EUSKARAZKO HITZ GENERODUNAK ETA AHOZKO TRADIZIOA	120
I. HITZEN ATZEALDEA	121
II. 'GIZA'REN BELARRIPUNTA	123
III. ALTERNATIBAK BADIRA TRADIZIOAN	124
III. A. Hiztegiak	125
III. B. Ahozko tradizioa	126
III. C. Literatura	127
IV. HITZ NEUTROEN BALIOA	128
V. AMAITZEKO ORDUA	129
BIBLIOGRAFIA	130